

OÑATI EUSKARA ZAHARRA

Apunteak 1



OÑATI
dabilen herria

Ander Lizarralde
2025eko abendua

Ezer baino lehen bi ohar

1) Erreferentzia egiten zaion hiztun bakoitzak korrespondentzia du oñatiar batekin. Aurreragoko liburuxkaren batean aterako dut bakoitza nori dagokion.

2) Hemen planteatzen diren arazoen erdiak akademiak argituta izango ditu. Baina nola erdi hori zein den ez dakidan, osorik atera dut lana.

SARRERA

Jasoketa irizpideak

Irizpide hauek erabilia aurkezten dira hiztunek esandakoak:

—Azenturik ez dut erabili orokorrean. Kasuan kasuan aipatzen ari naizen hitzari azentua jarri diot.

—Hitzak osatu egin dira orokorrean. Salbuespen gutxi batzuetan ez ditut osatu. Horretarako arrazoi nagusia esaldien freskura mantentzea izan da, eta arrotzasuna ez eragitea ahal dela. Hala, “*ttut*” erabili dut, ez “*dittut*”; “*dou*”, eta ez “*dogu*”; “*ebai*”, ez “*ebagi*”; “*erabai*” eta ez “*erabagi*”...); irakurleak erraz ezagutuko ditu.

—Osaketaren problematika ez dut hemen azalduko; lan hauetako gai inportante bat denez, berauetan landuko da.

—Bustidurak (ñ, tt, dd, ll) hitz barruan bakarrik jaso ditut, hitz hasieratan ez ditut jaso, ezta amaieratan ere. Bustidurak beste liburuxka batzuetan azaltzen joango naiz zehazto nola diren Oñatiko Euskara Zaharrean.

—Oñatiko Euskara Zaharra “*esaten den bezala ere*” aztertuko da, baina jasoketa egiterakoan baztertu egin dut hala jasotzea, praktikoagoa izanik bideragarriagoa iruditzen zaidalako. Hiztunen fonetikari fidel izatea, hitzez hitz, lan nekezegia eta justifikazio gabea iruditzen zait. Zuzenagoa iruditzen zait fonetika azaltzean landu nahi diren agerpenak deskribatzea.

—“*Ts*”-ak ez darabiltzat. Ez darabiltzat inoiz. “*Tz*” eta “*tx*”-ren arteko diferentziak lausotzen dituela uste dut-eta.

—“*H*”-ak badarabiltzat, irakurgarriago izan dadin; ez direla ahoskatzen, badakizue. “*Z*”-rekin berdin, ez direla ahoskatzen badakizue.

Noiz ez dut “*h*” erabiltzen? Bokal bikoitzen kontuak tartean direnean

(aaztu, eta ez “ahaztu”) eta diptongo kontuak tartean direnean (aizpa, eta ez “ahizpa”).

Izagirrenak, eta Umerezenak ere irizpide hauetara makurrarazi ditut.

Eta besterik ez.

Lan hauen izatea

Liburuxka hauek (*Oñatiko Euskara Zaharra. Apunteak*) kuadernillo moduan aterako dira, erdi liburu erdi apunte moduan. Txostenetik hurrago liburutik baino, egia esateko.

Lan hauen izatea azterketa probisional moduan planteatuta dago.

Herriko euskara irakasle, ikerle, filologo eta interesatuekin pentsatuta idatzi ditut, nahiz herrikoak edo nahiz EH-koak.

Ez inori atea ixtearren, baina jakinda gai hauek ez dutela interes zabalik pizten.

Interpretazio azalpen eta gogoeta hauek mota hau batu dut:

—Orain arte atera diren lanen gaineko zehaztapenak.

—Orain arte egin ditudan jasoketak erakutsi zabaldu eta interpretatzeko.

—Eztabaidak pizteko argitu gabeko alorretan, azterketak aktibatzeke.

Apunte-liburuxka hauek sailean aurkeztu ondorean, hauek guztiak batu, aztertu eta ondorio trinkoago, sendoagoak ateratzeko asmoarekin.

Horregatik, edozein ekarpen, zuzenketa, ohar egiteko hau da helbide elektronikoa:

jardunaldiak@hotmail.com

Zer aztertuko dudan

Olabartarrak lanaren ondoren *Araoztarrak 1* eta *Araoztarrak 2* lanak prestatu ditut. (Aurrerago *Lárrainttarrak* osatzeko asmoarekin).

Ordurako herriko hizkeraz ohar pila bat batuak nituenez, apurka-apurka argitaratzen hastea erabaki nuen.

Herri hizkerak jaso asko jaso dira (azken 50 urteetan).

Interpretatu, ondorioak atera, jasotakoa zorroztu, zalantzan jarri... Hori gutxiago egin da.

Baina jasotzea bezain inportantea da, edo gehiago (falta diren jasoketei norabidea ematen diela ahaztu gabe).

Hitz bat, deklinabide forma bat, bakarra, bere osotasunean, deskribapen eta definizio zuzenekin aurkeztea, hamar halamoduz jasotzea baino probetxugarriagoa delako.

Liburuxka hauen asmoa da jasota dagoena aztertzea, zenbait baieztapen zalantzan jartzea, beste batzuk trinkotzea...

Oñatiko Euskara Zaharra da (OEZa) hemen aztergaia muga eremua.

Izendapen hori zeri dagokion zehazten saiatuko naiz.

Ondoren Araozko Euskararen (AE) deskribapena aurkeztuko dut. Zehatzago esanda, Araozko Euskara Oñatiko Euskara Zaharrarekin konparatuta, bata bestearekin dituen ezaugarri bereizgarrietan arreta jarritz

Eta ondoren Oñatiko Euskara Zaharraren (OEZ) inguruko apunteak datoz.

Atal txikitan antolatu dut lana. Bakoitza beregaina izanik. Erakargarriagoa bideragarriagoa zait, kontraproposamenei edo zuzenketei bidea irekita utziz.

Oñatiko Euskara Zaharraren (OEZ) definizioa

Oñatiko Euskara Zaharraz (OEZ) ari naizenean zertaz ari naizen azalduko dut zehazto.

OEZ-a Oñatin hitz egin den euskara da.

Gero etorri denari Oñatiko Euskara Berria deituko diogu (OEB).

Ohar bat. Oñatiko Euskara Zaharra oraindik entzuten da (eta jaso daiteke).

Beste ohar bat. OEZaren oihartzun solte pila batek iraun dute hurrengo belaunaldietan, eta luze iraungo dute. Horrek ez du esan nahi OEZa hitz egiten dutenik hiztun horiek. Parte bai, baina parte bakarrik.

Konparazio baterako,

“*Ordúlaen*” esango dizu OEZ-a hitz egiten duenak, “*órdú-laurden*” esango dizu OEBa hitz egiten duenak.

OEZean “*Oóldixia*”; OEBan “*Goroldixua*”.

OEZean “*lagunakana noia*”; OEB “*lagunana noia*”.

OEZ “*baleoz*”; OEB “*baldin baeuzen*”.

OEZean “*bázkaldu*”; OEBan “*bazkáldu*”.

OEZean “*bérdia*”; OEBan “*berdéa*”.

Burnia “*órdáittuta*” dagoela, lehenengokoek, “*herdóildduta*” bigarrenengokoek.

Eta hain litzateke luzea zerrenda...

Euskara Batuaren eraginik ez dute jaso lehenengokoek.

Gure gurasoen belaunaldikoek, eta aurrekoek, hitz egiten dute OEZa.

Euskara Batuaren eragina jaso dugu harrezkerokook.

Oñatiko Euskara Zaharraren (OEZ) hiztunak hauek dira:

1) 1960a baino lehen jaiotakoak.

2) Euskara ahozko transmisio bidez jaso zuten. Telebistarik gabe, irratarik gabe (mobilik gabe, internetik gabe). Umeendako material idatzirik gabe eskoletan eta etxean.

3) Eskolara berandu joan ziren 6-7 urterekin. Hizkuntzen adksizioan garrantzia berezia du horrek (hemen ez dugu aztertuko).

4) Eskola erdaraz jaso zuten.

5) Euskara Baturik ez zuten ikasi (ez zen existitzen, 1968). Batuan irakurtzea kosta egiten zaie. Euren euskara ez da Batuarekin nahastu.

Hauen euskara da Oñatiko Euskara Zaharra (OEZ).

Oñatiko Euskara Zaharra. Apunteak lanen helburua euskara mota hori deskribatzea eta aztertzea da, Oñatiko Euskara Berriarekin konparaketan.

Bata bestearen jarraipena da?

Desberdintzen dituzten hainbeste ezaugarri izanik, galdetu dezakegu; OEZ eta OEB euskara berdintzat hartu daitezke?

Bai eta ez.

Ezaugarri askok badiraute.

Baina beste pila bat (oso luzea da zerrenda) galdu dira. Eta gehiegi dira galdutakoak bi euskara horiek berdintzat hartzeko.

Espazio berean belaunaldi batek bereizita bi eskara aldaera elkarbizitzen ageri dira, amaalaba hizketak.

Horregatik Oñatiko Euskara aztertzen ari direnek, zehaztearen aldekoa naiz deskribatzen dena zein den bietatik.

Niretako erantzuna baiezkoa da, bi euskara direla, bi hizketa, lehengoa eta oraingoa. Batzen dituzten ezaugarri askorekin. Baina bereizten dituzten gehiagorekin.

Noiz hasten den OEZa zehaztea komeni da, norabide horretan egindako zehaztapenak eztabaidagarri izan daitezkeen arren.

Niretako Izagirreren Hiztegiarekin hasten da OEZa (hala erabaki eta zehaztu dut). Azkue eta Umerez kanpoan geratzen dira.

Izagirrek deskribatu zuen euskarak bat egiten du gero egin diren grabaketetan hitzunek darabiltenarekin (Ahotsak, eta guk egindakoak). Belaunaldi bat edo bi zaharragoen euskara izanik ere, bien arteko lotura begibistakoa da.

Aztertu dudan euskararen iturri nagusiak hauek dira:

-Izagirreraren hiztegia (1950 hamarkadan egina).

-Ahotsak-eko grabaketak.

-Nik egindako elkarrizketak.

Grazianoren euskara kanpoan utzi dut, kontuan hartuta ere.

OEZ-A ZER DEN idea bat egiteko onena berau dastatzea da. Hemen bi esaldi OEZkoak:

Baikotza(k) gere ústia'taku-ta (Olabarrieta 2). *Hau dóntzuau háren méndian nola dabillen* (Olabarrieta 2).

OEBan ez da modu horretan hitz egiten, ez morfologia aldetik (“*hau dontzuau*”), ez fonetika aldetik (“*usti'taku*”), ez lexikoari dagokionez (“*dontzua*”).

Eta horrela, esaldiz esaldi, behin eta berriz diferentziak topatu daitezke gure aurrekoen eta gure belaunaldiaren artean.

Bizimodua aldatu, euskara aldatu

Oñatiko jendearen bizimodua errotik aldatu da, baserri mundutik aro moderno industrialera saltotzarra eginda.

Eta herri-hizketari sakon eragiten dien faktoreak lotuta daude bizimodu aldaketa horrekin.

1960ko hamarkadara arte (80ra arte luzatu daiteke), inork ez zeukan kotxe partikularrik. Inork ez zuen turismorik egiten, ez oñatiarrek kanpoan, ez kanpotarrek Oñatin.

Inork ez zuen hegazkinez bidaiatzen.

Inor ez zen arratsalde pasa Gasteizera, Donostiara joaten, edo Arrasatera erosketak egitera.

Horrek ez du esan nahi Oñatitik ez zirenik irtetzen. Batzuk *“kriara”* joan ziren Donostiara. Baina han bizitzera lanean ziharduten artean.

Baserritar asko Arabara joaten ziren, denboraldi batez morroi, bitartean erdaraz ikasteko.

Soldaduzkak eta gerrak ere atera zituen oñatiarrak kanpora.

Baina joan etorriak ez zeukan zerikusirik oraingoarekin, eta kanpoko euskarek (edo erdarak) ez zuten bertako aldaera orain adina mugitzen.

Oñati orduan, modu batera esateko, oso handia zen. Eta oinez ibiltzen ziren. Eta oinez, konparazio baterako, araoztarrek (aguro joanda) ordubete behar zuten kalera. Eta beste ordubete bueltan (astoarekin joanda bikoitza, Bittoina Goitiak kontatu zigunez).

Ondokoekin zuten tratua. Etxekoekin, aldekoekin, auzokoekin. Tratua eta elkarreragintza.

1960tik aurrera desplazamenduak guztiz aldatu ziren. Eta horrekin batera harremanak.

Momentu berdinean komunikabideak iritsi ziren. Irratia eta telebisioa.

Ordura arte komunikazio guztiak ahozkoak ziren. Noizean behin eskutitzen bat iritsi zitekeen. Noizean behin periodikuren bat, bertso paperen batzuk.

Baina komunikazioa, transmizioa, ahozkoa zen eta euskarazkoa (eta etxean egiten zen, 6-7 urtera arte, datu inportantea hau).

Kontestu horretan ikasi barneratu eta osatu zuten euskara. Bertatik bertara zuzenean etxekoengandik, auzokoengandik.

Nola egiten zen transmisioa

Nola egiten zen transmisioa? Transmisioa zuzenean egiten zen.

Zazpi urtera arte eskolara joan ez zirenek, euren euskararen oinarri osoa etxean eta auzounean jaso zituen. Ez haurreskolan andereñoarekin, ez eskolan andereño desberdinekin, ondoko umeekin (bakoitza bere etxekoa), ez jantokiko zaintzaileekin edo plazan guraso desberdinekin, beste ume batzuekin.

Espazioak beste batzuk ziren. Haien euskara etxean jasotakoa da. Amandrearekin, aittajunarekin, amaren altzoan, aitarekin lanean, osaba edo izeko etxean geratu zenarekin, anae-arrebekin (asko izaten ziren).

Eta aldekoekin, auzokoekin. Beste iturririk ez zuten, beste hizkuntza eraginik ez zuten. Eta hori da mantendu dutenaren oinarria.

Horregatik detaile fonetiko asko, hitzen aldaerak (hordaittu, eskiñi..) bere horretan gordetzen dituzte 70-80-90 urte geroago ere. Kasu gehienetan aldagaitz, zentimetrorik ere mugitu gabe ezaugarri fonetiko, morfologiko txikienetan ere.

Moldea orduan egituratu izan balitz bezala, eta gogortu.

Honi zegokionez, OEZa aztertzen hasi nintzenean pentsatu nuen; ETB, Euskadi Irratia .. ikusten eta entzuten dituzte, eragin ote die? Ez, ez die eragin.

Ondo ulertzen dute telebistakoa, irratikoa, baina euren zegoenetan gorde dute.

Aldagaiztasun horri esker, oraindik ondo samar azertu dezakegu OEZa.

Ez ziren, ia, urte horietan, auzotik irtetzen. Ez ziren udalekuetara joaten, ez zituzten oporrak herritik kanpora pasatzen (uda lanerako zen).

Eguraldi onarekin ez ziren eskolara joaten.

Ez zeukaten pantailarik (mobil, telebista, ordenagailurik).

Ez Euskal Zirkurik, ez Batua zekien bertsolaririk.

Ez zuten euskal ipuinik irakurtzen.

Ez Dragoi Bolarik, ez Mr Bean-ik, ez puñetarik.

Ez zuten euskararik ikasten eskolan; eskolako lagunak auzokoak ziren.

Horren emaitza da OEZ.

Horrez gain, eta horrekin lotuta hau ere inportantea da; aurreko 500 urtetan, 1000 urtetan (nahi den zenbakia jarri) euskara modu horretan transmititu da Oñatin bertatik bertara, etxean, auzoan...

Etena iritsi zen arte (1960).

Jarraipena edo etena

Eztabaidatu dut batzuekin Oñatiko Euskara Zaharraren existentziaz, OEZa asmakizun bat den, edo zentzuzkoa den bereizketa.

Batzuen ustez, Oñatiko Euskara Zaharra, Oñatiko Euskara Berria, horiek asmakizunak dira. Dena da Oñatiko Euskara, hari baten parte dira biak, continuum bateko bi estadio besterik ez.

Nik ez dut horrela ikusten.

Euskara baten ondorengoa da bestea. Baina batetik bestera transmisio-etena gertatu da; eta bidean gelditu dira Zaharraren ezaugarri inportante asko.

Gizarte motarekin gertatu den bezala.

Aldaketak beti daude, edozein gizartetan. Beti ari da aldatzen gizartea. Baina ez beti abiadura berdinez.

1960a baino lehenagokoak baserri munduan jaio ziren; ez zuten komunikabiderik (telebista, irrati edo internetik). Ez zuten ibilgailu motorizaturik (tratore, motor, kotxe, autobus, hegazkin aukerarik). Ez zuten bidaiaitzen. Ez ziren Oñatitik irtetzen. Jakien ehuneko handiena eurek ekoizten zuten. Ogia etxean egiten zuten. Ez zuten labadorerik. Eskolan urte gutxi egiten zuten...

Eta gero hori dena aldatu zen.

Gizarte haren ondorengoa da oraingoa? Bai, nahi bada. Bataren ondoren iritsi da bestea.

Baina gizarte hark, haien bizi moduak, ez du zerikusirik oraingoarekin. Eta Oñatiko Euskararekin beste horrenbeste gertatu da.

Aurretik ere baziren hizkuntza-alaketak. Baina hain bortitzik ez.

Jay Gould eta Niles Eldredge-k esan zutena ezaguna da Biologiaren Teorian. Hauek esan zuten aldaketak ez direla beti jarraituak eta gradualak. Aldi jakinetan abiadura zeharo azkartzen dela, eta derrepentekoak direla aldaketak, miloika urte pasa beharrik gabe gertatzen direla.

Distantziak gordeta, horrelako zerbait esan daiteke Oñatiko Euskara Zaharretik Berrirako saltoaz.

Ez-ohiko aldaketa zatarra denbora tarte motzean.

Oñatitik kanpora ere herri askotan gertatu da hau.

Oñatiko Euskara Berria (OEB) zaharretik dator, edo zaharraren ondoren. Baina bien artean, aurrez belaunaldien artean gertatu izan dena baino aldaketa bortitzagoa eman da.

Zirkunstantzia bereziak agertu direlako.

Esolan ikasi genuen kobazuloetatik nekazaritzara/abeltzaintzara eman zen jauzia.

Ikaragarria.

1960an nekazaritza/abeltzaintzatik gizarte industrialera pasa zen EHa.

Eta aldaketa horretaz ezin da esan “gizarteak beti ari dira aldaten”.

Eta OEZetik OEBaz ezin da esan, azalpen moduan, “hizkuntzak beti ari dira aldatzen”.

Gould eta Eldredge-ri jarraituta, zuzenagoa da esatea “baina aldaketen konstantzia ez da beti berdina, aldaketak ez dira beti gradualak”.

Aldaketa berezia izan da Oñatiko Euskararen gertatu dena. Azkar gertatu da, eta handia izan da. Ez da “ohikoa”, ez da “aldaketa bat gehiago aldaketa katae luzeagoa baten baitan”.

Aldaketa berezia izan dela abiapuntutzat hartuta nabil.

1. PARTEA

**ARAOZKO
EUSKARA,
HURBILPEN
BAT**

Araozko euskara

Oñatiko Euskara Zaharraren parte da Araozkoa. Hala ere, ezaugarri bereizleak ditu eta komeni da deskribatzea zeintzuk diren.

Ezer baino lehen bi ohar.

Bat, hemen ez dugu Araozko Euskara (AE) zabaletara aztertuko. Lan txikionen helburua AE-ren ezaugarri bereizleak aurkeztzea delako OEZarekin konparatuta.

Hauetatik nabarmenenak atzematen saiatu naiz.

Bigarren oharra ahalegin honen mugen gainekoa da.

AE behar bezala aztertzeko berandu da. Horregatik, auzi batzuk erabaki ezinda geratu zaizkit.

Hala ere, uste dut ezaugarri nagusiak atzeman ditudala. Eta hala, esateko moduan gaude Araozko Euskararen (AE) ezaugarri gehienak OEZren berberak direla (Euskararen Herri Hizkeren Atlasak -2005- besterik pentsarazi diezagukeen arren).

Lexikoan, morfologian, sintaxian eta azentuan alde gutxi dago.

Fonetikazkoak dira bien arteko diferentzia esanguratsu ia denak.

AE-k Leiztarren Euskararen (LE) eragina jaso du, bere kasa aldatutakorik ez dut topatu esatekorik.

Baina azentuaren kontua inportantea da. OEZren eta LE-ren arteko diferentzia nabarmenena azentua da. Eta AE-k Oñatikoaren berdina dauka azentua. Ez LE-rena.

Leintzarren Euskara, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Gatzaga eta Aramaixon hitz egiten denari esaten zaio.

Araozkoak Leiztarren Euskararen eragina jaso du eta Oñatikoak ez; hortik aldea.

Azaleko diferentziak izan arren, fonetikoak direnez, eta behin eta berriro agertzen direnez, irudipena sortu diezaguke dagoena baino alde gehiago dagoela bi hizketen artean.

Araozkoa diferente iristen da belarrira.

Bi aldaketa fonetiko hauek dira, uste dudanez, LE-tik sartu direnak; $i + a > ie$. Eta $u + a > ue$. OEZe an lehenengoetako batzuk agertzen dira, baina gutxi.

AE, *ondorien*.

OEZ, *ondorian*.

AE, *béien* (*behean*).

OEZ, *béian* (*behean*).

AE, *basúen*.

OEZ, *basúan*.

AE, *órduen*.

OEZ, *órduan*.

Araotzen bertan ere, ez dira LE-n adina ageri. Arauak indar gutxiago du, esparru murriztagoa hartzen du.

AE, *kótxia*.

LE-n, *kotxíe*.

AEn, *basúa*.

Ganaua, ez *ganaue* (Aramaixon, Ormaetxea).

Bokalen eraldatze esparruak zabalagoak dira LE-n.

Gúre (“*gura*” esateko, Aramaixon, Ormaetxea). *Ardúre* (Ormaetxea).

Baina Araotzen bokal aldaketa hauek batzuetan agertzen dira, eta beste batzuetan ez!

Adibidez, “*zubípeian*” (ez “*zubipeien*”) (Araotz 20).

Kontuan izan behar da LE-n eta Oñatiko Euskara Zaharraren artean dagoen diferentzia nagusia azentuarena dela. Eta pentsatu daiteke azentuak ezaugarri fonetikoak baldintzatzen dituela.

OEZa, *kótxia*.

LE-n, *kotxíe*.

AEren azentua OEZren berdina da.

Araozko Euskara definitzeko arazo nagusia hau izan dut; forma asko bi modutara agertu zaizkidala.

Eta ezin jakin, berandu delako, zergatik den; Araozkoa Oñatikoarekin nahastu delako (Araoztarrak herrira jaitsita). Edo Araozkoaren baitan diferentzia horiek egon zeudelako.

Ez bakarrik hiztunen artean, baita hiztun berdinen hizketaren baitan ere.

Eta ezin dugu korapiloa eskatu, eta ezinegon sortzen du, baina segurtasunak asmatzea baino nahiago dut horrela azaltzea.

Oraindik hala edo hola AE hitz egiten duten hiztunek ez dakigu zenbateraino nahastu duten euskara (grabaketa gehienak 2020-2025 urteetan egin ditut).

Uste okerrak ere badaude Araozko ezaugarrien gainean.

Sarritan entzun dut “*hori Araotzen esaten da*”.

Baina adi, ustez Araozkoak diren ezaugarrietatik asko Araozdik kanpora ere erabiltzen dira eta (Oñatin).

OEZaren erabiltzen ziren forma asko ez ditugu ezagutzen, entzuten, murriztuta daudelako, baina grabaketak luzetara entzunda, apurka, erabiltzen zirenik ez genekien ezaugarriak agertzen dira.

Hiztun jakinei elkarriketa luzeak egin eta gero topatu ditugu (bazterretan). OEZ-ko formak izan dira, murriztuta eta erdi galduta isiltzen joan direnak.

Umerezen eskuizkribuak (Oñati, 1805) ere hor ditugu eta lagungarri zaizkigu auzi batzuk erabakitzeko.

Balio handikoak dira. Zortzirehun orrialde inguru idatzi zituen Manuel Umerezek. Behin eta berriz agertuko dira *Apunte* hauetan. Aurrerago emango ditugu azalpen zabalagoak lan honen gainean.

“*Jagi*” aditza zerabilen, konparazio baterako, Umerezek. Eta ez “*jaiki*”.

Araotzen “jai, jaitten” jaso dugu. OEZe an agertu ez zaiguna. Umerezek pentsarazten digu OEZe an erabili (eta galdu den) forma bat dela. Eta horrela, beste hainbat zalantzatan ere konsulta ezinbestekoa da Umerezena.

AEren ezaugarriak hainbat ataletan banatuta azalduko ditut.

1) Araozko Euskararen ezaugarriak OEZekoak ere badirenak

Sail hau luzea da, eta erlatiboa, usteetan oinarritzen delako.

Hizkuntza ezaugarri batzuk Araozkoak bakarrik (esklusiboak) direla uste dute herritar batzuek. Baina ez dira Araozkoak bakarrik.

Atal hau osatzeko modu sinplea aukeratu dut. Han eta hemen entzun izan diot jendeari: “*Ezaugarri hori Araozkoa da*”. Edo: “*Hitz hori Araotzen esaten da*”.

Saiatuko naiz erakusten OEZe an ere esaten direla.

1.1. Hotz egin (hots egin)

Araotzen hobeto gorde da, baina bietan agertzen da. Umerezek ere bazerabilen:

Tabernara eta erromerira hots egiten deuste (Umerez). *Hots egin eutsan bere aurrera* (Umerez).

Izagirrek jaso zuena arraroa iruditu zait.

Hotz egitten dittue (Izagirre). *Haiek haiek hots egiten dituzte?* (los llaman?).

AEn:

Eta hotz egin, eta geldi ardixa, beau dok ba! (Araotz 2). *Hotz egin* (Araotz 21). *Ez eguen (besteei) hotz egitten ekitteko astirik* (Araotz 2). *Harek hotz egin dost* (Araotz 26)

OEZean gutxi entzuten da, baina batzuk lortu ditugu:

Hotz egin (Uribarri 9). *Eurak biharra eguenian hotz egitten nostain* (Murgixa 5). *Hotz egin dauena...* (Arantzazu 6). *Hotz egitten nostaiñian...* (Arantzazu 7). *Hotz egin doste telefonua jota bixairi, eta...* (Olabarrieta 1). *Zantzako Juanjoxeri eta Arotzeneko Juan Mariri hotz egin, eta...* (Olabarrieta 1). *Hi, bixar telefonotik hotz egin idak neri!* (Olabarrieta 24). *Mediku bateri hotz egin otzain, eta...* (Olabarrieta 1). *Hotz egin nostain fabrikarako baiña...* (Oñati). *Oin sua egin bihar badok, Donostiara hótz egin bihar dok* (Murgixa 2). *(Aita eta biak siestan ira ebaten ibili eta gero, basoan, aita lo, bera esna, bitxo bat ikusi eta) aittari hotz egin nitxan eta...* (Murgixa 2). *Batek izena Mo xakuan eta bestiak Txato, eta euran izenakin hotz egin eta... (idi pareari)* (Murgixa 2).

Zertarako hainbeste adibide, ez dira nahikoa pare bat? Ez, jasotako denak jarri ditut (ez dira asko). Horrela argituta geratzen da: “*hots egin*” Araotzen bakarrik ez, OEZean ere erabili dela.

Muestra zabalak aurkezten saiatuko naiz, auziak erabakitzekeo beharrezkoa delakoan.

1.2. Genitibo singularra

Noren/zeren? Galderei erantzuten dien atzizkiari esaten zaio genitiboa. OEZean “-en” da genitibo singularra.

Tortilla + a + en > tortilliaen > tortillien (esanahia “tortillaren”).

mutil + en > mutillen (esanahia “mutillaren”).

Txakur + en > txakurren (esanahia “zakurraren”).

Marijoxepa + en > Marijoxepaen > Marijoxepen (esanahia “Marijoxepen”).

Batuan “-aren” erabiltzen da. Ez dut aztertu, ez dakit genitiboaren historia zein izan den mendebaldean. Aztertzea komeni. Umerezek “-aren” zerabilen. “Aleginaren”...

Berdina galdetu daiteke sozietateaz (norekin/zeinekin?). Forma zaharra “-arekin” da, edo “-kin”?

AEn eta OEZean bietan agertzen da “-en” genitiboa.

OEBan beti “-an” erabiltzen da:

Tortillian, mutiyan, txakurran, Marijoxepen...

AEn:

Marijoxepen gizona (Araotz 1). Gure aitten erare ingurukuak (Araotz 34). Moltzo bat egin eta makillien puntan lotu (Araotz 7). Generalen konturik (Elortza Generalaren konturik) (Araotz 20). Osáben semien andria zan hori (Araotz 16). Nere ámen akórduen (Araotz 38). Eta gure aitten tia zan (Araotz 16). Bata geuken tortilliena (Araotz 16). Ha zan Julianen (Julianaren) gizona (Araotz 16). Andria horkotxia, Ursula, gure ahizpa zaharrenen-eta laguna (Araotz 16). Umiai ziltxua lotu, bi lekutatik lotu, karenen aldetik eta umetxuen aldetik (Araotz 16). Umien zilla (Araotz 16). Nik amandrien antza (Araotz 16). Harek be hartu zittun, amenak eta (ohiturak amarenak-eta) (Araotz 16). Ha izaten da umetokixa, zorrua, umiena (umearena) (Araotz 16). Norberen aldera moztu biher da (Araotz 16). Gere amandrien ahizpia (Araotz 16). Eta gero aguro amen ondora (Araotz 4). Txapelen gaiñien (Araotz 40). Amandria aitten aldekoa, e! (Araotz 34). Txapelen Enrrike, Marien-eta aitta (Araotz 40). Aitten aitta (Araotz 40). Illarrien erramiakin (Araotz 39). Erateko uren billa (Araotz 31). Nere gizonen amak (Araotz 31). Harena akordauten nauk, eta aittajunena ez (Araotz 7). Gu faten gitzan leku hori zela zan nere amen anaiena... (Araotz 31). Han egozen gaztaiñak Azpiko terrenuenak (Araotz 30). Nahiz gaztaiñiena nahiz paguena (Araotz 16). Herrixena, Oñatiko herrixena (Araotz 16). Betik egitten zien suertiak, irienak (Araotz 30). Orduko eukitten geben bentziuta, lana, iriena (Araotz 30). Herrixen terrenuak (Araotz 7). Ayuntamentuen terrenuak (Araotz 7). Haitzena batzen gixuan (haitzaren orbela) (Araotz 7). Posalen moukua (Araotz 16). Ha zuan alerzien sabixa, baiña izan lekek insignisena, ero sagarrena ero... (Araotz 7).

OEZean:

Orduan esnia amen bularretik eraten zan (Olabarrieta 1). Ha herrixena zan (Uribarri 7). Egurren gaiñian (Uribarri 10). Garíxen azala (gari urunaren) (Larraña 14). Orbelen gaiñian lurra (txondorreen) (Uribarri 10). Ikatzen aldian komoduak, garbixak... (Uribarri 10). Nere amen sasóikuak (Kalea 2). Beak eusten txak zóruei kontra (Olabarrieta 21). Ipúrtxuntxurra, erdiko hazurren akaberia (Olabarrieta 21). Iríxen buruan (Larraña 8). Andrien jaixótetxia (Urrexola 1). Horrein ámen áma (Olabarrieta 1). Horren gizonen

anée ordékua zuan (Urrexola 1). *Markosen amen anaia zuan hori* (Urrexola 1). *Amen bi anae egozen Madrillen ezkondata* (Lezesarri 1).

Esango nuke deklinabideko beste forma batzuetan ere ageri dela, baina hori ez dut aztertu.

Konejuendako! (Araotz 22). *Artuentzako* (Araotz 29). *Bat artuendako eta besta bat garixendako...* (Araotz 37). *Aittajunendako* (Araotz 16). *Baikótzendako* (Araotz 16).

Hauek guztiak singularrak dira.

1.3 Nor

OEZean gutxi entzuten da “*nor*”, AE-n ere askorik ez.

Bietan erabili da, bietan galtzen joan da.

OEBan guztiz galdu den arte.

“*Zein*” eta “*nor*” biak esaten ziren lehen, ez du batak bestea ordeztu. Biak erabili dira, eta “*nor*” galduz joan da.

Umerezek:

Nor dan (Umerez). *Nuentzat dirian* (Umerez). *Nortzubek* (Umerez). *Zein* (Umerez). *Zeintzuk dirian* (Umerez).

Leonardo Zabaleta:

Nor, nortzuk, nok (Erizkizundi Irukoitza).

AEn:

Etxeko lanak nok egiña (Araotz 2). *Preguntau dot nor bizi dan, eta...* (Araotz 4).

OEZean:

Nok ifñi nistan (galdetu zidan) (Olabarrieta 1). *Behin, ez dakitt nor zan...* (Olabarrieta 1). *Aurreko baten, ez dakitt nókin...* (Olabarrieta 15). “*Hau ez dago ona*”, eta “*hori ez dou gura*” eta ez dakitt zer eta badakitt nor... (Larraña 4). *Horreik, kanpuan dabitzenian, piztixok, nok dakigu zer egitten*

dauen! (Olabarrieta 5). *(Sugeez ari da) ez dakitt nok* (Larraña 9). *Claro, nok itxiko eben ba?* (Murgixa 5). *Neri nok esan nontan?* (Kalea 2). *Ez dakitt nor...* (Uribarri 12). *Nok kontestauko dou?* (Arantzazu 7). *Ha nok sartu (potoloka jolasean)* (Olabarrieta 25). *Oin fango naiz, ba, ruluak ifinitta hortik aurrera, nok ze esango dan be!* (Uribarri 9) *Bozina-joten egozen, ez dakitt nórtzuk ziran* (Olabarrieta 1). *Nik nórtzuk diran ez dakitt baiña hor fan dira* (Olabarrieta 1). *Nik ez dakitt nórtzuk ero zértzuk ziran* (Olabarrieta 1).

1.4. k + z > tz

“k”-z amaitutako hitzen ondoren “zian/zien” edo “zai” aditzetakoren bat datorrenean “z” “tz” bihurtzen da, eta “k”-a desagertu egiten da.

k + z > tz

Araotzen jasoak:

Bíxa'tzien (bixak zien) (Araotz 15). *Eskillara zabal-zabal batzu'tzien* (Araotz 15). *Haundíxa'tzien* (Araotz 15). *Ursábalgua'tzien, bi anae* (Araotz 2). *Errezau ez zala egin bihar, gorrixa'tziela-eta* (Araotz 17). *Ezáuna'tzienak* (Araotz 1). *Maistrua eta abaria bixak lagúna'tzien* (Araotz 18). *Dáno'tzai euskaldunak?* (Araotz 18). *Haizé-eguna'tzienien-eta apur bat...* (Araotz 24). *Haik umia'tzianien* (Araotz 16).

OEZean jasoak:

Honeik bixok sóua'tzien (Olabarrieta 1). *Hareik soltéra'tzien* (Uribarri 1). *Neskazarrak bastante edadetua'tzian* (Olabarrieta 17). *Orduko erropak gógor gógorra'tzien* (Uribarri 7). *Airósua'tzian dántzan* (Larraña 9). *Zéintzu'tzian* (Olabarrieta 1). *Pentzaitten eben... bería'tziela* (Murgixa 5). *Orduan lurrezko lapíkua'tzien* (Kalea 2). *Senídia'tzai baiña* (Arantzazu 6). *Zué'tzai zuek!* (Olabarrieta 1). *Mutíku-tzai* (Lezesarri 1). *Hari nik esango xat gizurtxo bat bai, gaixori'tzauzela ero, eta...* (Lezesarri 2).

Horren antzeko hau ere jaso dut AEn. Ez dakit OEZean agertzen den (begiratu beharko litzateke).

Honeik bérdia' txazek (Araotz 39). *Arreba ba' txakuain bakarrik* (Araotz 39). *Ásko' txakuain hola* (Araotz 7). *Gure áma' txakuan* (Araotz 7). *Ura gu' txaku, hor Saatxoti' txaku ura* (Araotz 7). *Bixa' txazek han* (Araotz 7). *Ikustekua' txakok* (Araotz 7). *Urtía' txakonau* (Araotz 38). *Hamengo mouko mendixa' txazek* (Araotz 16). *Há' txakok moñua ederra!* (Araotz 16). *Hemen kóntua' txazek asko* (Araotz 2).

Izagirrek ere jaso zuen:

Hare' txaukok (Izagirre). *Horre' txaukok gangárra* (Izagirre).

1.5. -ti (-tik-en baliokidea), nondik?

“-ti/-tik” AE eta OEZean biak erabili dira.

Umerezek beti “-tik”. Baliteke biak ezagutzea baina beti forma bat eta berdina erabiltzea erabaki izana.

Araotzen jasoak:

Haméndi apárte (Araotz 2). *Pasauten zien etxera Landetako atéti, eta...* (Araotz 4). *Baiña áurreti han bertan egingo zan labesua* (Araotz 16). *Hándi etára* (Araotz 4). *Heméndi apárte* (Araotz 2). *Haméndi astákumia eruen euen* (Araotz 16). *Áurreti eruenda be eukitten geben batzuetan* (Araotz 16). *Eta aittak esan nostan “hartu sókati apur bat” (txahala)* (Araotz 2). *Baiña aurreti han bertan egingo zan labesua* (Araotz 16). *Elízati urten bai, eta...* (Araotz 4). *Aldápati* (Araotz 16). *Hándi urténdakuen* (Araotz 20). *Amandre bat, pipati erreten ebena* (Araotz 20). *Erdítti ebai* (Araotz 16). *Eraateko-eta beti itturriti ekarten geben* (Araotz 16). *Ha gertatuta egoten zan itxeti urteteko* (Araotz 20). *Zilleti egoten da lotuta* (Araotz 16). *Hemendi erango xuat* (Araotz 16). *Handi hartutako txakurtxua gererako* (Araotz 16). *Asteleneti hasi eta domekara arte* (Araotz 44). *Hemendi errekaraiño* (Araotz 16). *Horti horrutzatxuaa* (Araotz 16).

OEZean:

Seiretati aurrera (Larraña 2). *Gaztaiñak, Ubao aldeti tta* (Berezano 2). *Elórrixoti artian fanaldixa* (Larraña 4). *Ama kánpoti etorri zan, Zulátzati* (Uribarri 1). *Antzúolati tta, Bergáratu tta...* (Larraña 4). *Gu fan bihar giñan*

Bergarara dántza íttiati (hau “-gatik” da) (Murgixa 4). Bátzuk aúrreti tta béstiak ondórian (Uribarri 7).

1.6. Enda (eta)

“Enda” AEn agertzen da, OEZean ere bai; baita LEn ere. Harantzago ez dut begiratu:

Ha ni baiño urtebete zarragua zan, enda ha eskolara faten zan... (Araotz 15). Batian Anboton egoten zala eta bestien Aloñan, enda hor ibiltten zala (Araotz 21). Eta hemengo mutillai ez osten graziarik egin itxuria. Enda domeka arratzalde gabien hona itxera etorritta bueltan doiezela... (Araotz 12). Orduen alkate xaguan. Enda hau zuan... (Araotz 7). Eta horreik be gauza zuzenik ez, enda euken trastiok hartu, kendu, eta... (Araotz 42). Han sua egitten zan, enda gu giñan mai nausixa esaten xakona, enda han bazkaixa (Araotz 21). Lau-ero giñan. Enda hara ura karriu, eta... (Araotz 21).

OEZean jasoak:

Apartauta egozen euran artian, enda... (Larraña 8). Murgiko errotakuak akordaitten naiz urte baten nola bota euen piñua, enda neu be hantxe ibilli nitzan... (Arantzazu 8). Enda zeoi apurtu geben, askioi, enda... (Murgixa 2). Abariak hartzen xuan, enda... (Olabarrieta 24). Enda artua ereittek... (Uribarri 7).

1.7. Itxe (etxe)

Ez dauka ezer berezirik forma honek. Beste batzuk ere badira “e->i-” aldaketadunak. *ezaun/izaun; eruan/iruan; ekusi/ikusi; efiñi/ifiñi...* Araozko ezaugarria dela entzun izan dut, baina zabalagoa da erabilera-eremua.

Araotzen jasoak:

Itxe hortan (Araotz 16). Itxietan (Araotz 1). Bi itxe (Araotz 4). Ítxe barrixa (Araotz 2).

Izagirrek:

Ítxe bat (Izagirre). Itxía (Izagirre).

OEZean:

Itxía (Olabarrieta 1). *Itxéra fan bihar izaten zan* (berezano 4). *Ítxe danetan txarrixak (lehen)* (Murgixa 2). *Itxera ezkondu zan bea* (Olabarrieta 34). *Itxía* (Larraña 17).

1.8. Aditzen forma menpekoetan

Menpeko perpausetako aditz trinkoen edo, laguntzaileen menpeko atzizkia gehitzen zaionean, lehen modu batera gehitzen zen; gero aldatu egin zen. Forma hori galdutzat eman daiteke, edo azkenetan dela esan daiteke bestela.

Bietan jaso dugu. Araotzen hobeto gorde da, baina OEZean era agertzen da.

Umerezek:

Nik gura dodan moduban (Umerez). *Itzi deutsudan legez* (Umerez). *Daukadala* (Umerez). *Itzi ditudan* (Umerez).

Izagirrek:

Alatu dost ein eztualako, me ha reñido porque no lo he hecho (Izagirre).

AEn:

Ondo emuten euen, baiña neuk éztakianik ez euen emuten; neuk dakí-ana be... (Araotz 2). *Eta neuk hor ikusten do-ála, ezin lekiela eliminau* (Araotz 2). *Daukódan moruan* (Araotz 2). *Gehixen euki duánian...* (Araotz 2). *Neuk dakíala (dakí-a-la) ez behintzet* (Araotz 22). *Esan dodana* (Araotz 2). *Aixeixa harrapo ezkerro, len esan duana* (Araotz 12). *Gero euki ttudanai* (Araotz 2). *Len esan dú-ana* (Araotz 12). *Nik korriu ttudan kilometruak* (Araotz 2). *Dakíala (dakí-a-la) behintzet ez* (Araotz 12). *Mezia hutz egin ddoala* (Araotz 2). *Neuk egin ttudan...* (Araotz 12).

OEZean:

Len esan dotzúdana... (Arantzazu 8). *Gero holaxe, len esán-duana...* (Olabarrieta 19). *Gaiñera esaten eben, oin esan du-án lagunorrek...* (Olabarrieta 19). *Len esan doana, lenengo inddarra baiña gero...* (Murgixa 2). *Len esan do-*

á-na, zela eruango ttuzu ba lau urteko umiak... (Arantzazu 6). *Estaleria, len esan do-a-na...* (Arantzazu 8). *Len esan do-an mouan...* (Uribarri 10). *Len esán-doana, ganaua...* (Murgixa 2).

2) Araozko Euskararen OEZearen baino gehiago agertzen direnak

2.1. “Euki” aditza, trinkoa (hirugarren pertsona plurala)

Batez ere, hirugarreneko pluralean agertu zaigu, baina beste pertsonetan ere aldaketak izan direla ematen du.

OEBa:

Dakot, dakozu, dako, daku, dakozue, dakoi.

OEZearen ere gehien entzuten direnak horiek dira. Baina forma zaharren arrastoak ageri dira, eta kontuan hartu behar dira. Horiek direlako OEZari dagozkionak, eta baita jatorrizkoak ere.

Baina iraganean?

Neukan, zeukan, eukan, geukan, zeukain, eukain (OEZ eta OEB).

Neukon, eukon... halakorik ez.

Umerezek:

Daukat/daukazu/dauko/daukagu/daukai (“*daukazue*”-rik ez zuen idatzi).

Arrasateko Euskaraz:

dauket, daukek/n, dauko, daukou, dauketzu, dauketzue, daukie (Arrasateko aditz taulak, Badihardugu Elkarteak, 1999).

Izagirrek:

Hasarria daukai (Izagirre). *Daukat* (Izagirre). *Minbera daukat* (Izagirre, Arantzazu). *Sur-itxixa daukat* (Izagirre). *Hagiñak bardindduta daukat* (Izagirre, Arantzazu). *Daukalako* (Izagirre, Arantzazu). *Hasarria daukai* (Izagirre, Arantzazu). *Biguntasunak daukaiñai* (Izagirre, Arantzazu). *Daukazuena* (Izagirre, Arantzazu). *Billotzak aparrak daukai* (Izagirre, Arantzazu). *Sétixua dauka* (Izagirre, Olabarrieta).

Baita hauek ere:

Dauko, eztauko (Izagirre, Arantzazu).

Oñatiko Euskeria liburuan:

Dakot, dako(t)zu, dako, dakogu, dako(t)zue, dakoi.

Ohar hau dago egina Oñatiko Euskeria-n:

“Bazoukai” eta “baleukai” formak be ebalten dira.

Baina oharra zabalagoa izan behar zen. Honela; “*daukat*” eta “*daukai*” formak direla OEZeant jatorrizkoak, oraindik ere entzuten direnak. Eta entzuten ez diren arren, Izagirrek jaso zituenak ere kontuan hartu behar dira; “*daukazue*”, “*dauka*”...

AEn:

Urtebete inguru dakáiñak (Araotz 16). *Dakái* (Araotz 16). *Horreik apeliua Zubia dakéi* (Araotz 16). *Horreik gaur barriketarako gogua dakái* (Araotz 16). *Haik bi bakarrik dakái* (Araotz 19). *Atzekaldiak zabal zabalak daukáiñak* (Araotz 4). *Daukáiñak* (Araotz 2). *Ikúsitta dakái* (Araotz 27). *Horreik apeliua Madina dakuai (dakuai)* (Araotz 41). *Úrsulan hurrango dakáittta* (Araotz 27). *Éztakaiñak* (Araot 16). *Hor daukén biria, ba Aixkorbeera fateko (hik dauken)* (Araotz 16).

Baleukai (Araotz 8).

Azkuek:

Daukai (Oñati) (Fonetika vasca, 1919).

Baina:

Dákoilla (que tangan) (Araotz 10). Gehiago ere agertu zaizkigu.

OEZean:

Kalian bi itxe daukái (Olabarrieta 1). *Gure etxetik gora Urubarrin danak daukai ardixak, gaur be igual ondio!* (Uribarri 11). *Fundamenturik ez daukaiñak, bápezak dira ezetarako ganorarik ez daukaiñak* (Olabarrieta 1).

Oñatiko Euskara idatzian... “*daukai*” idatzi behar da (besteek zalantza eragiten didate, Izagirrek jaso ote zituen egiazki?). Hala egiteko argumentuak badira. Kontrakoak ere egon daitezke; formulatu egin beharko dira.

Aldekoak hauek dira. Oñatiko euskara idatzian, forma zaharrak, jatorrizkoak (jaso direnak behintzat) lehenesten dira. Eta hau horietako bat da.

Zein erabili behar da “*zu zinddoiazen*”, edo “*zu zoiazen*”? Lehena. Jaso delako, jatorrizkoa delako. Hitz egiteko? Hori beste eztabaida bat da. “*daukai*” edo “*dakoi*”? Lehena, idazteko. Arrazoi berdinentatik.

2.2. Nire

AEn eta OEZean ohikoak dira “*gere/gure*”, “*zure/zere*” ... Eta parekoa da “*nire/nere*” ere.

“*Gere*”, “*zure*” eta “*nire*” galtzekotan dira.

Araotzen “*nire*” eta “*nere*” biak entzuten dira. OEZean “*nire*”-ren agerpenak urriak dira.

Umerezek:

Nire/nere (Umerez, 1805).

Leonardo Zabaletak “*nere/nire*” (*Erizkizunde Irukoitza*).

AEn:

Nire aittajuna (Araotz 16). *Niri esan nostain* (Araotz 4). *Nire aldeko neskiak* (Araotz 4). *Nire akuerdian...* (Araotz 24). *Nire amak esaten eben...* (Araotz 2). *Niri* (Araotz 16). *Nire gizonen aitta zan Bernabe* (Araotz 12). *Nire*

ama be... (Araotz 1). *Nire ama* (Araotz 12). *Ha be léiztarra, aitta, niría berriz, Aramaixotik...* (Araot 27). *Nire diruok nik be zerbaittetan gastau bihar txuat* (Araotz 16). *Niri geldittu xaten* (Araot 16), *Níri geldittu xaten betiko barruen* (Araotz 16). *Nire ama* (Araotz 16).

OEZean:

Nirekin (Olabarrieta 1). *Niri nok esan nontan ba?* (Olabarrieta 1). *Harek esan ostaken niri behin...* (Urrexola 1). *Bajak egon zittuan Teruelen, nire lagunak xabitzan...* (Urrexola 1).

OEBan ez da ageri.

Bestetik, Izagirrek harritu gintuen Araotzen jaso zuenarekin.

Ene txapela (Izagirre). *Enetzat* (Izagirre). *Enekin etorri* (Araotz, zaharrek oraindik, Izagirreren oharra).

Izagirreren jasoketa hori hobeto aztertu beharko litzateke, balorazio bat egiteko. Zuzena balitz jasoketa, hirurak batera esan dira Oñatin, denbora berean, “*ene*”, “*nere*” eta “*nire*” (aurrerago aztertuko dut “*ene*”).

2.3. Soziatiaboa "-gaz"

OEZean ere ageri da, baina ez AEn bezainbat. Biak erabili dira elkarrekin Oñatin “*-kin*” eta “*-gaz*”. Biak esanahi berdinarekin eta irizpide jakinik gabe. “*Nire*” eta “*nere*” bezala, beste kasu gehiagotan bezala. (Aurrerago aztertuko dut gauza berarendako bi forma agertzearen kontua).

Umerezek:

Nigaz, zugaz, deseoagaz, gugaz, zugaz...

Plurala ere bai Umerezek. OEZean eta AEn agertzen ez dena; *ultziakaz* (Umerez). *Bere gaiztakeria mueta guztiakaz* (Umerez).

AEn:

Bueltaka eta bueltaka ebaliko neben, eta atzenerako aáztu, sei urtéaz! (Araotz 15). *Danok makillatxo banáaz* (Araotz 16). *Ámaaz* (Araotz 16).

Baiña arnasia zéaz (zegaz) harturik ez dakok (Araotz 4). Kordel bateaz lotu-lotu egindda, han goixan (Araotz 15). Ni ámaaz egoten nintzan (Araotz 15). Azpíxek etaraten ibilli zanien hemen Goittiko bezíñuaz, Joxe Mari Goittikuakin... (biak esaldi berean “-az” eta “-kin”) (Araotz 15). Miréneaz egon zai? (Araotz 1). Ni mutikua nintzala, hamasei urteaz, irixak hartu, eta... (Araotz 27). Marijoxepaz egon zai? (Araotz 12). Soñújolliaz, zéaz (zeragaz) (Araotz 36). Euríxaaz (Araotz 36). Zeiñeaz, Lasarteaz (Lasarte bertsolaria) (Araotz 20). Hareaz bárrez eta pozik ibiltten gitzan (Araotz 16). Marijoxepaaz batera (Araotz 20). Gúaz be intentau euen (gugaz) (Araotz 37). Hiru astóaz (Araotz 37). Háaz konfundiu (hagaz) (Araotz 16). Hamaika urteaz (Araotz 38). Haaz argixaixaaz (hagaz) (Araotz 16). Zumiaaz (Araotz 16). Hargíñaaz (Araotz 16). Sei urtéaz (Araotz 10). “Taka taka” aixkoriaaz (Arramak ebai) (Araotz 16). Íxipuaaz (Araotz 16). Ezténaaz (eztenarekin) (Araotz 16). Hirurogei eta erdíaz jubilau nintzan (Araotz 27). Eurak gúaz (gugaz) (Araotz 2).

OEZean:

Sokatxo bateaz lotuta (Olabarrieta 14). Zeréaz egotiarren etorri naiz (zurekin) (Olabarrieta 1). Furgoneta bateaz (Urrexola 2). Níaz (nigaz) eguen beste napar bat, eta... (Olabarrieta 1). Zuréaz (Olabarrieta 1). Horr éaz (Olabarrieta 1). Hori ger éaz batera fango da (Olabarrieta 1). Handik ordu bira fan zan itxera bere biórrorreaz (Olabarrieta 1). Bere biórrorreaz (Olabarrieta 29). Neur éaz batera (Olabarrieta 24). Horr éaz ez naiz akordaitten (Olabarrieta 40). Gure aittak esaten eben hamahiru urtéaz fan zala Arabara (Olabarrieta 40). Fan eta lenengo egunetik bi irí-pareaz boldan (Olabarrieta 40).

OEBan esango nuke, erdi ezkutuan geratzen dela baina biziraun duela, murriztuta bada ere. Askotan ez da erraza instrumentaletik bereiztea.

“Ogiz beteta” instrumentala da. Baina “eskuaz jo”, instrumentala da edo soziatiboa (“-gaz”)? Ez daukat garbi.

3) AEren ezaugarri bereizleak, OEZarekin konparatuta

3. 1. Aittajuna bat/amandria bat

Hauek berrikuntzak dira. Jatorrizkoak “*aittajaun*” eta “*amandre*” dira.

Aita + jaun > aittajaun, eta *ama + andre > amandre*.

OEZean hala mantentzen dira.

Aittajun + a > aittajuna.

Amandre + a > amandria.

AE-k berrinterpretatu egin ditu, “-a” artikulua hitzaren amaieraren parte eginaz.

AE-z:

Aittajuna + a > aittajunia.

Amandria + a > amandria.

AE-z:

amandria bat

Amandria bat egoten zan parteria (Araotz 20). *Beneditak* goguen dako horreik gauzok, *aittajunioi* zelakua eukein; goizien armozua be harendako lenengo, *aittájuniorrendako* (Araotz 20). *Lurgórrittara fan nauk eta han urtété'stak amandriatxo batek* (Araotz 27). *Eta amandriatxuak urten xuan handik (Lurgorritatik) eta...* (Araotz 27). *Amandria zarra* (Araotz 47). *Eta amandria, amandria zaharra bizi zuan, eta...* (Araotz 28). *Beste amandria bat be ibiltten zan* (Araotz 17). *Bi ero hiru amandria ezautu nittun nik hola ibiltten zienak* (Araotz 17). *Amandria batzuk ikessita egoten zien* (Araotz 16). *Beste amandria bat be ibiltten zan hortikoz hementikoz eta...* (Araotz 17).

aittajuna bat

Nik lenaako aittajuna eta amandriai ikaragarriko baloria emuten xat (Araotz 38). *Eta bazan aittajuna bat, melakotoi potekua jaatiaatik...* (Araotz 2). *Eta aittájuniorrek esan eben* (Araotz 2). *Eta aittajunioi hasarratu da, eta...* (Araotz 20). *Ikusi ebenien hoi adelantuo. Aittajunioi geratu zan...* (Araotz 2). *Aittajuna harek* (Araotz 2).

Oñatiko Euskeria-n hau nola jaso zen aurrerago aztertuko dut.

3.2. Bokalen eraldaketarako joera; ia>ie

“i” bokalak ondoren datorren “a” bokala aldarazten du, “e” izatera pasaz.

ia>ie.

OEZan agerpen gutxi batzuk ditu, baina orokorrean “ia” mantentzen da.

Araotzen presentzia du eraldaketa honek. Hala ere, beste euskara batzuetan baino murriztagoa. LEN euskaran baino esparrua murriztagoa da.

Hala, absolutibo singularrean; “*Eskólia*”, ez “*eskólie*” (Araotz 2). “*Esnía*”, ez “*esnie*” (Araotz 2). “*Iría*”, ez “*irie*” (Araotz 21). “*Sermóiak*”, ez “*sermóiek*” (Araotz 12). “*gaztiak*”, ez “*gaztiék*” (Araotz 12). “*Úmiak*”, ez “*úmiék*” (Araotz 1). “*Jéntia*”, ez “*jéntie*” (Araotz 1). “*Irixak*”, ez “*irixek*” (Araotz 1). “*Ipúrdixa*”, ez “*ipurdixe*” (Araotz 16).

Arrasaten; *Begixe, alkatie...* (Ormaetxe, Elorza, 1994), Araotzen, *begixa, alkatia...*

Aramaixon *Baitte, baiñe* (Ormaetxea, 2005). Araotzen, *baitta, baiña*.

Egia esateko, batzuk agertu zaizkigu, baina ez da sistematikoa EHHAk (Euskal Herriko Hizketen Atlas) baietz pentsaarazi diezagukeen arren.

Urtete’ste andriék (urteten doste andriak) (Araotz 15). *Nola dakon arkua etxiék* (Araotz 15). *Azpíxek etarten ibilli zanien hemen...* (Araotz 15).

EHHA-k ulertzera ematen du sistematikoa dela. Aurrerago aztertuko dut Oñatin eta Araotzen egin zuten jasoketa.

ia>ie ren agerpen esparruak:

noiz, non? kasuetan agertzen da gehien:

Amandria bizi izan euen ixa ehun urtien (Araotz 1). *Nárren gáinien* (Araotz 21). *Zelaixan érdi erdíxen* (Araotz 2). *Itxién* (etxean) (Araotz 1). *Béstaldien* (Araotz 27). *Kálién* (Araotz 27). *Kanbixua dánien* (Araotz 1). *Hámar urtien-ero* (Araotz 1). *Zéien* (Araotz 27). *Ásaldien* (Araotz 1). *Egun bixen danak* (Araotz 15). *Hango mendi-tontorrien egonda* (Araotz 16). *Orduen Villabonatik-ero izaten zan normálien* (Araotz 29). *Ganauen ondórien* (Araotz 29). *Baldien* (Araotz 7). *Handik basuak euken húrrien* (Araotz 30). *Burdíxen* (*burdian*) (Araotz 30). *Ipúrdixen* (*non, ipurdian*) (Araotz 22). *Até-aurrekaldien* (Araotz 21). *Basérrixen* (Araotz 30). *Béien* (*behean*) (Araotz 16). *Elíza ostien* (Araotz 30). *Zelaixan érdi erdíxen* (Araotz 2). *Ze denpora gútxixen* (Araotz 15). *Bizi guztien* (Araotz 30).

Beste pila bat agertu zaizkigu “*ia*” moduan, “*ie*” bihurtu gabe. Aurrez esan bezala, ez dakigu zergatik AE nahastu delako, edo horrela zelako.

Aditzetan:

Gaztiak diénien (Araotz 2). *Pitxarrak badakitzu ba zélakuak dién* (Araotz 21). *Zertzuk pasau dién* (Araotz 2). *Zuk ez dakitzu mendiko kamañak nolakuak dién* (Araotz 2). *Taléntosua ’tiela esaten euen gure gazte denporan...* (Araotz 1). *Ardixak jáitzi bi-dien denporan* (Araotz 16). *Aillauten diénien* (Araotz 2). *Ez dakitt zenbat urte dién* (Araotz 12).

Baina:

Faten dia (Araotz 2). *Itten dia* (Araotz 2).

Beste hau OEZean ere agertzen dena noizean behin:

Kalabazak emuten zien (Araotz 16). *Apurtxo bat hasi zienien* (Araotz 15). *Egóten-zien* (Araotz 16).

Umerezek: “*ziran*” eta “*zirian*” (aurrerago aztertuko dut).

Azkuek: Oñatin, *zian*; Arrasaten, *zien* (*Morfologia Vasca*, 642. orrialdea).

“Joan” aditzaren forma trinkoetan:

Xoién (Araotz 21). *Ikesten* *zoiez* (Araotz 2). *Errekatxo bat han eguen, zeien, zeera xoiena* (Araotz 30).

Beste batzuk, nahasi:

Espeziela da (Araotz 2). *Biétza* (Araotz 8). *Illárra ier bat* (Araotz 2). *Biéldu* (Araotz 12). *Bi biéje* (viaje) (Araotz 12). *Beríela* (Araotz 2).

“Bihar” beharrean “biher”. Hau ere agertzen da OEZean:

Bestiek emun biher erdixa! (Araotz 16). *Eta umiak zainttu biher, eta...* (Araotz 1). *Ezer bier bazan* (Araotz 15).

Tartean kontsonantea dela, normalean ez da eraldatzen. Baina kasu batzuetan bai.

Izáten (ez “izéten”) (Araotz 12). *Oñati*, *Araotz bixkarra*; *Arrasate bixkerra* (Ormaetxea, Elorza, 1994) *Oñati*, *Araotz hagiñak*; *Arrasate agiñek* (Ormaetxea, Elorza, 1994); *Araotz igarri*, *Aramaixo igerri* (Ormaetxea, 2005).

(*ua>ue*-rekin beste horrenbeste; *Araotz “buztana”*, *Arrasate “buztena”*).

“*Ikési*”, eta “*ikétza*” bai, horiek agertzen dira Araotzen:

Hola zela ikési! (Araotz 2). *Hari ikésitta ero* (Araotz 30). *Ikési egin biher izaten zan* (Araotz 29). *Ikésten* (Araotz 1). *Ikésten* (Araotz 15). *Ikétza* (Araotz 1).

Han-hemenka gehiago ere agertzen dira; *Afiziño ikeragarrrixa* (Araotz 2). *Iétzarten* (Araotz 2). *Ígez* (Araotz 15).

OEZean Araotzen baino gutxiago, baina agertzen dira:

Ígez (iaz) (Olabarrieta 1). *Beríela* (Olabarrieta 2).

3.3. Bokalen eraldaketarako joera; ua>ue

AEn agertzen da, OEZean salbuespen gutxi batzuk besterik ez daude. AEn *ia>ie* baino gutxiagotan agertzen da.

OEZean:

Arrautzia uéri dago han (ugari) (Olabarrieta 2). *Uézaba* (Olabarrieta 1).

AEn ez du LEn bezainbat indar, edo agerraldi:

Sue, autobuse (Ormaetxea, 2005)

Agerpen esparruak AEn:

Non? Noiz?

Lekúen (Araotz 21). *Inguruen* (Araotz 22). *Nik izaria ipíñittakuen, etorri* (Araotz 21). *Mendi altuen* (Araotz 2). *Lekúen* (Araotz 22). *Kanpuen* (Araotz 2). *Ezkondut gíñan urte gútxixen* (Araotz 1). *Biria hartzen dan lekúen* (Araotz 15). *Barrúen* (Araotz 15). *Auzúen lagunok danok hika egitten geben* (Araotz 16). *Basúen* (Araotz 29). *Sutónduen* (Araotz 7). *Aixkórbe Azpíkuen* (Araotz 30). *Narrua be ebalten zan órduen* (Araotz 16). *Urte askúen* (Araotz 21). *Hola izaten zan hori orduen* (Araotz 2). *Órduen* (Araotz 27). *Gu “el año cincuentayochuen” ezkondu gíñan, eta moméntuen kanbixau zan dana, porke...* (Araotz 1).

“Eduki” aditzaren forma trinkoan:

Eukén (Araotz 15). *Neukén* (Araotz 1). *Neukén* (Araotz 15). *Eta hori éukena ondo, e!* (Araotz 15). *Geukén* (Araotz 1). *Basua geukén han* (Araotz 29). *Errotia eukéin* (Araotz 30). *Hamar úrte néukela...* (Araotz 2). *Harek eukén* (Araotz 22).

Beste batzuk:

Hori dakot gogúen (Araotz 15). *Uésteira* (Araotz 8). *Aguéntau* (Araotz 16). *Éurek* (ez “eurak”) (Araotz 16). *Erúetera* (Araotz 16). *Eta hurrengo permisuekin etorri nintzanien* (Araotz 2). *Hegúekin lurra jotzen euen batzuk* (Araotz 15). *Beziño móruen* (Araotz 2). *Esnia erúen* (Araotz 29). *Erúen* (Araotz 30). *Uésteira fanda* (Araotz 1).

Baina:

Ama eguen habítaziñuan (Araotz 15). *Órduan* (Araotz 15).

Horrelako asko entzun ditut, *ia>ie* aldaketa baino urriago ageri da *ua>ue* aldaketa. Hau ere ez dakit nahastu den edo horrela zen. Edo biak.

3.4. Bokal-jateak

Hiztun batzuek, zaharrenetakoei, bokalak jateko/galtzeko joera dute. Agerpen esparrua:

3.4.1 Bokal-jateak hitzetan

Erún (Araotz, Izagirre). *Erún* (Araotz 16). *Arroza órdun ikusi be ez zan egitten* (Araotz 16). *Billotza bizirik erún* (Araotz 16). *Umia erún holako kumátxo baten soo eskiñara!* (Araotz 20). *Irixakin erúnda* (Araotz 2). *Lekún* (Araotz 16). *Hartu frakak eskún, eta...* (Araotz 2). *Oillaasko bat erún* (Araotz 16). *Órdun* (Araotz 16). *Erúten-gen (eruatzen geben)* (Araotz 16). *Hemetik ganaua erú-izu oiñez! (eruan egizu)* (Araotz 2).

Oharra:

Hiztun gutxiri jaso diegu hau, Gernetako Bittoinari batez ere. Horrek arazoa dakar. Ez dakigu fenomeno zabala zen edo ez. Bittoinak euskara zaharra eta gordetzailea hitz egiten duela kontuan hartuta jasotzea erabaki dut.

3.4.2 Bokal-jateak aditzetan

OEZeak *zittuan/zittuain* dena (orokorrean), AEn *zittun/zittuen* da (Batuko *zituen/zituzten*).

Eta: *gittuan, nittuan, nindduan, gindduan...* (OEZa) eta Araotzen honela: *gittun, nittun, ninddun, ginddun*.

OEZeak “*nindduain*”, AEn “*nindduen*” (ninduten); OEZeak “*gindduain*”, AEn “*gindduen*” (ginduten).

Hauek joera nagusiak dira, kontuan izan; han eta hemen kontra-adibideak agertzen dira (Oñatiko Euskara Zaharrak euskal hiztun asko izan ditu).

Egingo gittun (Araotz 12). *Euki egin zittun gero hiru ume* (Araotz 16). *Ogixa, ardaua eta okelia erun bi’nittun* (Araotz 15). *Labrau zittun* (Araotz 21). *Bozien ezautu egin ninddun* (Araotz 16). *Luak hartzen ninddun segiran* (Araotz 2). *Pasauten gittun* (Araotz 16). *Beak itten zittun* (Araotz 16). *Etara nittun* (Araotz 2). *Sei urte nittúnetik* (Araotz 2). *Egin gittun* (Araotz 2). *Haik bihorrak ero zeak ekarten zittuen (zituzten)* (Araotz 12).

Hauek gutxiago jaso ditugu:

Ningún (*nengoen*) (Araotz 2). *Neu esanda nengún* (Araotz 2). *Ni lo nengúla* (Araotz 2).

Ez da bata bestea baino zaharragoa:

Zittueen>*zittuen* (AE).

Zittueen>*zittuein*>*zittuain* (OEZean) (biak hipotesiak).

Umerezek:

Jaso zituban (*zituen*).

Itzi zituben (*zituzten*).

(Hau hobeto aztertu nahi dut, “*zuk zittun*” ere tartean delako).

Bide beretik hauek ere:

Lanien ondo ekixen behixak (ez “*ekixein*”) (Araotz 2). *Eta horreik baekixen* (*bazekiten*) *erderaz* (Araotz 2).

AEn:

Ekixeen>*ekixen*.

OEZa:

Ekixeen>*ekixein* (biak hipotesiak).

3.4.3 Bokal-jateak esaldietan

Hál’egon da bizi daniel (Araotz 20). *Masustak kúsi, eta...* (Araotz 16). *T’ha lurra iráaztia* (Araotz 16). *Gerník’ondoko* (Araotz 20). *Plazan dántz-itterra* (Araotz 20). *Txarrixa umia hartzeko zél’eu* (Araotz 7). *Fabrikatik be hotz egin nostain, jentia gobernauteko, t’ume ta guzti faateko* (Araotz 16). *Et’in geben, hormatxo bat igo eta...* (Araotz 41). *Gero hol’eraiñ, eta...* (Araotz 19). *Hól’uste dozu...* (Araotz 2). *Hol’iñ ogixari eta...* (Araotz 16). *Holako soiñuakin dántz’ittia!* (Araotz 1). *Hankan hazkuria euki ezker* *hól’iñ eta...* (Araotz 16). *Hól’itten zan* (Araotz 16). *Beék’errekaa* (*beheko erre kara*) (Araotz 29). *Gero etorri zél’ingo naiz ba?* (Araotz 16). *Eta bót’in eben txakurrak* (*ahotik ogia*) (Araotz 16). *Eta gizon batek egitten eben dántz’hola, eta...* (Araotz 16). *Eta han kontuak esaten zél’ezkondu gitzan eta...* (Araotz 16). *Ez dakitt zél’ingo geben* (Araotz 16). *Hól’eukitten zan* (Araotz 16). *T’ordun gaiñera...* (Araotz 16).

Et'ondo (Araotz 2). *Et'égon zala* (Araotz 2). *Hón'urten ezker*o (hona urten) (Araotz 2). *Gur'ez jaitterik* (gura ez) (Araotz 2). *T'erun nittun*, *t'erun nittunien itxi nittun sukaldeko maixan gainien* (Araotz 15). *T'eukitten zittuen...* (Araotz 15). *T'hem*en burdikaria esaten xako, eta... (Araotz 2). *T'enjeneral irixak euskeraz...* (Araotz 2). *T'éurok bizitten ikesi* (Araotz 2). *T'esne hori...* (Araotz 2). *T'úmia hazitta eguen*, eta... (Araotz 2). *T'Urbixan...* (Araotz 2). *T'hógei...* (Araotz 2). *Eta gaztaiñaak koskolien gordeten zien*, kamaran, koskolien gorde *t'egoten* zien usteldu baarik (Araotz 16). *Ganauen esne apur bat bota*, *t'egosi egitten* zan (Araotz 16). *Am'ez*, *amandrioi* (Araotz 16). *Eta gero nól'egoten* zan... (Araotz 16). *Abária zán*, *al'éztan* (ala ez zan) (Araotz 2). *Badakitt zél'itten dan* (Araotz 16). *Átzera txarrixak barrúr'ín* (barrura egin) (Araotz 16). *Eta hak bot'en* (bota eben) sei pillatan (Araotz 2).

3.4.4 Bokal-jateak baldintzetan/baiezkoetan

Hau ez dugu nahi adina jasotzerik lortu, baina AEren ezaugarrietako bat da:

Beézen (baegozen) (Araotz 16). *Eta illuna bétorren*, eta... (Araotz 2). *Baiña bétorren erria* ero hegoaizia ero zea (Araotz 30). *Olabartan be béuen* (baegoen) errotia (Araotz 30). *Ifíntten-batzun* (bazizun) (Araotz 2). *Táixo hori béuken* (Araotz 16). *Abarien ortuen be beózen* (Araotz 16). *Beózen Araban isúskigiñak* (Araotz 20). *Ibártzeta esaten xauen lekún be beózen* (Araotz 16).

Halakorik ez dago OEZe.

3.5 “-tako” deklinazio atzizkia AEn

Géutako be ondo etorten zan (Araotz 1). *Kaletarrak eukein*, *gútako...* (Araotz 30). *Samúr-raa “hi” egittia*, *néutako* (Araotz 1). *Hori izaten* zan *fiestia gútako* (Araotz 30). *Gútako tio* zan (Araotz 16). *Gútako osaba* (Araotz 16). *Néutako* (Araotz 16). *Nítako tio* zan (Araotz 16). *Nítako géixei dok hori* (Araotz 16).

Kasu honetan ez dago kontrakzio edo jaterik, behintzat ezin dugu halakorik esan; ez dakigu halakorik izan den.

Ni + tako > nitako.

Eta ez:

Niretako > nitako.

Berdina esan daiteke beste kasu batzuetan. “*Nigaz*” forman ez da jan genitiboa (“-ren”), ez du halakorik inoiz izan.

Ni + gaz > nigaz.

Eta ez:

Niregaz > nigaz.

OEZean “*neretako*”, “*guretako*”...

3.6 “Eutsi” aditz laguntzailea, kontrakzioa

LE-n ere agertzen dira horrelakoak.

Aditz nagusia eta laguntzailea (“*eutsi*” kasu honetan, besteak ez) elkartzen direnean moztu egiten da laguntzailea.

AE-n:

Éz'tet (ez dostet).

OEZean:

Éztostet (ez dostet).

Ez dugu aztertu Leiztarrenaren detailearik, hala ere.

OEZean ez da horrelakorik ageri. Inportantzia handirik ez dauka ezaugarri honek. Baina entzuterakoan dezente aldatzen du hizkera:

Neri beti Míren esá'stei hemen, e! (esan dostei) (Araotz 15). Nik láuri esá'stet ama (esan dostet), lau personai (Araotz 15). Ez'tet ezebe kentzen, baiña... (ez dostet) (Araotz 2). Nik honeiri itte'stetén moun (dosteten) (Araotz 16). Esá'ste (esan doste) (Araotz 2). Emúte'skuen (Araotz 2). “Baskilla” esaten xakon gaitz bat, hori janak itte'ste (egitten doste) (Araotz 2). Gogor itte'skun (Alferezak) (Araotz 18). Gaurkua sáldu bíko'skuzue ba! (biharko doskuzue) (Araotz 15). Enda hemen, ortuen azpíxan, urtéte-sku urak (Araotz 21). Urtéte'ste andriek (Araotz 15). Abare batek gogor itte'skun (Araotz). Esán-tzut (dizut) (Araotz 16). Len esán'tzuet ezta, zela egon giñen (esan

dotzuet) (Araotz 15). *Faten zien fabrikara lanera, baiña gutxi irabazten zan, gutxi pagáute'sten eta!* (Araotz 15). *Manéjaute'sten* (Araotz 15). *Holaxe egindda ekárri'skun eta...* (Araotz 21). *Ez noia oinguak (artzainak) bajautera, eta linguak altzautera be ez, baiña...* (Araotz 2). *Neri be hola béiketa'stain* (Araotz 15). *Esá'stain* (Araotz 15). *Badakin ze itte'skun?* (Araotz 20). *Enée, esáte'tzut, ira-ebaten...* (Araotz 29). *Betibe hobeto urtété-tzu (urteten dotzu)* (Araotz 21). *Falta itte-tzuna (egitten dotzuna)* (Araotz 21). *Esáte'ste (esaten doste)* (Araotz 20). *Horrei (horiei) danai igárte-tzet bestiak hánka ín'sten eta kitto* (Araotz 27). *Ítte'tzu* (Araotz 1). *Emúte'stezuén, ezta?* (Araotz 1). *Erue'ste (eruan doste)* (Araotz 20). *Ín'ste ikara (egin doste ikara)* (Araotz 20). *Oin é'skue kenduko* (Araotz 20). *Esá-stie* (Araotz 36). *Liburua emú'sten* (Araotz 16). *Esáte'ste* (Araotz 16). *Eureiri esá'stela* (Araotz 16). *Kentzé'tzuen* (Araotz 1). *Geuri éz'kun behintzet sekula egin* (Araotz 16). *Beakaztxo batzuk emun bi'steat honeiri* (Araotz 16). *Gero irakutzi ingo'stieu* (Araotz 16). *Telia ekarri'skunan* (Araotz 16). *Neri beti Miren esá'stei hemen* (Araotz 10). *Esáte'tzut* (Araotz 41). *Kendú'stanain* (Araotz 16). *Handik béiketa'skula guri* (Araotz 16). *Eta itte'skuan, aittak itte'skuan* (Araotz 34). *Neri burla itte'stain hona Oñatira etorri gitzanien; oin éz'tai burlarik egitten* (Araotz 8). *Biher dan gauzarik ésan-tzuun (dotzugun)* (Araotz 16).

Ezezkoetan

Lanik behintzet étzu emuten (Araotz 2). *Eurak be étzue (ez dotzue) esango* (Araotz 16). *Neri éz-tain ezer egin, e!* (Araotz 15). *(Hak) étzu ingo euskeraz* (Araotz 1). *Iñok mozuan bota éz'ku (ez dosku) egin, e!* (Araotz 16). *Eurak be étzue (ez dotzue) esango* (Araotz 16). *Buetrak jan bie'stanai* (Araotz 10). *Hori étzut hainbeste zertuko* (Araotz 29). *É'skun esaten* (Araotz). *Zeintzuk étzut esango* (Araotz 30). *Horreik é'stain emuten billurrik* (Araotz 2). *É'stain* (Araotz 21). *Ezek be éz'tak balixo* (Araotz 39). *Étzut ba esaten...* (Araotz 37).

3.7 d>r aditz laguntzaileetan

AEn zein OEZean ezaguna da “d” hizkiak “r” (ere) bihurtzeko duen joera:

d>r

Entrára (Olabarrieta 17). *Poráu* (*podar*) (Imanol, Olaalde). *Puntária-ero* (*josten*) (Olabarrieta 17). *Santágeraa* (Olabarrieta 17). *Halaxe amistaríoi egin, eta...* (Berezano 4). *Kriára* (Larraña 9). *Amístaria eukeiñak* (Araotz 4). *Alde bittakuak libértaria bihar daue* (Araotz 2). *Kómorak* (Araotz 16).

Aditzetan AEn agertzen da, baina OEZeaz ez da agertzen:

Aurrera etara barau (badau) (Araotz 2). *Jangoikuak osasuna emuten barau (badau)* (Araotz 2). *Hau pekatu bára...* (Araotz 2). *Ondo enpliatu bára (badago)* (Araotz 2). *Etaraten ézparou* (Araotz 2). *Oin be hala euko'rau hak izena* (Araotz 2). *Saiatu ín-bi-rau (bihar dau)* (Araotz 2). *Hau eta hau pasáu ra (pasaura)* (Araotz 2). *Oin kanbíxauta'ra (dago)* (Araotz 2). *Nik normala topauten dot, beste batzuk ez dakitt ze ingorauen baina (egingo dauen)* (Araotz 15). *Oin atzera haundíxa'ra (dala)* (Araotz 1). *Gaztáien móukua'ra* (Araotz 20). *Oin be éukikoraue* (Araotz 12). *Hasi bíkorou* (Araotz 10). *Zerbait eukíkorou, baiña...* (Araotz 20). *Fán ín-biru* (Araotz 10). *Beste batzun mouen ibilli gúra-baraue* (Araotz 1). *Ál-bara (ahal bada)* (Araotz 12). *Aguantaukoraue* (Araotz 2). *Beste batzuk ez dakitt ze ingorauen (dauean)* (Araotz 1).

Izagirrek ere jaso zuen:

Gerátuko ra.

OEZeaz ez dugu jaso halakorik, baina posible da galduta egotea, ez dakigu.

3.8. Bokal bikoitzak

Bokal bikoitzak OEZeaz ere agertzen dira.

OEBan ere gorde dira, baina oso gutxi; *maatza, aaztu...* Batzuetan konturatu gabe ere erabiltzen ditugu bokal bikoitzetik eratorritako formak; *mehia, keia, sartzeia, hartzeia...*

Bokal bikoitzen artean nahaskila dago; batzuk eta besteak ez dira berdinak (hau ez dut hemen landuko).

OEZeaz:

Maákuluakin eguen (Olabarrieta 2). *Oilláaskuak* (Olabarrieta 1).

Umerezek pila bat idatzi zituen; *jaatxi, edaaten, txaar, tropaak, jaaten, alabaak, dongaak...*

Izagirrek ere pila bat batu zituen, baita Arantzazun ere. Horregatik Oñati osoko ezaugarria izan dela ematen du.

Mitxelenak Oñatikotzat deskribatu zuen, Araotz aipatu gabe.

Guri AEn gehiago agertu zaizkigu, OEZean baino. Baina OEZ zorrotzago begiratzea komeni da.

Berezkoak, itxura batera jatorri ezagunik ez dutenak

Bire txaárrak (Araotz 16). *Haaxe (huraxe) tostau apur bat* (Araotz 16). *Beráatzi urte* (Araotz 1). *Jaan* (Araotz 16). *Txaarraguak* (Araotz 16). *Belaarri* (Araotz 16). *Gorde eta ebaali ez* (Araotz 16). *Jaáso egitten ttut* (Araotz 12). *Aitta diáarka goittik* (Araotz 38). *Jaáso* (Araotz 16). *Beráatzi* (Araotz 16). *Gaátza* (Araotz 16). *Gelaatzua* (Araotz 7). *Garixa, haáxe (haáxe) ekarten euen, asko ez euen irabaziko baiña besterik ez zan egongo eta háxe (haxe)* (biak esaldi berean) (Araotz 37). *Maiáasko* (Araotz 15). *Anáarreba* (Araotz 29). *Anáa bat* (Araotz 1). *Bi anáa* (Araotz 35). *Esaten gitxan beari maiáazkua* (Lezesarri 1). *Ha zuan hemen inguruko maiáazkorik zeena...* (Olabarrieta 24).

“Bage” zaharrarekin lotutakoak:

Ixó-baako garixa (Araotz 39). *Kotxe baarik* (Araotz 37). *Oin etorri baako egun gutxi egitten daue* (Araotz 37). *Ebai baarik* (Araotz 16). *Handik urrín-baako baserri baten* (Araotz 10). *Iñoi ezer esan baarik* (Araotz 41). *Ni neskatala tranpa haundi baakua izango nintzan* (Araotz 41). *Asti baarik* (Araotz 29). *Onddiok hemendik fan baarik* (Araotz 1).

“-aatu” dutenak (*lumaatu, haizaatu...*) ez ditugu hemen aztertuko (hauek bietan agertzen dira, OEZean eta AEn).

Hauen jatorria ez dugu aztertuko, hemen.

Aditzetan

Hau jaateko gertu xak (Araotz 39). *Áixkomente goora faaten...* (Araotz 38). *Jaáteko* (Araotz 38). *Jaátzi eta...* (bajarse) (Araotz 16). *Faatia* (Araotz 16). *Jaaten* (Araotz 10). *Ardó-apurtxo bat eraateko* (Araotz 41). *Han jaáten euen eta...* (Araotz 16). *Eraateko* (Araotz 21). *Jaáteko* (Araotz 16).

Hauek batzuetan agertzen dira, baita hiztun berdinarengan ere, eta beste batzuetan ez. Uste dut esaldian duten kokapenak zerikusia duela, baina hobeto aztertu behar da.

Berdina gertatzen da “*haik/hareik*” bezalakoeekin. Biak agertzen dira, eta arrazoia kokapena izan daiteke, baina hobeto aztertu arte ezin dut baieztatu halakorik.

Trena hartzéera (Araotz 38). *Ontzéeko (gaztaia)* (Araotz 16).

Hauek OEZean ere agertzen dira. Bokal bikoitz horiek azaltzen dute “*hasteia*”, “*hartzeia*” (eta ez “*hastea*”, “*hartzea*”) bezalako formak, ez direnak hainbeste galdu. Hor bokal bikoitzik ez balego “*hastea/hastia*”, “*hartzea/hartzia*”) litzateke. OEBan hauek ari dira nagusitzen.

3.9 a gehi a> aa

Hitzaren erroak “-a” berezkoa duenean agertzen dira.

Ezaugarri hau murriztuta dago. Elkarrizketa egin diegunei ez diegu askotan entzun; baina sistematikoa izan dela uste dut.

Non?

Noe arkaan sartu zan egun hartaraiño (Umerez).

Elízaan (Araotz 20). *Kandélaan* (Araotz 16). *Kamáuraan* (Araotz 16). *Eskólaan* (Araotz 2). *Urtéixeraan* (Araotz 16). *Hortxe txaráan* (Araotz 16). *Mákiñaan* (Araotz 16). *Elizaan* (Araotz 16). *Hánkaan* (Araotz 48). *Ittúaan* (Araotz 38). *Barríkaan* (Araotz 16). *Zela egon nintzan neu bentánaan* (Araotz 12). *Itxabolaan* (Araotz 2). *Gu eskólaan gebitzela...* (Araotz 16). *Kamañaan* (Araotz 2). *Errékaan* (Araotz 16). *Kámaraan* (Araotz 16). *Kámaraan* (Araotz 7). *Illáaraan* (Araotz 7). *Uráan* (Araotz 16). *Tázaan* (Araotz 16). *Póltzaan* (Araotz 16). *Errípaan* (Araotz 40). *Gure épokaan* (Araotz 29). *Hurrengo domékaan* (Araotz 16). *Elizaan* (Araotz 37). *Soo ezkiñaan* (Araotz 39). *Trangaan* (Araotz 16).

Izagirrek:

Errekaan, erreskaan (Izagirre, Aranzazu).

OEZean:

Mugáan (Olabarrieta 2). *Poltxíkaan* (Olabarrieta 1).

OEZean zenbateraino agertzen diren ez dut aztertu.

Zer? (“absolutibo plurala”)

Honela da:

Kéiza + ak > kéizaak.

Ságar + ak > sagárrak.

Meriendaak (Araotz 20). *Masústaak* (Araotz 16). *Txirrínkaak* (Araotz 16). *Auzuetako langíllaak* (Araotz 20). *Txarránkaak* (Araotz 38). *Kuadríllaak* (Araotz 39). *Urríz-makíllaak* (Araotz 38). *Árbolaak* (Araotz 38). *Gere gaztáíñaak* (Araotz 38). *Abárkaak* (Araotz 12). *Gaztáíña-agaak* (Araotz 7). *Langíllaak* (Araotz 38). *Kriskétaak* (castañuelas) (Araotz 16). *Txíxaraak* (Araotz 16). *Gáúzaak* (Araotz 16). *Tremenduko kurríxkaak* (Araotz 16). *Eskórtaak* (Araotz 2). *Téllaak* (Araotz 2). *Bentájaak* (Araotz 2). *Préntzaak* (Araotz 2). *Hánkaak lotuta* (Araotz 16). *Arráutzaak* (Araotz 2). *Táblaak ifiñi eta...* (Araotz 16). *Errótaak* (Araotz 2). *Seróraak* (Araotz 41). *Kalera ezkondata egozen tíaaak* (Araotz 16). *Kéizaak* (Araotz 16). *Azétunaak* (Araotz 16). *Arkaak* (Araotz 1). *Erréminttaak* (Araotz 16). *Harixa egitteko mákiñaak* (Araotz 16). *Béste áizpaak* (Araotz 16). *Iráak* (Araotz 38). *Lénaako andráak* (Araotz 30). *Gaztáíñaak* (Araotz 16). *Agáak* (Araotz 16). *Síllaak* (Araotz 16). *Mállaak* (Araotz 16). *Hórmaak* (Araotz 17). *Txakurraak listuak dira gure aldien, txakurraak eta animalixaak* (Araotz 16). *Hánkaak* (Araotz 16). *Neskáillaak* (Araotz 16). *Alánbraak* (Araotz 16). *Prímaak* (Araotz 16). *Lótzaak galduta* (Araotz 16). *Erlákumaak* (Araotz 40). *Erláak* (Araotz 37). *Lenaako parétaak* (Araotz 16). *Banástaak* (Araotz 16). *Aittáamaak* (Araotz 42). *Eta zaharrak, ámaak eta áittaak eta horreik meza-nausittara, eta gu, beste gaztiok...* (Araotz 16). *Káltzaak* (Araotz 2). *Gáúzaak* (Araotz 30). *Ugaaneko andráak* (Araotz 31). *Oin be zelaixen ikusten dira landáraak. Lenaatik galdutakuak, hor egongo dira banákaak* (Araotz 16).

Ikusten denez, Gernetako Bittoinak (Araotz 16) modu sistematikoan darabiltza absolutibo pluralean. Horrela izango zela AEn uste dut, jasoketa egin dugunerako hitzunek modu sistematikoan erabiltzeari utzi dioten arren.

Hauek oso gutxi ageri dira OEZean:

Ogigaztaak (Larraña 2). *Gaztáíñaak* (Zabalena, Milagros). *Bidégingintzaak*

(Larraña 4) *Gaztáñaak* (Olabarrieta 1). *Susáak ekarten euen Araozkuak* (Larraña 9). *Sillaak* (Olabarrieta 29).

Izagirrek pila bat jaso zituen Arantzazuko baserrietan. Gutxi batzuk jarriko ditugu:

Erramaak (Izagirre, Arantzazu). *Harlántzaillaak* (Izagirre, Arantzazu). *Askaak* (Izagirre, Arantzazu). *Babaak* (Izagirre, Arantzazu). *Basaurdekumaak* (Izagirre, Arantzazu). *Asto-manastaak* (Izagirre, Arantzazu).

Umerezek nola darabiltzan bitxia da (aurrerago aztertuko dugu).

Zerekin?

Hauek, ematen duenez, plurala adierazten dute:

Botíkaakin (Araotz 37). *Beste arbólaakin ez* (Araotz 16). *Óndaakin (ulea)* (Araotz 16). *Okelia patátaakin* (Araotz 2). *Esnia zópaakin* (Araotz 10). *Sóbraakin* (Araotz 16). *Erropaakin* (Araotz 16). *Zínttaakin* (Araotz 20). *Bialketan euen kártaakin* (Araotz 31). *Entzuten dien gáuzaakin...* (Araotz 2). *Lotu sókaakin* (Araotz 4). *Euren nóbixaakin* (Araotz 38). *Kandélaakin* (Araotz 12).

OEZeak gehiago egongo diren susmoa daukat:

Zumáakin (Olabarrieta 29).

Interesgarriak dira Umerezen sozietibo pluraletakoko bokal bikoitzak, Araotzen jasotakoekin duten antzarenatik; AEn “-aakin”, Umerezek “-aakaz”.

Hankaakaz (Umerez). *Tripaakaz* (Umerez). *Udaakaz* (Umerez). *Obraakaz* (Umerez).

Konparazio atzizkietan -ago> -aa/-a

Oñatin 2024an lau forma hauek elkarbizitzan zeuden:

Gútxiao, gútxiau, gútxiaa, gútxia.

OEBak hartu duena “*gútxiau*” da, eta horrek jarraituko du aurrera.

AE-n “-aa” eta “-a” ageri dira. “-ao” ren batzuk ere agertu zaizkigu.

Araotzen:

-ago > -ao > -aa > -a

Oñatin:

-ago > -ao > -au

Géixaa (Araotz 17). *Géixaa* (araotz 2). *Lénaa ikasitta, oinguai aaztu xate* (Araotz 16) *Lénaa ez eguen holakorik, e!* (Araotz 18). *Lénaa baietz esaten euen* (Araotz 21). *Nobixotxuaz fatia guráa* (Araotz 16). *Zaharrak gérua zarraa* (Araotz 2). *Eguardixan sartu egitten gittuan lenaa behixak be...* (Araotz 1). *Haik erderaz samúrrea egitten daue ba* (Araotz 15). *Motibo géhixaa* (Araotz 20). *Gútxitxuaa* (Araotz 19). *Neuk antz emutia géixaa gura izaten xonan* (Araotz 16). *Horrúzzaatik (horrutzagotik)* (Araotz 16). *Géitxuaa* (Araotz 29). *Géruaa* (Araotz 29). *Orduen, oin baiño maixak eléantiaa ifñitta, e!* (Araotz 22). *Len baiño dotóriaa* (Araotz 2). *Géixaa* (Araotz 12). *Lénaatik* (Araotz 12). *Behin baiño géixaatan* (Araotz 1). *Áurreraatik (aurreragotik)* (Araotz 26). *Lénaa* (Araotz 38). *Estutu geixaa, dirua gutxiaa, hori bai* (Araotz 16). *Géixaa* (Araotz 29). *Lénaakuak* (Araotz 29). *Gútxiaako seziñora (gutxiagoko)* (Araotz 16). *Oin jentia abératzaa da orduen baiño* (Araotz 16). *Géhitxua* (ez “*gehitxuaa*”) (Araotz 1). *Geixaatan be bai, e* (Araotz 16). *Etxetxoko etxia baiño béraatxua* (Araotz 29).

Oharra: Ez dut behar bezain adi aztertu noiz esaten den “-aa” eta noiz “-a”.

Baina:

Lénao (ez *lénaa*); *gútxiiau*; *géixau* (Araotz 12) (hauek bastante entzun ditugu).

“Egon” trinkoa AEn

OEZean “*daó*” (da-ó) da forma zaharra, “*dáu*” ere ageri da, berriagoa, OEBan erabiltzen dena.

AEn “*daá*”, eta “*da*” ageri dira, bigarrena gehiago. “*Daó*” ere agertzen da, baina berriro ere ez dakigu nahastu izanagatik den, edo horrela zen.

2024an lau hauek elkarbizitzan zeuden Oñatin: *dao*, *dau*, *daa*, *da*.

Aldaera honek konparatiboak egiteko atzizkiarekin gertatu denarekin antza du, fenomeno berdina da -ao>-aa.

Daa/naa

Oin be baxaak hor zeoze (Araotz 15). Hori denpora askuan daa egonda (Araotz 16). Hori tiok egindda daa egon (Araotz 19) Hau preparauta daa (Araotz 2). Tristuria bai, baiña beste soluziñorik ez daa! (Araotz 1). Hola banáa, eta... (Araotz 15). Hori ondo esanda daa egon (Araotz 16).

Da/na

Badáz banaka batzuk (Araotz 1). Biríak, gaur hobiak daz (Araotz 1). Etorteko mouan zaz apurtxo baten? (Araotz 15). Etorteko mouan zaz apurtxo baten? (Araotz 15). Kalien zázenien (zagozenian) (Araotz 2). Ekárritta ná (Araotz 16). Nún dázen (Araotz 7). Oin dendak erozein lekutan zela dazen (Araotz 12). Zu zaz (Araotz 16). Alperri'taz (alperrik dagoz) (Araotz 16). Oin janak-eta egon daz (Araotz 16). Hau astózain ibilitta xan (zegon, hika) (Araotz 41). Ibilitta na (Araotz 40). Ametz gutxi xak (ametz, arbola) (Araotz 16). Oittúta gaz holaxen eta, oittuta gaz txikittatik (Araotz 41). Txakur-konkurso baten ikusitta na (Araotz 2).

Baiña hauek ere sarri, ez dakigu nahastu delako den, edo hala zen:

Daóz (Araotz 27). Aldátza daó (Araotz 27). Géhixao (Araotz 27). Hor Andarton azpíxen bádau ba... (Araotz 15). Lau orduko biría daó (Araotz 37).

OEZn ere agertzen dira, baina ez ditugu behar bezala aztertu euren zabalkundea ezaguteko:

Hor Olabartako saillak daz dazenak (Olabarrieta 1). Lenguak barriztauta daz gehixenok (Olabarrieta 19).

3.10. Aditz izena “-auten” eta “-iuten”

Ezaugarri hau berrikuntzatzat dut, LEn zeharkako eraginaren ondorioz sortu dela dirudi.

“-au”-z amaitzen diren aditzek, aditz izena “-auten” jasotzen dute Araotzen:

-au

Beraatzi-ero baegozen gaixuai-eta aténdiuteko (Araotz 15). Akórdauten naiz zela eruan euen (Araotz 15). Orduan ez xaguan kalefaziñorik eta puñetarik! Zelako hotzak pasáuten gittun! (Araotz 15). Nik ez dakitt zenbat lagun egongo

giñan, baiña bastante, bastante jente egoten giñan, akórdauten naiz ni (Araotz 15). *Gero fan hai konfésautera!* (Araotz 16). *Lana ebíttateatik, e!* (Araotz 2). *Tratáuten* (Araotz 1). *Nola eurenak be hona pasáuten dien, hamenguak be Arabara (ardiak)* (Araotz 2). *Asko ez xaten gustáuten neri kalabazak emutia* (Araotz). *Donostiara presentauteko* (Araotz 18). *Garixa entrégauteko* (Araotz 18). *Kanalak arrélaute eta tuberixak pinttáuten* (Araotz 18). *Neu ibilitta na hau arrélaute be* (Araotz 19). *Laguntasun horreik noraiño alláuten dien!* (Araotz 2). *Gu kalien ibiltten gara, eta araoztarrak pillia juntáuten gara han* (Araotz 1). *Erréjistraute* (Araotz 27). *Nik egin nittuan negarrak, onddiok sentiúten dot orduantxe-letxe!* (Araotz 15).

-iu

Kubriutera eruan nindduen (Araotz 18). *Korriúten* (Araotz 16). *Enténdiuten dozu?* (Araotz 2).

Kontuan hartzekoak dira Izagirren hiztegiko hauek;

Akordaitten naiz (Izagirre, Araoz). *Entenditten* (Izagirre, Araoz).

3.11. Xaa, xaazu

OEZean “xao” jaso dugu, beste formarik ez:

Horreri ze inporta xao ba? (Olabarrieta 1). *Gaixki urtengo xao* (Olabarrieta 1).

Azkuek Oñatin jaso zuen, “xaot”.

Irizarrek “txaat” jaso zuen Olabarrietan.

“Asimilazioa” esaten zaiona gertatu da AEn:

xaot>xaat.

xao>xaa.

xaozu>xaazu.

Hiru hauek agertzen dira.

Kendu xaa txapelori (Araotz 20). *Ítten báxaazu* (Araotz 38). *Eta in xaa alto* (Araotz 37). *Nik étxaat emungo* (Araotz 16). *Denporiai igarri itten xaat* (Araotz 16). *Eta esaten xaa nere aittak...* (Araotz 10). *Azpittik nola kentzen xaazun mastria...* (Araotz 41). *Urten xaanak* (Araotz 16). *Zelako barreria, berjia ín-xaan* (Araotz 15). *Esán-xaa* (Araotz 15). *Ikusi notzun? Ipurdixa ikusi xaazu ala, hori esateko?* (Araotz 16). *Irixari irakutziko xaa* (Araotz 2).

Zabalketan xaa (Araotz 2). *Hego-haiziai zuk be igárten-xaazu ba?* (Araotz 16). *Pentzau eben zerbait ingo-xaala eta...* (Araotz 21). *Horrek eusten xaala (diola)* (Araotz 1). *Bittara egingo xaazu (berba)* (Araotz 2). *Emun xaa belarrondokua aurreko andriek* (Araotz 16).

Izagirrek Araotzen:

Autorra beti eukitten xaat hari (Sacristan de Araoz, Izagirre). *Zart erain xaot* (Izagirre, Araotz).

Izagirrek Arantzazun:

Nik hartu xaot horri errukixa (Izagirre, Arantzazu). *Horri gorroto xaot* (Izagirre Arantzazu). *Akerra ataa xao* (Izagirre, Arantzazu). *Opa txaat* (Izagirre, Arantzazu).

Baiña:

Ezamarrenak eruan txak (ez “txaak”) (Izagirre. Arantzazun).

Eta Araotzen:

Heldú-xao (heldu xau, dio) (Araotz 27). *Eta tia Ursulak esan xao* (Araotz 31).

3.12. Aditz trinkoak hika

Aditz trinkoak hika “ñ-” dute hasieran OEZ; AE-n bustidurarik gabe agertzen dira; hauek lehen pertsonako formak dira.

Mitxelenak FHV lanean Oñatiko euskararen hasierako “ñ-” komentatu zuen, aztertuz.

Herriko euskararen ezaugarrietako bat da dirudienez.

OEZ; *ñabik*.

AE; *nabik*.

Izagirre, Arantzazun; *ñabik*.

LE-n bezala egiten dute araoztarrek; agian handik dator aldaketa eragina.

Arrasateko aditz taulak; nabik/n, natok/naton... (*Arrasateko aditz taulak*, 1999).

Izena akordau ezindda naak (nagok) (Araotz 16). *Ni aaztuta naun (nagon)* (Araotz 31). *Ni énatok* (Araotz 2). *Banakixan (banekian)* (Araotz 34). *Nak* (Araotz 37). *Nabik* (Araotz 8). *Noiek, natok* (Araotz 8). *Nauan (nengoan)* (Araotz 7). *Ni ez naixoien horra* (Araotz 16).

OEZan eta OEBan “*nixuan*” entzuten da “*ñuan*”-ekin batera. AEn nola den ez dut aztertzerik izan, ya nahastuta dagoelakoan, logikoa litzatekeen arren, besteak ikusita, “*nixuan*” izatea erabili dena.

4) Aditz nagusiaren hasieran bokal-jatea

Hauek gutxi agertu zaizkigu:

Hái(k) kárte'skuen (Araotz 16). *Permisuaz tórten giñan iñoiz, baiña...* (Araotz 2). *Tórri naiz eta...* (Araotz 2). *Arráutza(k) kárri* (Araotz 16). *Olixua eta azukarra-ta kárteko-ta* (Araotz 16).

Bi hiztun hauek, Manuel eta Bittoina, AE ondoen gorde dutenak izanik, ezaugarri hau jasotzea erabaki dut, baina ezin jakin ze zabalpen eduki duen.

5) Lexikoa

Lexikoa aztertzeak lexiko jasoketa zabala eskatzen du, nik ez dut halakorik egin. Izagirrek ere gehienak Arantzazun jaso zituen gehienak, horregatik ondorio garbirik ezin dugu atera.

Printzipioz esan daiteke ez dagoela diferentzia nabarmenik. Oso gutxi topatu ditut Araozko eksklusiboak diren hitzak.

“*Ezkurra*” Araotzen gehiago entzuten da eta OEZean “*kuxkúrra*” gehiago. Baina Aurreko Mendieta “*ezkurra*” jaso dugu, esaterako.

“*Baápurdina*” (oiloaren errota) Araotzen jaso dugu, behin baino

gehiagotan agertu zaigu. OEZean behin jaso diot Juani Akelenari. Akelena orain Errekalde auzoa denaren hasieran zegoen kale baserriaren izena zen.

Juaniren anaiarrebei galdetu eta hauek ez dute ezagutzen hitza. Orduan jakin dut Juaniren gizona Ugastegikoa dela. Eta seguruenez, hari ikasi diola hitza.

Hau da haren iloba Iñigo Murgiondoren azalpena:

“Juani Agirreri, gure tiari, entzun nitxan lehenengo aldiz (“baápurdiña”). Oillaskuak lumaaketan ibili gintzuan baten. Bere gizona Enrike Urkia dok. Ugastei Behekua”.

“Áixkomente” bietan jaso dugu, “enda” (“eta” esateko) bietan, “itxía” (etxea) bietan.

“Ardo/ardúa” Araotzen jaso dugu, OEZean ez. Hala ere, biak ageri dira Araotzen ere “ardao” eta “ardo”, baina “ardo” gehiago; ez badu ere, egia esan, erroko ezer adierazten, aldaeratxo bat izanik.

Arabatik ekarten zan estráperlueñ ardúa (Araotz). *Arabara ardotara* (Araotz 27). *Patatia eta, ardúa be bai eta...* (Araotz 7). *Ardúa ekartera* (Araotz 16).

“Jái” (jaiki) Araotzen jaso dugu eta OEZean ez, baina erabiltzen zela uste dugu Umerezen testuak irakurrita.

Araotzen “erun” jaso dugu, OEZean ez, Izagirrek ere jaso zuen Araotzen.

Soóra erún (Araotz 16).

“Osaba” eta “izeko” Araotzen jaso ditugu, oso murriztuta bada ere. OEZean ez. Umerezek erabiltzen ditu eta OEZekoak izan direla uste dut.

Araotzen “itokiña”, OEZean halakorik ez. Araotzen “mokiña” (terron), OEZean ez dut jaso.

Lexikoa zorrotz osorik aztertu ezker, hitz gehiago agertuko liratekeela uste dut Araotzen eksklusiboak direnak.

6) Sakondu ez ditugunak

Hemen jarriko ditut jasotako forma batzuk.

Araoztarrak liburukietan zabal jaso nituen Gernetako Bittoinaren *xaku/xakun* (zaio, zitzaion) laguntzaileak. Berrikuntza bat dela ematen du.

Halaxe jo eta garixai etara eraitten xakun (zitzaion) (Araotz 16).

Han eta hemen entzun dut noizbehinka “*ittia*” (egitea) beharrean “*inttia*”.

Tokau xat inttia (Araotz 1).

Berrikuntza bat ematen du. Araotzetik kanpora ez dut jaso.

Aipatzekoa iruditu zaizkit: “*Eukon (zeukan)*” (Araotz 12) eta “*ézkeutzan (ézkeutzan)*” (*ez genion*) (Araotz 29). Bigarren hau forma zaharra izan daitekeela uste dut.

“*Goora*” AEn ia beti. OEZean “*gora*”, baina hobeto aztertu beharko litzateke.

Atlas linguistikoa dela eta

1980ko hamarkadan hasita informazio pila bat jaso zen Euskal Herriko hizketen gainean, eta orain kontsultatzeko moduan dago hori guztia.

Bertan Araozko Euskara eta Oñatikoa aparte jaso ziren, hiztun desberdinei egindako galdera berdinen bidez.

Atlasa ez da zuzena. Zergatik? Ulertarazten duelako aldeak direnak baino nabarmenagoak direla.

Oker handietara eraman dezake Oñatiko Euskara eta Araozkoa aztertu nahi dituenak.

Adibide batzuk:

Oñati “*marraskillo*”. Araotz “*karakol*”.

Oñati “*kakalardo*”. Araotz “*maloka*”.

Oñati “*txinddurri*”. Araotz “*txindorri*”.

Oñati “*untzerlabixo*”. Araotz “*erlabixo*”.

Oñati “*erlaaundi*”. Araotz “*erlageizto*”.

Oñati “*zulatu*”. Araotz “*pikau*”.

Oñati “*txipeleta*”. Araotz “*txipelepeta*”.

Oñati, Araotz, “*txixare*” (Oñatin “*txixara*, *txixaria*” da).

Eta horrela ehundaka hitz.

Atlasa begiratzen duenak ez baditu Oñatikoa eta Araozkoa ezagutzen pentsatuko du dagoena baino alde handiagoak daudela bien artean

Baliteke horrelako proiektu handiak egitean arrisku hori ezinbestekoa izatea, baina kasu askotan jasoketa gaizki egin delako da.

Araozko Euskara, ondorioak

Ondorio nagusia: Araozkoa eta Oñatiko Euskara Zaharra oso antzekoak dira.

Aldaeratzat hartzeko adina ezaugarri baditu, hala ere, Araozko Euskarak. Ezaugarri jakin batzuekin euskara desberdin baten deskribapena egin daiteke. Ezaugarri horiek ez dute balio kualitatibo handirik, gehienak fonetikoak dira.

1960 hamarkadan Araoztarren komunitatea, baserri mundukoa, galtzen hasi zen. 500 laguneko giza talde hark bere euskara propioa zerabilen. OEZren antzekoa, baina apurtxo bat diferentea.

“Diferente sonatzen zuen”, eta ez da gutxi.

1960ko hamarkadan industriak lehen lerroa hartu zuen Oñatiko ekonomian. Herrira bizitzera jaitsi ziren araoztarrak eta nahastu egin zen haien euskara.

Guk jasotakoek Araozko ezaugarriak mantentzen dituzte, baina herrikoarekin nahastuta.

Saiatu gara ezaugarri diferentzialak atzematen eta deskribatzen, baina baieztapen batzuk egiteko beranduegi da.

OEZak Oñatiko Euskara Berriari (OEB) egin dio leku. AE hitz egiten zutenen ondorengoek, berriz, ez darabilte auzoko hizkerarik. Kanean bizi dira, OEB hitz egiten dute. Eten da transmisioa.

Horregatik esan dezakegu, azkenetan dela Araozko aldaera.

Bittoina Goitia, Araozko Euskara bikain gorde duen araoztarrak 97 urteak beteta ere grabaketak egiteko aukera eman digu, eta ohore bat izan da guretako. Aintza Bittoina Goitiari, eta gorespen.

Aiek ezaugarri jakinak ditu Oñatiko Euskara Zaharretik bereizi.

Hauetako gehienak fonetikoak dira. Ez lexikoari, morfologiari eta sintaxiari dagozkionak.

Morfologiari dagokion nabarmenena *-auten/-iuten* aditz izena da. Lehena ezaugarri partikularra, dakigula. Bigarrena Lerekin konpartitua.

Ezaugarri fonetikoek belarrira diferente aurkezten digute Araozkoa. Baina hizkuntza-desberdintasunen aldetik inportantzia gutxikoak dira.

Hortik hartu du indarra Araozkoen Euskara diferentea denaren usteak. Izan diferentea da, baina txikiak dira oinarrian dituzten aldeak, azalekoak direlako.

Deskribapena zuzen, zehatz egiteko berandu da. Eta aurretik eginda dauden lanetan eskuratu nahi genituen datu batzuk falta dira.

Deskribatu ditut ezaugarri bereizleak. Baina hauek auzoan nagusi ziren, ed ez, ezin izan dut jakin, zehaztu, frogatu.

Eskura izan ditudan grabaketetan hiztunek Oñatikotzat ditugun formak erabiltzen dituzte ("*-aitten*", "*-uan*"...), eta horrek bi azalpen izan ditzake: 1) Araoztarrak kalera bizitzera joan zirenean Araozko euskara Oñatikoarekin nahastu zen; 2) Araotzen inoiz ez da euskara bat eta bakarra hitz egin, diferentziak izan dira hiztunen, auzouneen artean.

Koldo Zumaldek oharra helarazi zidan:

"*Berezitasun hori (kargauten, borrauten, zerrauten...)* erabatekoa zen garai hartan adinekoen artean auzoan. Harrezkero, zer gertatu den... Kontuak asko aldatu dira, eta nahastu egingo ziren erabilerak, ziur" (Koldo Zumalde, 2024).

Baina beste ezaugarriak? Haiek ere erabatekoak ziren? Ezin izan dut argitu.

Araozko Euskararen ezaugarriak, ondorioekin jarraituz

Leku bakoitzak bere berezitasun partikularrak nabarmentzeko joera ezaguna da nonahi. Araotzen ere halako zerbait gertatu da, nire ustez.

Zerk bereizten gaitu? Hura indartuko dugu.

Baina ez dira pisu handirik duten ezaugarriak. Pisu handiko ezaugarria zer den azaltzeko adibidea jarriko dut.

Legazpin, “*eman diot*”.

Oñatin, “*emun xat (deutsat)*”.

Hori diferentzia sakona da, bi erroz ari garelako, aditz laguntzaile erabilienak erroak desberdinak dituztelako.

OEZn “*geruao*”.

AEn “*geruaa*”.

Hau zerbait azalekoa da, ohiko fenomeno bat, zehazki bokalen asimilizio fonetikoa.

Hala izanik, Oñatiko Euskara Zaharraren deskribapenak baliagarriak dira orokorrean Araozko Euskara ezagutzeko (Izagirrerena, Euskaltegikoen...).

Aldiz, Atlas Linguistikoan argitaratu ziren datuak ez dira fidagarriak. Beste arrazoi batzuen artean, tartean Araozkoak ez diren formak aurkitu ditudalako.

Baina ez da hori bakarrik.

Aztertu dudan OEZean Izagirrek Arantzazun eta Araotzen jaso zituen formak agertu zaizkigu Oñatiko beste auzoetan. Behin eta berriz. Batasuna erabatekoa ez, baina handia da.

Horren arrazoiak hau izan daiteke batez ere; Araotz eta Oñati Konderri beraren (1845era arte), eta adiministrazio beraren (udaletxea) parte izan dira.

Bestela, geografiari begiratuta (Aloña mendiak banatutako bi bailara), eta Araotzen neurria kontuan hartuta, itxura guztien arabera, Gipuzkoako herrixkak aztertuta, Araotz herri autonomia izan beharko litzateke.

Bi “herriek” duten euskara-batasuna batasun administratibo horren emaitza da, nire ustez.

Atlasak, berriz, ulertzeraz ematen du bi hizketen arteko aldeak nabariak direla.

Araozko Euskararen ezaugarriei egin dugun deskribapenera bueltatuz, ematen du leiztarren euskarak (Atxabalta batez ere, Ugastei, Korueta) Araozkoan eragin duela (*ia* > *ie*; *ua* > *ue*). LE ez dut ondo ezagutzen eta ez dut arlo hau behar bezala jorratu, denbora eta dedikazio gehiago beharko nuke LE-k Araozko Euskaran izan duen eragina zehazteko.

Ondoko auzoei dagokienez, Arantzazun eta Urrexolan (bokal luzeak, *ia* > *ie*...) badira Araozkoarekin bat egiten duten ezaugarriak. Baina osotasunean auzo hauetako euskarak ezin dira Araozkoaren modukotzat hartu.

Haxe da Araozko Euskarara egitea lortu dudana hurbilpena.

Jasoketek egunak kontatuta dituzte, baso berrietako arbola da Araotzen euskara.

Transmisioa aspaldi eten zen.

Erronkarikoa bezala, Araozko Euskara historiara pasako da.

Agur eta ohore Araozko euskarari. Aintza euskarari Euskal Herri osoan. Gorestua bedi euskara berria Oñatin.

2. PARTEA

OÑATIKO EUSKARA ZAHARRA, APUNTEAK

Kontsonante galerak

Silaba bakarrean bi kontsonante daudenean, ia sistematikoki bat galdu egiten da Oñatiko Euskara Zaharrean.

Kásula (kapsula) (Oñati). *Esátamente!* (exactamente) (Olabarrieta 4). *Esáto* (exacto) (Larraña 4). *Dotríñia* (doctrina) (Kalea 2). *Istititisa* (institutriz) (Larraña 9). *Hinotizau* (Larraña 6). *Arrélau* (arreglar) (Uribarri 14). *Ésitua* (éxito) *badakoi* (Olabarrieta 2). *Tratória* (Olabarrieta 24). *Hinótizauta* (Olabarrieta 1). *Prolémia* (Olabarrieta 1). *Tratórekaia* (Olabarrieta 1). *Afétau* (afectar) (Olabarrieta 29). *Lau téniko* (técnico de animales) (Araotz 2). *Eta harek tremenduko tentaziñua sésurako* (sexurako) (Araotz 16). *Íler* (Hitler) (Araotz 45). *Asetau* (acceptar) (Araotz 2).

Galdu beharrean, kasu batzuetan bokala sartzen da tartean. Honelako asko ez ditugu aurkitu, oraingoz.

Alégere (Olabarrieta 1). *Bizíkeletia* (Olabarrieta 2).

Konsonante batzuk hitz amaieran ebitau egiten dira, bestalde:

Kóbixoi (covid-ori) (Oñati). *Valláдолiten* (ez “Valladoliden”) (Urrexola 1). *Restáurana* (restaurant-a). *Ebéres* (Everest) (Olabarrieta 38).

OEban joera horiek aldatu egin dira eta jatorrizko moduetan esaten dira; kapsula, esaktua... Erdararen gaitasun fonetikoak barneratu ditu belaunaldi berriak.

"Ebai" eta "moztu"

Bietatik bakoitza noiz erabiltzen da? Ez dago garbi. Baina badira joera nagusi batzuk.

Ebai

Zer *"ebaten"* da?

ota, ira, illarra, bedar, gari, egur, sasi, narra, ogi, okela, hanka, berna, ule, bizar, bekoki

Bedarrak ebaten (Umerez). *Garíxak ebáteko daukou oindio*, los trigos sin cortar aún (Izagirre). *Gari-ebatera* (Izagirre). *Ebái eta ekarri segiran be (iria)* (Olabarrieta 19). *Garixoi ebáteko* (Olabarrieta 19). *Iittaixak-eta, ira-ebateko, eta garixa ebateko eta horreik danetarako, askotan bear-baltza ebáteko be igual...* (Olabarrieta 35). *Garixa ebaitta* (Olabarrieta 4). *Garí-ebatia* (Larraña 8). *Iria ebai* (Uribarri 7). *Lenago esaten xuain Telerixetara-eta illarria ebaitta eruaten euela sua egitteko* (Murgixa 2). *Ni akordaitten nauk aitta eta bixok bedar-ebaten eta subia!* (Uribarri 4). *Arbolia ebai* (Larraña 2). *Anaia ebillen itxetik harutz sasixak ebaten, bide ezkiñako narrak ebaten* (Larraña 5). *Iria ebátera* (Araotz 29). *Egurak ebai eta ekarri eta, pillatu-eta, holakotxiak* (Uribarri 7). *Ebai idazu ogi-mutur bat* (Olabarrieta 2). *Ogi-pittin bat ebáidazu* (Olabarrieta 2). *Zortzi bat egun bihar izaten ziran (karobia erretzeko); eta ha erreteko otak-eta ebai eta, pillatu eta, karriu eta, egin bihar izaten ziran* (Uribarri 7). *Egurak ebáittioi* (Olabarrieta 2). *Ni hor be ebaten ibilli ñagok* (Murgixa 2). *Irá-ebatia, hori urazkeneko lana izaten zan* (Olabarrieta 34). *Udan, garí-ebate denporan...* (Olabarrieta 34). *Hoi okelia ebátekua dok, karnazeruak ebalten xuai holakua* (Larraña 17). *Bekokixa ebaitta!* (Araotz 4). *Enda apostia egin xok arabar batekin, zeíñek gehixaa ebai (garia)* (Araotz 36)

Eta sartu giñen, geria ebai gebenien (garixa), haren soora (Araotz 2). Aittajuna harek segaz elegante ebaten eben garixa (Araotz 36). Bearrak segiakin ebaten (Araotz 1). Donostiara eruen euen, eta ebai egin otzain bernia eta gauzia uste dot konplikau zala, denbora askuen e! (Araotz 41).

Joskinaren esaldian zer ebai zuen jakitea falta zaigu:

Sastriak ebai eta josi (zer?) (Murgixa 5).

Moztu eta ebai

“*Ulia*” normalean moztu, “*hankia*” normalean moztu, baina:

(Ulia) ebatia (Umerez). Ikesi eben barbero. Auzoko gehixenai beak ebate’s ten. Len... “labaiñia” esaten xakon. Labaiña hola bastante luzia... Harekin ebaten eben... (Araotz 41). Hankia ebái txain, eta... (Olabarrieta 24).

Moztu

Zer mozten da?

beso, hanka, lepo, ule, ota, arbolak (lizar, koosti), egun

Besua moztuta egon zala (Gerrako garrak). Moztu egin otzain (hankia) (Gerrako garrak). Ulia moztzén baldin bagebitzen (ardiei) (Larraña 14). Lepua moztuko donat, horrenbeste garrasikin! (Uribarri 7). Hánkia moztúta (Olabarrieta 30). Gaztia izateko urtero móztu egin bihar dok (otía) (Murgixa 2). Otía sarri moztu ezker ez baiña, noizian behin mozten bada kixkixak eukitten txuai (xuái? zalantza) zorrotzak, e! (Murgixa 2). Hankia moztúta (Olabarrieta 29). Ulia moztú-do zu! (Olabarrieta 35). Eta han egin otzain hankia móztu (gerran zauritu ondoren) (Olabarrieta 39). Moztu (lizarrari) (Olabarrieta 19). Gero proibiu egin xuain koostixia mozkétia (Olabarrieta 14). Lepúa mozkétia, arbolak urtero lepá-mozkétan ziran (Larraña 15). Eguna móztu (Olabarrieta 2). Eguna mozten zanién... (Araotz 39). Mozkétan gittun (ardiei ulea) (Araotz 2).

Ebaten/ebaitten

OEZean “*ebai/ebaten*” da nagusi. Umerezek ere “*ebaten*”.

OEBan “*ebaten*” ez da erabiltzen.

Gernetako Bittoinak euskara zaharra eta aberatsa hitz egiten du, eta “*ebaitten*” eta “*ebaten*” biak erabiltzen ditu.

Eta gero iria ebaitten euen (Araotz 16). Hortxe txaraan ebaitten zan, eta gero partiu danon artien (su egurra) (Araotz 16).

Baina:

Ira-ebatera (Araotz 16).

“Iria ebaitten”. Baina *“ira-ebatera”*.

Aztartzea merezi du, baina *“ebaten”* da nagusi, bestela, Araotzen ere, guk egindako grabaketetan.

Umerezek *“moztu”* ez du erabiltzen. *“Ebaten”* topatu dugu, *“ebaiten”* edo *“ebagiten”* ez da ageri.

Ebaten deutsa adarrak (Umerez). *Portau gaitian bada honela, nire Illoba, eta ekusiko dogu, nola honria dan gure buruko uliaren antzekua; zenbat eta gehiagotan murmurazinuaren labaiña zorrotzak ebaten daben, hainbat indar gehiagogaz urteten dau berez gure honriak* (Umerez). *San Juan Bautistaren gau leheneko gaberdian beren soruetako kardubak eta bedar dongak ebaten ditubenak, gehiago sortu ez ditezten* (Umerez). *Labaiña zorrotzaren antzeko min dongarik, ez da ere jabuez beterikako min labanik. Min zorrotzak labaiñiaren antzera ebaten badeutsa bateri bere izen edo fama ona, esaten deutsa San Francisco Salesek, ez dagiala galdu bere biotzeko bakia.*

Interesgarria bestalde, *“ebai/ebei”* izena. Izan ere, *“ebai bat”* daukazunean, ez daukazu *“mozketa”* bat; halakorik ez dago OEZe. Hor usaintzen da bien arteko aldea. Lurra ere ez da mozten, baina ebagi bai, *“luebaixa”*. Hobeto ulertzen da lurra *“ebagitea”*, mozte baina.

Tabernatan ere atera daitezke ondorioak, *“kutxilluakin ebai, eta artatixakin moztu”*, esan zidan batek.

ebái iz herida. *Tremendako ebáixa egin otzain, eta...* (Murgixa 5). *Ebáitxo bat egin* (Murgixa 5). *Ebéixa egin xok* (Olabarrieta 7). *Honek billurra emuten dost, ebáixa egitteko be!* (Olabarrieta 2). *Ebáixa egin dau* (Larraña 14). *Ebái bat egin dau* (Larraña 14). *Ebáixa* (Larraña 15). *Ebáitxuak* (Larraña 15). *Bihatxian ebáixa eta dana egin dot kutxilluak ihes egindda* (Olabarrieta 2).

"Xaot", laguntzaile bitxia

Berrikuntza antza du, hasiera batean. "Berrikuntzak" esaten zaie hizkuntza aldaketa berriei. Jatorrizkotik aldentzen diren formak dira.

Baina Zuazok (2006) señalatu bezala, Lazarragak ya bazerabilen antzekorik. Eta gero Amilletak Antzuolan ere bai (1708).

"NOR-NORI-NORK sailean, datiboa "hari/haiei" denean, jao/xao "dio" tankerako adizkiak erabiltzen dira Bergaran, Antzuolan eta Oñatin. Bertako bereizgarritzat jo zituen Jaun Mateo Zabala (1848;57) gramatikariak XIX. mendearen erdian, baina askozaz lehenago, XVI. mendean bertan erabili zituen Joan Perez Lazarraga arabarrak; "Jaun zerukoai emaiten jagot, oi askor geraziarik ..." Deba ibarrean bertan, tankera horretako adizkiak erabili zituen Amileta antzuolarrak XVII. mendean" (124. orrialdea).

Borja Ariztimuñok ikertu zuenaren arabera forma zahar, interesgarri ikertu beharrekoa da (ikusi artikulua, *Beste aditz laguntzaile ditrantsitibo bat Gipuzkoa mendebaldea; ag- erroko formen jatorria eta garapena*).

"Garibairen errefraueta diago: euskara, zakurrak eta ustekabeko beste etimologia batzuk" artikuluan ere landu zuen gaia. Ariztimuñok:

"Eta badirau edo oraintsu arte iraun du, defektiboki bada ere, hizkera batzuetan: cf. Oñatiko xao 'dio', Bergarako ja(o)zu 'diozu', edota Legazpiko hitanoko ñaoan 'nioan', Lazarragaren zukako ñagon 'nion' adizkiaren kide zuzena. Ikus lekukotasun guztiak Ariztimuño (d. g.) laneo eranskinetan".

Umerezek (1805) ez darabil behin ere halakorik. Umerezek ez badarabil, eta Amilletak bai, pentsatu dezakegu Antzuolatik sartu zela?

Baina noiz sartu zen, sartu bazen? Denbora tarte motza zeukan, izan ere. Aita Zabala Frantziskotarrak 1848rako aipamena dakar-eta *El verbo*

regular vascongado del dialecto vizcaíno lanean:

“Tambien en las villas de Oñate, Bergara y sus alrededores tienen un a conjugacion muy particular para la activa de recipiente 3ª persona de singular de los tensos perfectos columna 1ª, y en lugar de “deutsa, deutse, deutzazu, deutzazue, deutzat, deutzagu” dicen yao, yaoe, yaozu, yaozue, yaot, yaogu” (57. orrialdea)

Bi bilakaera daudela ematen du Oñatin:

Deutzat>xat.

Bestea:

Xat>xaot.

Baina Bergaran/Antzuolan, zeintzuk izan dira aldaketa pausoak?

Argibideak falta zaizkit:

- 1) Forma hauen bilakaeran jarraitu diren pausoen gainean.
- 2) Forma hauen eta Ariztimuñok aipatzen dituenen artean dagoen lotura ulertzeko. Halako loturarik baldin badago.

Oraingoz horrela utziko dut.

"Antzeko"

"Antzeko" da nagusi OEZe. "Antzerako" ere esaten da, ez dut aztertu zehazki berdina esan nahi duten, baiezkotan nago baina.

Umerezek biak zerabiltzan:

Esklabuen antzerako bildur santubagaz (Umerez).

Honein antzeko (Umerez). *Honen antzekua* (Umerez).

OEBan beti "antzerakua".

OEZe:

Eraakixa zan pedazua, ipintten xotzan beste antzerako baten telia, eraaki bat, eraakixa hari esaten xakon (Olabarrieta 27).

Izagirrek:

Antzekua (Izagirre).

OEZe:

Antzekua (Fermin Altube). *Antzeko gauzia* (Larraña 14). *Garixen antzekua* (Uribarri 7). *Antzekuak* (Olabarrieta 2). *Nere anae zarrena be antzekua zuan* (Araotz 7). *Karearrixan antzekuak dira* (Arantzazu 8). *Antzekuak* (Olabarrieta 24). *Horren antzekua zan* (Olabarrieta 1). *Oso antzekua* (Berezano 4). *Igualak ero antzekuak ero...* (Araotz 24), *Bustíñen*

ántzekua (Araotz 38). *Ha nere ántzekua* (Urrexola 2). *Bat, anaetan bat formál-ántzekua tuertua zalako, bestiak danak salbajiak* (Murgixa 2). *Honeik ántzekuak dira* (Olabarrieta 27). *Danak ántzekuak dira horreik* (Larraña 4). *Olixo usain ántzekotxo bat* (Araotz 16).

OEBan “*ántzekua*” ez da erabiltzen.

Euskararen poliziak

(Herri guztietan aurkitu daitezke, Oñatin ere badira)

Herritarrek euskara “egokia” darabilten zaintzen aritzen dira, euren aurreiritziek erasanda.

Batzuk diskretuak dira, gutxitan zuzentzen zaie herriko euskara “apurtzen” dutenei.

Beste batzuek “oker esanda” entzuten dituzten forma guztien aurrean hiztunari abisua pasatzen diote, ez dezala gaizki hitz egin, horrela ez dela esaten.

“Hori gaizki dao!” esaten dute. ““Xatei” ez da esaten, “dostet” ebali bihar da”, esaten dute.

Euskarak ezezik, beste hizkuntzek ere badituzte halako jaunak, eta andereak.

Euskararen polizientzat edozein leku egokia da ohartarazpenak egiteko. Tabernetan, kiroldegian, kalean... “Nola onartzen duzue euskara horrela zikintzea!”, diote.

(Polizia ordezkio-koakzio-ndar ere deitu ahal zaie, edo bortxabide-zale; ni ez nago bide horien kontra modu absolutuan).

Ez dira burokratak, administrariak (asko irakasleak bai), doainekoa da zerbitzua; kausaren alde ari dira eta.

Ni ere hartan jardundakoa naiz. Gogoratzen naizenez. Lagun batek “*nik ingo neike*” esaten zuen (bera ere polizia, bide batez esanda).

Halako baten esaten diot “*in neke*” edo “*ingo neuke*” direla zuzenak, baina “*ingo neike*”?

Esaten zuena “egingo nezake” esatearen parekoa zela, oker zerabilela.

Euskara maldan behera amildu baino lehen, Euskararen Poliziak nahiago du esku hartzea, jarrera desgokiak bideratzea.

Mailatan banatzen dituzte hiztunak. Gaizki ari direnak eta ondo ari direnak. Gaizki ari direnei oharrak eginez.

Euskarak hondatuegi euskara izateari uzten dio eta.

Hizkuntzen zuzentasunaz asko eztabaidatu daiteke. Batendako onargarria dena bestearendako ez da.

Okertzat jotzen diren erabilera asko ez dira okerrak, aurreiritziak dira okerrak.

Honetaz ez da ondo hausnartu.

Euskara aberastu, ezagutza zabaldu, herriko euskararen gaineko jakintza transmititu eta zabaltzea, niri ondo pentsatzen zait.

Ez zaidana zuzena iruditzen zenbaiten jarrera da, kaleko elkarrizketak moztzen aritzen direnena (“*ez da esaten “gertu”*”; “*húrrian*” *esan bihar da*””, eta horrela).

Horrela lortzen dena ez da Euskara janzte, aberastea...

Euskararen Poliziaren mezua da:

- 1) Bere buruari autoriatea eman diola ondo zer dagoen juzgatzeko.
- 2) Hiztunak gaizki hitz egiten duela.

Ni Euskararen Poliziaren kontra nago.

Euskararen poliziek -gehienetan- itxura eman nahi duten baino gutxiago dakite euskararen gramatikaz, historiaz, herriko aldaeraz. Hori batetik.

Bestetik, pentsatzen zait besteek gaizki hitz egiten dutela baino, adierazi nahi dutena dela eurek zenbat dakiten euskararen gainean, euren euskara zein ona den. Ez denean.

Hiztunari euskaraz hitz egiteko segurtasuna dantzan jartzen diete. Jasotzen ari den mezua hau delako; hiztun txarra dela, ez dakiela behar bezala euskaraz.

Hiztunak akonplejatzen dituzte.

Garbizaleen ondorengoak dira.

"Aittajauna bat" eta "amandria bat"

Horrela esaten dute Araotzen, baina ez OEZean.

Berrikuntza da, Araotzekoa. Izagirrek Arantzazun ere jaso zuena.

Hitzaren erroaren parte dela “-a”, horrela berrinterpretatu dute. Baina “-a” hori jatorriz artikulua da.

Berriterpretazioa hizkunta aldaketza normala da, bestalde.

“Oñatiko Euskeria”-ko hiztegiko “*aittajuna*” sarrerek ulertarazten du Oñatin “*aittajuna bat*” esaten dela.

Hori gertatzen da ez delako zehaztu forma hori non jaso zuen Izagirrek. Arantzazun.

Honela jarri zuten zehazto:

aittajauna, aittajuna. *Aittajauna bat, hiru aittajauna.*

Nire ustez honela jaso behar da:

aittajun iz, abuelo. Araotzen “*aittajuna bat*” bezalako formak agertzen dira.

Izagirrek honela jaso zuen:

Aittajauna bat, hiru aittajauna. Besterik ez.

Hori dagoenetan hartu eta Oñati osokoa balitz bezala aurkeztu zuten. Baina forma hori ez da ez Oñati osokoa, ez jatorrizkoa.

Horrez gain, “*aittauna*” forma ere askotan agertzen da OEZean.

“Amandria” honela jaso zuen Izagirrek:

Amandria bat, hiru amandria.

Honela Oñatiko Euskeria lanean:

Amandre, amandria. Amandra (Araotz). Amandria bat, hiru amandria.

Nahasgarria da, “amandra” esaten bada Araotzen, “amandria” nongo forma da? Seguruenez biak dira Araozkoak (baina guk “amandre” ere jaso dugu Araotzen).

Izagirreren adibideak Arantzazukoak dira.

OEZean jaso ditugunak hauek dira:

aittäjun/aittäun

Aittäjuna (Olabarrieta 18). Horrein aittäjuna (Larraña 9). Guk aittäjuna betik, oinguak aittäitta aittäjunari (Larraña 2). Aittäjuna eta amándria (Garibai 1). Aittäjuna (Murgixa 5). Aittäjuna (Murgixa 2). Aittäjuna eta bixok (Goribar 1). Aittäjuna eta bixak ibiltten giñan (Goribar 1). Aittäjuna eta amándria (Lezesarri 1)

aittäaun/aittäun

Egin xuan Iñaxion aittäunak (Olabarrieta 22). Aittäaun (Olabarrieta 19). Aittäaunak (Olabarrieta 25). Aittäuna (Berezano 2). Gure aittäuna defuntua faten zan astuan Alabara (Berezano 2). Aittäuna (Larraña 16). Gure aittäuna (Olabarrieta 5). Aittäuna (Olabarrieta 28). Gure aittäuna (Olabarrieta 27). Aittäunak (Olabarrieta 35). Aittäuna (Araotz 2).

aittäjun-amándriak

Hipolitto eta Ximona ziran hemengo aittäjun-amándriak (Olabarrieta 1). Juanmarin aittäjun-amandriak (Olabarrieta 35). Kamelakua eta Aingerukua ziran aittäjun-amandriak (Olabarrieta 29).

amándre

Beste amándre batek... (Olabarrieta 1). Oso amandre politta zan (Araotz 31). Amandre bat, pipati erreten ebena (Araotz 20). Amándre bixoiri (Olabarrieta 2). Oin be esaten dau gurian mutikuak, “amandriá, txarrixa ifñi bihar dot” (Olabarrieta 29). Ez dot meriendau nik, amandriá! (Olabarrieta 29). Amándriak ondo ekixen hori (Araotz). Amándriak (Olabarrieta 4). Gure amándriak (Larraña 6). Gu giñan mouko pillia, eta hantxe amándria kontuak

esaten (sutondoan) (Murgixa 5). Amandriak diranak kontaitten ttue horreik, lenagokuak (Kalea 2). Gure amándriak-eta esaten euen... (Larraña 16). Hori gure amándriak kontaitten eben... (Araotz 21). Amándria bizi izan zan artian amándriak be bai, baiña gero amak (taloak zapaldu) (Uribarri 14). Amándria (Olabarrieta 25). Amándretxua ezautuko dozue ba, Zumalde? (Araotz 27).

Manuel Goitiari bakarrik jaso diogu “*amanrria*”. Ez dut aztertu forma zaharra den edo ez.

“*Aittajunia*” eta “*amandria*” formekin jarraituz, 2025eko urrian, lan hau aurreratuta nuela, Roberto Altunak Hiztegia argitaratu du sarean, aurrez Oñatiko Euskaria-n ateratako hiztegiaren zabaltze eta hobetze lana.

Bertan ematen den soluzioak desberdina izan arren, okerra izaten jarraitzen du.

2014koan ulertarazten bazen Oñatiko Euskaraz “*hiru aittajunia*” esaten zela, 2025ean ulertarazten da lehenago “*aittajunia*” esaten zela, eta gaur egun “*aittajun*” formak ordeztu duela.

Honela:

“Aittajauna. ald. aittajuna. Aitaita. ‘Abuelo’ Lehenagoko ebaleria: Aittajauna bat; hiru aittajauna (Kandido Izagirre). Baiña gaur egun aittajun bat, eta aittajuntxo bat”.

“Amandre,-ia. Amandra (Araotz); Mugagabian amandre nahiz amandria. Amama. ‘Abuela’. Lehenagoko ebaleria: Amandria bat, hiru amandria. Baiña gaur egun, amandre bat eta amandretxo bat”.

“Lehenagoko ebaleria” esanda, ze garaitaz ari da? Zehaztu gabe dago. Eta ez da lehenagokoa, oraindik entzuten da Araotzen.

Lehenagokoa, izatekotan “*aittajun*” da, jatorrizkoaz ari bagara lehenagokoa da eta.

Baina ez da lehen eta orain. Araotzen “*aittajunia*” eta “*amandria*” erabiltzen dira, eta beste auzoetan ez.

OEZean “*aittajun/aittaun*” esaten da, eta “*amandre*”.

OEBan “*aittaitta*” eta “*amama*”.

"Jota"

Eztabaida asko izan dira forma hau dela eta.

Lehen osagaia “jo” da, baina bigarren osagaia ez dakit “eta” den edo “-ta”.

Izatez “jota” ez da berria. Baina erabilera berriak hartu ditu.

Euskararen poliziarendako ez da forma zuzena. Jatorrizko erabilera esparrutik zabalagoetara pasa delako, besterik gabe.

Kalean elkarrekin “trikitx” egiten dutenak dira, “xaukena xauk” okertzat dutenak, “dosteu” promoziotzan dabiltzanak, “jota” onartzen ez dutenak.

OEZean honela agertzen da:

Jota kixkalduta txorixua! (Araotz 36). Jota beatu artian (umea bañeran) (Olabarrieta 2). Oñatittik Zubillagara jota biurturik (tren karrilleko burdina) itxi bihar xuan beruak sailla (eguzkiaren beroak) hori gurian aittak-eta esaten xuain (Murgixa 2). Aramaixo alde hori jota erreta sutan (Gerrako Garrak). Hemen euzen lorok, jóta haustuá (geratu dira) (Olabarrieta 2). Hemen jóta izardittan nabil berotuta ziara (Olabarrieta 2). Jóta apúrtuta latxe izten xok (Murgixa 2). Diarreakin jota ebaitta tipua! (Araotz 36). Jóta maletok buru gaiñetik vuelta (trenean) (Murgixa 2).

Erdarazko “totalmente”-ren baliokidea da OEZean. Aditzei laguntzen agertzen da, adberbio lanetan.

Aditzari laguntzeari utzi gabe, adjetiboari ere laguntzen dio OEB, haren indartzaile lanak eginez.

Jota ona, jota gozua...

Aditzaren ondoan leku konkretu batean agertzen da OEZean:

Jota + aditza + -ta

OEBan bestelako adberbioekin ere ageri da:

Jota ondo.

Badago arazo bat “*jota*”rekin. Arazoa da batzuei arazoa dela iruditzen zaiela.

"Artearte" edo "arterarte"

OEZeaz dezente agertzen da; OEBan ez da batere agertzen.
Osaketari dagokionez, aukera bat hau da:

Artera artian > arteartian > arteartian > árteartian.

Bestea hau da:

Arte artian > árteartian.

Ez dakit bietatik zein den jatorria.

Umerezek "arte bitartean" jaso zuen, ez "artera bitartean".
Gaztelaniazko "hasta entonces"-en parekoa da.

Hauek jasotakoak:

Artearte ez dator (Olabarrieta 2). Bixar arratzaldia txarra (eguraldia), baiña árteartia óna (Olabarrieta 2). Artearte zeian egongo zara? (Olabarrieta 2). Bixar Mirenekin dakot masajia, baiña árteartian... (Olabarrieta 2). Artearte hainbestian egon nitzan, e, eta orduen egin nitzan emozionau (Araotz 15). Eta handik aurrera gura danian, baiña ártearte ezin geikien fan hara (Uribarri 7). Han garbittu nostaín, ártearte ez neben sekula onik izan, harrezkero ba... (Olabarrieta 15). Orduan enterau ziran, árte-arte ez ziran enterau (Olabarrieta

1). *Hogeta hamabostekin (urte) uste dot fan nitzala Ulmara, ártearte, ba, baserrixan eta gero basuan* (Olabarrieta 19). *Egurra akaberan izaten zan, ártearte... (karobia erretzean)* (Uribarri 2). *Árteartian etzindda egon beian, eta... (Araotz 2). Heu trankil bahago neu be bai, ártearte ez!* (Olabarrieta 1). *Gurian ekonomikia el año cincuentaydos-ero ipiñi zan, árteartian eguen subajua* (Larraña 2). *Baiña ártearte* (Olabarrieta 29). *Gerra-ostian etorri ziran, ártearte ez zan etorri (katiuskarik)* (Larraña 4). *Eurak faten diranian fango naiz, árteartian ez* (Olabarrieta 2). *Guk ártearte entzun be ez!* (Larraña 18).

Toponimia

Toponimiak datu interesgarriak batzen ditu. Gero eta zaharragoa leku-izenaren iturria, orduan eta interesgarriagoa.

Artxiboko idazki zaharretan pila bat daude. Lehenengo atentzioa ematen duena da nola gorde diren forma asko berdin-berdin 700 urtetan zehar, 500 urtetan zehar.

Luis Maria Mujikarena da jasoketa eta biltze saio osatuena: *“Euskal toponimiazko materialeak, XVIII alea; Leintz-Gatzaga, Oñati, mendiak”* (Gipuzkoako Foru Aldundia, 1989).

Izan da hizkuntza Batasunik, edo behintzat formen osotsaunaren iraunkortasunik, leku-izenetan.

Idatzi egin direlako? Lur eta negozioetan leku izenen erreferentziak aldaketarik gabe mantendu behar zirelako, jabetza eta ondorengotza kontuengatik?

Ez dakit, baina 1149an Murgia, Berezano, Olabarrieta, Araoz... horrelaxe berdin-berdin idatzi zituzten, duela ia 1000 urteko eskribauak.

Ahazahotransmitituta dezente aldatutairitsikoziren. Administrazioaren kontserbatu arazi dituela ematen du.

Dokumentu zaharretatik baina, kontuz atera behar dira ondorioak, ez dugulako eskribauaren izaeraren berri, ez dakigulako euskaraz zekien edo ez...

Izan ere, esan dugu mantendu direla oinarrian, baina baita oso diferente idatzi ere batzuk: *Onnate, Onaty...*

Datu batzuk tentagarriak dira.

Adibidez 1149ko dokumentu horretako bokal bikoitzak.

Sancho Yñiguez Olaalde (1149), *Osate de Naarria Acenar* (1149).

(Baina testu berdinatorren ez edizio guztietan; Irene zumaldek *Olaalde* eta *Naarria*; Rosa Ayerbek *Olalde* eta *Naharria*).

Beste honetan ikusten dugu “*bide*” hitza elkartuetan nola agertzen zen ordurako, “*bide-*” beharrean “*bida-*”:

Lope Sanchez de Bidaurreta (1149).

(Egia esateko, ez dakit “*bide+aurre+eta>Bidaurreta*” den edo “*bide+hur+eta>Bidaurreta*”).

Beste honetan “*berria*” beharrean “*barria*” agertzen zaigu, ya ordurako mendebaldeko euskararekin lotuz Oñatikoa:

Los cuatro hermanos de Olabarrieta (1149).

Horrelako ondorioak atera daitezke eta gehiago.

Hurrengo dokumentua, kontsultatu ahal izan dudana, ya 1389koa da.

Interesgarriak dira hortik XX mende erdialdera artekoak.

Baina esan bezala, kontuz ibili behar da forma batzuk eskribauak nahita edo ezjakintasunez aldatu zitzakeelako. Aldatu edo gaizki jaso.

Testu zail horiek transkribatzen dituenak ardura handia du bere gain, hizki bat gaizki pasatzeak irakurketa okerrak ekarri ditzake.

Paleografia esaten zaio testu zaharrak irakurtzeko zientziari. Oso zaila da eta oso inportantea euskara aztertzeko.

"Mixkin"

"*Mixkin*" esaten zaio ez duenari behar bezala jaten. Orotarikoak dio Oñatin duen esanahiarekin erabiltzen dela Eibarren, Bergaran eta Antzuolan.

Mixkin, *mixkíña* (Izagirre). "Melindroso en comer", definitu zuen Izagirrek. *Mixkiño*, *mixkíñua* ere jaso zituen.

OEZean:

Hamen asko xagozak mixkíñak diranak, gauza bat emun eta gura ez, beste bat emun eta gura ez, eta... (Olabarrieta 24). *Igualak dira neretako miskíña ero kiliña* (Olabarrieta 27).

Dirudienez esanahaia aldatu zaio euskaraz, jatorrizko gaztelaniazko "mezquino/a"-ri.

Hala ere, bitxia da Uribarrin jasotako hau:

Ez zara hasiko argixa gordeten eta miskínkerixan! (elektrizitatea aurrezten) (Uribarri 12).

Hemen bai, "mezquino"tik hurbilago dago esanahia. RAE: "mezquino, mezquina, *falto de generosidad y nobleza de espíritu*".

"Mezquino" esateko "zeken" hitza jaso zuen Izagirrek. Nik ere jaso dut Olabarrietan. Ez zait askotan suertatu hitz hau Oñatin entzutea.

Zeken, zekéna (Izagirre).

2025eko edizioan Roberto Altunak "zeken" hitzaren esanahia "tacaño" dela zioen, Izagirreri jarraituz.

Nik jaso dudanak “mezquino” esanahia du:

Gure amak esaten eben mouan “da zekénagua!”, ezek ez xau penarik emuten (Olabarrieta 2).

Izagirrek jaso zuen bigarren adibideak (2025eko hiztegian jaso ez zenak) ez dago argi ze esan nahi duen:

Zekenaguak dagoz kentzeeko; están mas difíciles de soltar o desprender.

Ematen du esanahia hau dela: “*se resisten mas a ser soltados o desprendidos*”.

Orotarikoan “*zekenak*” esanahi hauek ditu (denak ez ditut jarriko).

1) “*Avaro*”, “*avariento*”, “*cicatero*”, “*corto, miserable*”.

2) “*Duro*”, “*miserable*” (persona).

4) “*Fuerte, correoso*”. “*Duro. Tierra dura, húmeda y pegajosa*”.

Altunaren definizioa lehenengoaren bidetik doa. Nik jaso dudana (Olabarrieta 2) bigarrenaren bidetik, eta Izagirreren beste adibide hori hirugarrenaren bidetik.

Argitu behar dena da OEZean “*tacaño*” esan nahi duen, “*duro, miserable*” esan nahi duen, edo biak.

Horretarako hiztun desberdinak kontsultatzea komeni da (4-5 hiztun).

“*Mixkiña*” rekin jarraituta, OEZean daukan esanahiaren parekorik ez dauka gaztelaniaz “*mezquino*”-k, “*gutxi, gaizki jaten duena*”.

“*Mixkiña*”-ren sinonimo bitxi bat ere badago OEZ-ean, “*kiliña*”.

Hauek jasotakoak:

Kilin, kilíña (Izagirre). *Kilíña, mico al comer* (Imanol, Olaalde). *Ez dira bapebe kilíñak (bere semeak) jaten onak direla* (Olabarrieta 16). *Kilíña baldin bada? Ba, ez dauela jaten, gutxi jaten dauela, ba kilíña!* (Olabarrieta 27). *Igor da kilíñena* (Olabarrieta 27). *Hau, jaten, badakitzu dakuna oso kilíña* (Olabarrieta 2).

“*Mirriña*”-k antzeko esanahia du:

Mirrin (Azkue). *Mirrin, raquitico* (Izagirre). *Jaátun mirriña* (Izagirre). *Mirriña, gutxi jaten dauena* (Olabarrieta 24). *Hoi mirriñoi* (Olabarrieta 2).

Mirrínddu

Mirrínddu (Izagirre).

Baina ohar bat egin behar zaio hitz honi. Nire ustez, Izagirreren “*mirrin*, *raquitico*” zuzena da, baina “*jaatun mirriña*” (Izagirre) zalantzazkoa iruditzen zait.

Euskaltzaindiak:

Mirrin, *mardula ez dena*, *txikia*, *argala*.

Euskaltzaindiak:

Mirrindu, *mardultasuna galdu*, *mirrin bihurtu*.

Jaten “*miskiña*” dena “*mirriña*” izango da askotan, baina “*jaatun mirriña*”?

“*Miskiña*”-ren eta “*kiliña*”-ren kontrakoa, berriz, “*jatuna*” da. Izagirrek, “*jaátun*”, bokal bikoitzarekin, baina “*jatúna*”, bokal bakarrarekin. Guk jasotakoak:

Jatúna (Olabarrieta 24). *Jatúna* (Olabarrieta 2).

Leku izenekin jarraituta

Proposatzen diren etimologiak askotan okerrak dira.

Horren arrazoia da jolas-kirol moduan hartzen dela egiteko hau.

Hitzen jatorria aztertze inportanteena da jakitea seguruenez ez dugula jatorririk topatuko, bila ibili arren.

Jatorri bila, hurbilpen txikia hobeto da, soluzio miragarria baino.

Hitzen jatorri bila aritzeko ezagutza zabala behar da. Ondoko hizkuntzena, euskal dialektoena, hizkuntzaren (Euskararen) eta hizkuntzen (hizkuntza guztien) hitzen aldaketa-legeena...

Hizkuntzaren historia ezagutu behar da, testu zaharrak ezagutu behar dira, hitzen agerpenaren kronologia, aldaketen kronologia...

Hitzen esanahia (orain hemen, beste herrietan; lehen hemen, beste herrietan).

Horiek gabe hasten da jendea, kirol-jolas modura, euskal hitzen iturbururantz, altxorraren bila.

Horregatik, honetaz pizten diren eztabaida askok ez dute funtsik. Etimologigintzaren joko-arauak ez direlako betetzen (kasurik nabarmenena Iruñea Veleiako eskribuena izanik).

Ez nahastu hurbilpenak, hipotesiak eta baieztapenak.

Baieztapenak egiteko, garbiak izan behar dira frogak.

Sarrera hitz hauek idatzi nahi nituen, aipatu baino lehen nola *Oñatiko Euskeria*-n oker azaldu zen Oñati-ren jatorria.

Honela agertzen da:

“Oñati Gipuzkuako hego-mendebaldian dago. Herrigune osua, mendi berde eta muiñoz inguratuta, ibar zabal batian; konprobauta ezpadago be, hau ei da izen honen esanguria; “muiñoz ugarixa dan lekua”. Oiña; gaintxua, gaiñeria; eta -ti atzikixa, ugarittasuna adierazten dauena”.

“Konprobauta ezpadago be” ohartarazten da lehenengo. Baina gero ondoren hipotesi txalogarri moduan aurkezten da etimologia zalantzarria.

“Ei” diote, baina ez da zehazten non entzun duten (*hau ei da izen honen esanguria*), zeinen hipotesia edo proposamena den.

Leonardo Zabaletari jaso zioten agian? Honela idatzi zuen-eta hark:

“Es lo más probable que el nombre de “Oinati”, que aparece ya en el documento histórico más antiguo y se conserva en el vascuence actual, dentro y uera de su circunscripción, debe su origen a la toponimia vasca, en su significación de “sitio o lugar donde abundan las colinas o prominencias”, de “Oin”, que en toponimia tiene significación de “colina”, y de sufijo abundancial “-ti” (Oñati aldizkaria, “Oñate en los albores de su historia” artikuluan, 1950).

Azalpen-hipotesi honek arazoak ditu:

1) *“Oñati”*-rekin batera, historikoki, *“Oñate”* behin eta berriz agertzen da.

2) *“-ate”* atzizkia ohikoa da euskal leku-izenetan. *Altzate* (Haltz ate), *Garate* (garai ate), *Arrasate*, *Arrate*...

3) *“-ate”* bada atzikia, *“a”* berea du; *“-ti”* baldin bada, *“a”* azaldu beharko da. *“Lizardi”* da, ez *“lizarradi”*. *“Harizti”* da, ez *“haritzati”*... Eta ze azalpen izan dezake *“a”* horren agerpenak, *oin+a+ti>oñati* bada jatorria?

4) *“-ti”* atzizkia, *Oñatiko Euskeria*-n azaltzen den moduan (*“ugarittasuna adierazten dauena”*) problematikoa da bi arrazoiengatik:

4.1. OEZean ugaritasun atzikia *“-dui”* da eta ez *“-di”* (ikusi Izagirre, adibide pila bat daude).

4.2. Ugaritasuna izatekotan, zerena? *“Oin”*-ena? *“Oin”* asko dauden lekua? Normalean ugaritasuna arbolekin/landareekin lotzen da leku-izenetan, ez *“oin”*-ekin.

5) *“Oin”* eta *“colina”* parekotzat jotzeak bestalde, badu oinarririk? Orotarikoa *“pie”* esanahiaz aparte *“base”* esanahia dauka. Besterik ez da agertzen *“colina”*-rekin lotzera garamatzekeenik.

Aparte, leku izenak aztertuta, hauek gunetik txikiak izendatzen dituzte sortze garaian, iturburuan. Gero horietako gutxi batzuk espazio zabalagoak izendatzera pasatzen dira (herri izenak, probintzia izenak...).

Oñatiko lautada osoari “herri izen” bat jartzea, muino askoz inguratuta dagoelako... Hori ze geografok egin zuen? Estrabonen lagunen bat igo zen Aloñara “horra oin asko dituen bailara” esan eta bataiatu ote zuen?

Ez.

Patxi Salaberria eta Luis Mari Zalduak “*Gipuzkoako herrien izenak. Lekukotasunak eta etimologia*” lanean Oñati-ren agerpenak eta jatorria aztertu zituzten.

Interesgarria da han 181-184. orrialdeetan jasotzen dena.

Laburtuz:

-Biak (oñati, oñate) agertzen dira dokumentu zaharrenetatik, eta modu askotara: *Oinati* (1149). *Onnati*, *onatte* (1149). *Onati* (1200). *Señor de Oñat* (1305). *Frontera de Vizcaya e d’Onnate e de Navarra* (1326). *Don Beltran Velaz de Guevara, seynnor de Oynarti* (1355). *Oñaty* (1451). *Honati* (1497).

Beste pila bat ere bai.

Ikusten denez, desfasea dago izenekin. Grafiari dagokion desfasea da. Eskribauak bakoitzak otu zitzaion moduan idatzi zituzten.

Mitxelenaren hitzok jasotzen ditu:

“Quiza tenga aquí el sentido (“Oñaederra” leku izena azaltzeko) “*pie de monte*” que Azkue atribuye entre otros a “oin”. Ese parece ser el primer elemento de Oñate; la dificultad para identificar el segundo con “ate”, como últimamente hace M. de Lecuona (Oñate, 1952.1953) estriba en que Oñati no sólo es la forma popular del topónimo, sino también la oficial antigua, como puede verse en el documento navarro de 1466 que publica F.Arocena en la misma revista”.

Mitxelenak hala ere, dokumentu bakarra aipatzen du, 1466koa. Salaberri eta Zalduak gehiago aipatzen dituzte, eta zaharragoak. Eta haietan biak agertzen dira.

Salaberri eta Zalduak diote ohikoa dela euskal toponimoetan -i>-e aldaketa. Eurak “-ti” atzizkiaren alde agertzen dira Oñati-ren jatorria azaltzeko.

Baina atzizki hori ez da “ugaritasun atzizkia”:

“.. eta -ti beharbada lekua adierazten duen berrekailua, “Barruti, Goiti, Urruti” eta bestetan dagoena”.

Hala izanik, ezin dugu ezer segururik esan, ez dakigu zein den Oñati-ren etimologia.

Baina bietako bat izan behar da. Ez dira biak izango, ezin dira biak izan.

"Txikoplaittuan"

OEZ-ren hiztegia egiten ari nintzela esan nienean, bi lagunek, bakoitzak bere aldetik *"txikóplaittuan"* aber jasota neukan galdetu zidaten.

Ez zidaten *txantxiku, segiru, sur, arpegi, olaazi, illarra, eskutur, ardao, gaztae, eskiñi, maakulu...* halakorik galdetu. *"Txikoplaittuan"* jasota neukan galdetu zidaten, euren etxean esaten zela.

Harribitxi bezala sentitzen zutela igarri nien. Beste batzuek ezagutzen ez zutena, euren etxeko altxorra.

Hitz gehiagorekin ere pasatu zait. Jendeak hitz bitxiak aipatzea, Oñatiko Euskaraz ari garenean.

Eta ez nuen ulertzen zergatik.

Arraroa interesgarria? Batzuetan bai. Beste batzuetan ez.

Zoologikoarekin pentsatzen jarri nintzen. Animaliarik bisitatuenak bitxienak direla, inpresionagarrienak.

Astoak, oiloak, ahuntzak, behiak ahaztu, eta bitxiagoak ikusi nahi ditu jendeak.

Zenbat eta bitxiagoak, erakargarriagoak.

Herri hizkeretako hitzekin bezala.

Beste lagun batek *"komáañ"* aipatu zidan. Ene! Beste lagun batek *"aaparraskillua"* (hau interesgarria da, bitxia izan arren).

Herri hizkeraren enborrak, oinarriak edo zuztarrak begiratu eta erreparatzea inportanteagoa da. Baina ez zaizkigu azterbide erakargarriak iruditzen. Dirudienez.

Bitxikeriak, gutxi entzuten diren formak ondo begiratu behar dira, interesgarriak izan daitezkeelako.

Baina OEZaren parte handiena ez da bereziki bitxia. Edo “*Oñatin bakarrik daukaguna*”. Eta hala ere interesgarriak eta aberatsak dira, euren moduz.

“*Txikóplaittuan*” hitzaren jatorria:

Ettxeko pleittuan>*txekopleittuan*>*txikoplaittuan* (hipotesia).

Ettxeko pleittuak, demandak, bronka edo eztabaidak. Ikusten denez, inportantzia handirik ez du, alde desberdinetatik begiratuta ere. Ohiko osagaiak, esanahi berezirik ez, erdal hitz bat...

“*Komáaño*”-ren jatorria:

Konpaaziño (baterako)>*komáaño* (hipotesia).

Ez du interes berezirik. “*Konparaziño baterako*” askotan agertzen da OEZ, “adibidez” esateko. Honek adina inportantzia du izatekotan.

“*Aaparraskillua*”-ren jatorria ez dakit. “*Apo*” eta “*marraskillo*” agertzen dira forma aldetik lehen begiratuan, baina ez dakit nola lotu esanahiarekin. Horregatik baztertzen dut jatorri hori, printzipioz.

Hitz honek interes gehiago du, bitxia izan arren.

"Siñistu" aditza

Umerezek "*sinistu*", "*sinisketan*" bustidurarik gabe ("ñ"-rik gabe). Eta "*siniste*" (aurrerago aztertuko dut).

Izagirrek, "*siñistu*", "*siñisketan*". Horiez gain, "*siñiskor*" eta "*siñismen*".

Hauek OEZean jasotakoak:

Siñistu be ezin leke egin! (Olabarrieta 2). *Siñisketakua danik be!* (Olabarrieta 2). *Gura badozue siñistu, eta gura badozue ez...* (Araotz 2). *Siñistu ezin leikien moukuak, e!* (Arantzazu 8). *Siñistu baeuen, ero ez baeuen, behintzet libre itxi nindduein, etorri nintzan etxera, eta kitto* (Lezesarri 2). *Siñisketakua baiño haundixagua dok hori e!* (Arantzazu 2). *Ikusten be siñisketan kontuak dagoz!* (Olabarrieta 1). *Eta gaiñera siñistu ez, Vitorixako mediku batek egin nostan* (Olabarrieta 1). *Siñisketan* (Larraña 15). *Vittorixan dentista batek siñistu ez, egin nostan* (Olabarrieta 1). *Eurak predikauten dauen mouen, zuk siñisketan badozu...* (Araotz 2).

OEBan "*siñistu*" "*siñisketan*" formak erabilera zabala dute.

Jasoketen zorroztasuna

Jasoketak zorroztasunez egin behar dira. Baina beti ez dira hala egin.

Ahotsak-en Oñatiko grabaketen transkribapen guztiak (eginda dauden guztiak) eskuragai daude.

Xaot

Ikerleak, hura kontsultatuta, ondorioa aterako luke “*xaot*” formak agerpen dezente dituela (15 inguru).

Ondorioa aterako luke aditz laguntzaile horrek indartsu dirauela OEZean, horrela, “*xaot*” moduan.

Uste okerra litzateke.

Grabaketak kontsultatuta konturatzen gara gaizki transkribatuta daudela, hiztunek ez dute “*xaot*” esaten. Transkribatzaileak “osatu” egin zituen, osatu behar ez zirenean.

Transkribatzaileak badaki OEZean “*xaot*” forma izan dela noizbait. Ezagutza horretatik abiatuta, “*xat*” entzunda “*xaot*” jarri du. Gaizki.

“*Xaat*” entzun duenean (Araozko hiztunei) ere “*xaot*” jarri du. Gaizki.

Transkribaketa fase horretan (abisurik gehitu gabe) hori egitea ez da zuzena. Bide nahasgarrietan sartzen du Oñatiko Euskara Zaharra aztertzen ari dena.

“*Ditxuat*” laguntzailearekin antzeko nahaskila eragin da (aurrerago aztertuko dut), antzeko arrazoiengatik. Osaketaren ulerkera okerrarengatik.

Ahotsak-eko ustezko “*xaot*” formak hauek dira (transkribapena):

Nik nere aittari emun xaoten disgustorik haundixena (Felix Arregi).

Esaten duena:

“Emún-xaten”.

Transkribapena:

“Zumarragako primiari esaten xaot” (Miren Emiemena).

Esaten duena:

“Esáten-xat”.

Transkribapena:

“Zelako barreria edo berjia in xaon” (Miren Emiemena)

Esaten duena:

“Ionek zelako barreria ero berjia ín-xaan”.

Transkribapena:

“Azala kentzen xao” (Baxili Madina), horrela transkribatuta.

Esaten duena:

“Azala kentzen xau”.

Ditxuat/ditxunat

“Ditxuat/ditxunat” aditz laguntzaileak ere oker osatu ziren.

Osaketa zuzena da *“dittut”* idaztea, *“ttut”* beharrean. Badakigu bilakaera hori izan dela.

Dittut>ttut.

Horregatik, *“ttut”* entzun eta osatzea eta *“dittut”* jartzea zuzena da.

“Ditxuat/ditxunat” idaztea okerra da, *“txuat/txunat”* beharrean.

Forma osoa ez delako *“ditxuat/ditxunat”*.

Ez dakigu forma osoa zein den. Baina badakigu ez dela *“ditxuat/ditxunat”*.

Oñatiko Euskeria liburuan:

Ditxuat/ditxonat; ditxuk/ditxon; ditxuau/ditxonagu; ditxuai/ditxonai.

2025eko Altunaren hiztegian:

Hankak laister jasoko ditxuat/ditxonat hemendik.

Altunak takara baten zazpi tanto egin ditxuk/n.

“*Ingo xonau*” ekimenak atera zuen liburuxkan:

(*Di*)*txuat*/(*di*)*txonat*; (*di*)*txuk*/(*di*)*txon*; (*di*)*txuau*/(*di*)*txonagu*; (*di*)*txuai*/(*di*)*txonai*.

Parentesiaren esanahia: esan ez dela egiten parentesi barrukoa, baina forma osoa hori dela.

Iraganeko formak ere oker osatu zituzten. Biak parentesiekin:

(*Zi*)*txuan*/(*zi*)*txunan*; (*zi*)*txuain*/(*zi*)*txunain*.

Inguruko euskaretan “*jitxuat/jitxunat*” modukoak daude.

Hori edo antzekoa da Oñatiko forma zaharra.

Inguruko euskaretan iraganean, “*jitxuan/jitxunan*”.

Hasierako “*j-*” hori Oñatin “*x-*” bihurtuta dago.

Oñatin “*xuan/xonan*” da, eta “*juan/jonan*” ondoko euskaretan (Leintz aldean, eta Bergara aldean).

“*x-/j-*” diferentzia hori agertzen da trinkoetan ere. “*Xakuat/xakonat*” Oñatin, “*jaukat/jakonat*” edo antzekoak ondokoetan.

“*Txuat*” formaren jatorriaren azalpen logikoena hau da:

Jitxuat>*txuat*.

Eta iraganean:

Jitxuan>*txuan*.

Zein da arazoa? Hasierako “*j-*” Oñatin “*x-*” bihurtu zela.

Orduan “*xitxuat*” eta “*xitxuan*”? Ez dira oso “esangarriak”, fonetikoki zailak dira esateko.

Zein zen aurreko forma hori ez dakigu, ezin dugu jakin. Ez dakigulako noiz moztu ziren forma horiek, “*j*” “*x*” bihurtu aurretik, edo ondoren.

Horri gehitu behar zaio jatorrizkoa “*yoat/yonat*” dela, oraindik ere Bizkaian entzuten dena.

y->j-

Ez dakigu ba, moztu aurretik “*y-*” zen, “*j-*” zen, edo “*x-*” zen.

Dakiguna da “*ditxuat*” eta “*zitxuat*” modukorik ez dela inoiz existitu.

Egia da 1980an Maria Carmen Galdosek, Oñatiko Aditzaren Azterketan (Irizar) “*ditxuat*” jaso zuela.

Honela Galdosek:

Dittut, dittuk/dittun, dittuzu, (di)ttu, (di)ttugu.

Ditxuat/ditxunat, ditxuna(g)u/ditxuna(g)u, ditxuai/ditxunai.

Irizarrek iturri desberdinak batu zituen bere lanean.

Jose de Otorak, Leonardo Zabaletak 1920 hamarkadan (eta guk OEZeak) besteak jaso ditugu:

Txuat/txunat, txuau/txunau, txuai, txunai.

Nik uste Galdosek, Oñatiko *Euskeria*-ren eta *Ingoxonau*-ren tauletan bezala, “osatu” egin zuela aditz laguntzailea.

Osaketaren logika hau da:

“*Ttut*” osorik “*dittut*” baldin bada, “*txuat*” osorik “*ditxuat*” izango da.

Iraganekoetan:

“*Zittuan*” (zituen) formatik “*zitxuan*”.

Baina ekuazio hori okerra da.

Horregatik, argitalpenetako tauletan moztutako formak jarri behar ziren: “*txuat/txonat*”, “*txuan/txunan*”... Eta Oñatiko Euskaraz publikatzen diren testuetan ere hauek jarri behar dira.

OEZ-aren formen promozioa

OEZ-AREN forma batzuk berrindartzekoak, bultzatzekoak, promozionatzekoak dira.

Batzuk bultzatzeari zentzua hartzen diot.

Beste batzuk bultzatzeari ez diot zentzurik hartzen.

Forma batzuk eusteko eta promozionatzeko arrazoirik ez dut ikusten, berez irauten ez badute.

Forma oker jakin batzuk zuzentzeak eta egoki erabili arazteak zentzua du. Beste batzuetan insistitzeak ez du zentzurik.

Euskara zale batzuek hizketa forma batzuen aurrean duten iraunarazte grina jarrera kontserbadoreekin azaltzen da, ez bestela.

Ez da eztabaida erraza. Nork esaten du zer?

Ze forma proposatzen diren eztabaidagarria da. Irizpide batzuen arabera egin beharko da. Honetaz hausnartu da? Ez.

Atxintxika, lekaixua, txantxikua, txintxiña, zarramarria, ittua, tarras, narras, daixola, txintxilikaixua, hezi, goaittu... Niretako horiek promozionatzea interesgarria da.

Lexikoaz aparte, izen morfologia, aditz morfologia, azentua, sintaxia... aztertu beharko dira.

Proposamen (kontraproposamen) oso bat egin nahiko nuke (hemen ez, ale honetan ez).

Batuari uzten zaizkion esparruak ere zehaztu behar.

Promozionatzen diren OEZeko elementuak, zertarako promozionatzen dira, izan ere?

Katona-k sarreran hau dio:

“Berkok gure ondare komunekoak dira, denok gutxi-asko erabiltzen ditugunak eta denok jakin beharrekoak”.

Baina eurentako asko ez dira *“denok gutxi-asko erabiltzen ditugunak”.*

“Jakin beharrekoak” ere ez zait iruditzen direnik.

“Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatik hasita erabil liteke”, dio. Hezkuntzan OEZa irakastea idea ona da, arbasoen euskara ezagutuz norberarengan aberasteko. Baina ez indarrera ikasgarazteko, kale hizketan berrerabiltzeko.

Honela dio:

“...bakoitzak bere mailan ikasi eta gero, ahoz zein idatziz erabiltzekoak dira”.

Nire ustez, Katonean proposatzen direnak atzoko hitzak dira, ez biharkoak:

Ostargia, ostondua, erlainua, eulandarra, jaztetxia, errege-bidia, txipeletia, usana, kabilddaria, igaribeia, ibargia, pottua, amentzerata, enkantata, makotuta, aidaatu, aittamena emun, alatu, albenitu, ingiratu, jaaiti, lardiau, lorriñatu, meko egin, seiña egin, txamela emun, gomutia, itena, lakata, martingalia, sapakona, txiribia, urontzia, zarraparria, liñajoilla, pastoretzia, konbidau, gaiñeria, txorrotzallia, ultzegiña, bersuetia, gatzagia, zuritzallia, isuskia, morraillua, puxetia, larrainia, lekuia, marraia, harekia, erpilla, eskortia, olasia, txindorria, haafixia, apapuskia/aaparraskillua, martia, bagilla, garagarria, agorrilla, zemendia, horeia, justuia, oiñaztua, iñuntza, biboria, ohelduia, gizongia, aikolaaria, atxintzikalaria, pelotaaria, igerilaaria, ganauduna, atanbora, egusittako erropia, libra bat, sobaldia, urdiña, aittatu, zaintzailla...

Ezagutzekoak, aztertzeak bai, baina bultzatzekoak, ikasgarazteak ez.

OEBak hartuak ditu-eta dagoeneko ordezkioak Batutik:

Hapixia, txingurria, tximeletia, zapaburua, martxoia, ekaina, uztailla, iralla, azaroa, illargia, ekaitza, trumoi, tximistia, ihintza, mihura, goroldixua, nobixua/mutilaguna), aizkolaria, korrikalaria, pelotaria, igerilaria, abeltzaina, pandera, jaiegunetako erropia, kilo erdi, sobaldia, grisa, aipatu, zaintzailla... esaten dira aspaldi honetan.

Ezin da joera hori kontuan ez hartu.

Aurréztuk' u (OEB). *Harrémandu* (OEB jasoa). *Edan* (ez “eran”) (OEBan). *Atera* (ez etara) (OEBan jasoa). *Ekáitzak harrapo oskun* (OEB). *Buruauustia* (OEB), *ondorixua* (OEB), *ziurtagirixa* (OEB), *nahixau dot* (OEB). *Antólaketan* (OEB). *Íngarrixa* (OEB), *gizákixa* (OEB) (kalean jasota, beste larogetakak jaso daitezke).

Proposamen errealistak, praktikoak egin, egitekotan. Bestela bere kasa utzi, eta Batua esparruak irabazten joango da, berez.

Batutik datozen formak gerarazteak, OEZekoak sartzeko, ez dauka hankarik, ez dauka bururik.

Hizkuntzaren egoera zaharrari purutasunez eustea, oso zaila izateaz gain, ez dakit ondo zein den hori egitearen arrazoia. “Ondo” hitz egin araztea?

Gaizki hitz egiten dutela adieraziz bide batez?

Katona-ren sarreran topatu dut planteamenduaren desegokitasunaren oinarria:

“Oñatin, gaur egun, kalean entzuten diren 10 elkarrizketatik ia 7 euskaraz dira, eta, horietan Oñatiko hizkera entzuten da, gehien-gehienetan. Herriko hizkera hori, ordea, arrotz zaio gureru etorri berria denari edo euskara ikasten hasi berriari”.

Errealitatea da OEBan hitz egiten dutenendako ere, eta gehiengoa dira, arrotzak direla Katoneko formak (OEZari dagozkionak).

Errekuperazio planteamendua egin da, ondarearena, baina elementu errekupegarrien gaineko azterketa eta hausnarketa, aurrez egin beharrekoak, ez dira zuzenak.

Batuak dakarrena ez da ondo hartu kontuan.

Forma horietako asko ikasgaraztea laiarekin lurra lantzea da.

Ez dira bultzatu behar edonola. Aztertu eta kontuan hartu bai, baina kontuz, berrerabiltzeko proposatzen direnean.

Biltegi handi batean pilatutako tresnak alitzira erakuslehoian jartzea da, bestela, ezer aztertu gabe, ezer baztertu gabe, zorroztu konpondu gabe.

Irizpiderik gabe jartzeak ez dauka zentzurik.

Funtzionatzen duten kasuetan, edo beharrezkotzat jotzen direnetan, bultzatu.

Herrian hiru dibulgazio lan argitaratu dira (Izagirrerena ez zen dibulgaziozkoa).

Hauek dira: “*Oñatiko Euskeria*”, “*Katona*”, eta “*Karta jokua*”.

Izagirrereren biltegitik zeudenetan lekualdatu dira, eskukadaka.

Horregatik huts egiten dute dibulgazio lan modura.

"Ez-ezkero"

Baldintzazkoak ezezkoetan egiteko "éz-ezkero" erabiltzen da OEZean.
OEBan ez da erabiltzen.

Holaxen jáso ez-ékero, gero ez dira egoten (Olabarrieta 2).

OEBan honelako zerbait litatzeke:

Hola ez badira jasoten, gero ez dira egoten (OEB).

Ximur-ximur egitten dira, ondo doblau ez-ezkero (Olabarrieta 2). *Ikúsi éz-ezkero* (Olabarrieta 2). *Fan éz-ezkero pena hartzen dau gaixuak* (Olabarrieta 1). *Fabrikara fan éz-ezkero lanera...* (Olabarrieta 24). *Émun éz-ezkero ez daue eraten (ardiek ura)!* (Olabarrieta 2). *Umia ondo égon éz-ezkero...* (Olabarrieta 2). *Jarritta egon ez ezkerro ni jausi egingo nitzake* (Murgixa 5). *Gari-metak egin ez-ezkero* (Oñati).

"Atxillo"

"Atxillo" hitzarekin egin dena, zuzena da? Nire ustez, bai.

Ume-jolas bateko hitza izan da Araotzen. "Atxiki", "lotu", horrelako jatorriren batekoa

"Antxittu" ere kontuan hartzekoa da, lehen osagai moduan

Antxittu, antxiketan dau, alcanzar a una persona siguiendo detras (Izagirre), coger a uno que escapa o va delante (Izagirre).

Azkuek Araotzen jaso ondoren bide egiten hasi zen, "detener" esanahiarekin.

Lauxetak:

Naikun bixi batek darua / ta atxillotuko daunik ez dago (Arrats Beheran lanean).

Orixek:

Hargatik atxilotu nahi zuten (Urte guziko meza bezperak lanean).

Hala zabaldu zen Araozdik mundura.

Prozedimentua ez zen zuzena, fidela behintzat ez, naturala behintzat ez. Hitzari nortasun berria eman ziotelako, "beharra zegoelako"; "detener", "apresar" gaztelaniazkoak zirelako, eta haien ordekoa "behar zuelako" euskarak.

Hitzaren jatorrizko izatea antzaldutik zuten.

Baina ez da ezer gertatzen horregatik, ezta?

Nahiz eta *“detenitu”* esanda ere nahikoa zen, edo *“preso hartu”*. Baina ikusita nola zabaldu den, onartzea onena.

Erdal jatorriko hitz guztiei ordekoa topatzen saiatu ziren garaian (garbizalekeria) desfasea zabaldu zen.

Asmatu behar bazen asmatuz. Sabino Arana-eta gogor saiatu ziren, baina zentzugabekeriaz bete zuten euskara, ulertezina bihurtu arte.

Orain, 2025ean, guztiz zabaldua eta onartuta egonik, *“atxilotu”* onartzea zuzena iruditzen zait.

Izagirrek *“hankaideka”* sarreran aipatu zuen:

“Umeen jolasa da Araozko elizatarian. Lurrean dagoenari, ikutu ezkerro “Atxillo” esaten zaio eta ordutik lotuta dago. Ez lotzeko, elizatariko aulkien gaiñera igotzen dira (Araoz)”.

Aurretik Azkuek (*“Diccionario vasco español, vasco frances”*, 1905-1906) honela:

“Atxillo, voz que dicen los niños en cierto juego al dar alcance y coger al que le siguen”.

“Atxillotu, prender”.

Oñatiko kobazuloak

Oñatiko kobazuloak altxorrez beteta daude. Historiaren orrialdez beteta lur geruzak.

Agertu dira inork imajinatu gabeko garaietako aztarnak.

Baina astakeriak galantak ere egin ziren orain dela 50-100 urte. Formaziorik gabeko jendeak atxurrekin joan eta, hartz-hezurak atera zituen. Eta parean topatu zuten guztia.

Hondamendia da hurrengo indusketak egin behar dituenarentzat.

Zorionez orain prestakuntza jasotako jendea ari da.

Hizkuntzarekin ere egin dira triskantzak.

Afizio-dedikazioarekin tripak ateratzen zaizkio euskararen lurrari. Herri hizkerak deskribatzean, transkripzioak egitean, interpretazioetan, etimologia harrigarriak aurkeztean.

Herri mugimenduko jendeak hartzen du-eta atxurra, EHaren alde edo.

Ez dira kontrol-guneak jarri behar, indusketetan bezala?

Horrela hondatzen dira iker eremuak. Ezin da konparatu indusketa gunetako kalteekin. Haiek konponezinak direlako, milaka urtetako historia-informazioa suntsituz.

Baina jarrera hura nabaritzen da euskararekin ere, jasoketa eta interpretazioetan, irudimenez beteta, zorrotasunaz ahaztuta, altxor bila.

Kobazuloetako indusketa gunetako zorua, poliki, pausoka, irizpide zehatzekin azterkatzen da.

Euskara ere horrela ikertzen bada, igual hobeto ez?

Seguruak izan daitezten aurrerapausoak.

EHUren eta herriko euskara taldeen artean ikerketarako zorroztasun irizpideetarako erdibide edo zubiak behar dira.

Bestela bakoitzak bestea gutxien jarraituko du.

"Hainbaitt"

"Hainbaitt" forma entzun nion Errekalde baserriko Paulori:
Hánbaitt ónduen (ahalik ondoen). Harrituta geratu nintzen.
Bere esanahia "ahalik eta" da Euskara Batuan.

Denbora batera, beste batzuei jaso nien. Ez askori. Gernetako Manuelek:
*Ordubetien hirurogeta hamar, larogei ardi jaizten zien. Eta listo ibilli
biher da jaizten. Al-dala listo zeatik eurak be urten-desioz egoten zien eta ba
HANBAITT azkarren. Eta gero, beheko lanak be buruen eukitten nittun eta
hanbaitt azkarren librautera handik...* (Araotz 2).

Umerezek zerabilela konturatu nintzen gero.

Hainbat luzaruen (Umerez). *Hainbat lasterren* (Umerez). *Haziten beren
umiak hainbat robustuenak eta senduenak* (Umerez). *Hainbat konfianzarik
handienagaz* (Umerez).

Dilema hau da:

Zer egin behin, bi aldiz... agertzen diren formekin? Nola interpretatu?

Ia galduta dagoen animalia bat ikustea bezala delako, espero ez zen lekuan.

Ez balitzaigu parean suertatu, bere berririk gabe geratuko ginateke, daukan erabilera murriztatik.

Grabaketa orduak eta orduak aztertuta hauek agertu zaizkit:

Kargaitteko be, txondorra, onena izaten da, hanbaitt eta zeri gutxien...
(Arantzazu 8). *Hánbaitt azkárren librautera handik* (Araotz 2). *Hánbaitt agúruen* (Olabarrieta 1). *Kamiona sartu hánbaitt beéren eta...* (Larraña 4).

Inguruko herrietan. Toribio Etxebarriak Eibarren, *“albait lasterren”*.
Mogel markinarrak *“albait handiena”* (XIX mende hasiera).

Elexpuruk Bergaran *“albailen”*.

Espezia katalogatuta geratzen da Oñatin.

OEB *“alik eta”* esaten da, Batutik hartua.

Geurea denaren arroztea

Argitalpenetan aurkezten zaigunean herriko euskara (geure gurasoena, aittajun-amandreena...) eskuetara iristen zaiguna arrotza zaigu OEBa hitz egiten dugunoi.

Hiztegi moduan, gramatika moduan... aurkezten zaizkigu. Eta arrotz zaizkigu.

Azkue, Izagirre, Oñatiko Euskeria, Katona, Karta Jokua...

OEZa Berriarekin alderatuta desberdina da, etena dago batetik bestera. Baina horrek ez du esan nahi OEZ ulergaitza, arraroa denik guretako bere horretan.

Pasarte batzuk aurkeztuko ditut hori frogatzeko.

Pasarte 1, Olabartarrak liburutik (Eulali Urzelairen kontaketa)

"Ibiltten ziran hemengo aitta (Pedro), Murgialdaiko tio Dionixio, eta Sustiabekuak, eta Kortabarrikuak, danak ibiltten ziran txondorrek egitten. Orduan txondor asko egitten ziran! Gure mendixan hemen txondor asko egitten zittuain orduan epoka hareittan, gere aittak-eta be bai.

Aittajuna zan Hipolitto eta amandria Ximona. Aittajuna Amiñokua eta aman dria Fánpuena uste dot zala, seguru ez dakitt, baiña nik hala dakot entzueria neuk... Aittajuna gerra denporan uste dot hil zala. Aittajuna ikazkintzan ibiltten zala esaten eben amak, eta aitta be ikaz kintzan ibiltten zan aittajunakin... Nere aittak eta amak eta kontauta, guk gauza asko holaxe dakigu.

Euskaldun netuak ziran: Guk aittajuna eta amandria ez gittuan ezautu hemenguak, baiña haik be ziran euskaldun netuak. Eta gurian aittak esa ten eben: "euskeraz hemengo mouan egin bihar xonau, e!.

*Gurian hemen erderaz amak baekixen, baiña aittak ez ekixen bape!
Hemen erderazkuak (erdeldunak) etorten ziran estremeñuak, eta hemen
Imittolan be bizi izan ziran estremeñuak, lau famelixa; aittak ezin entendi eta
hara fan bihar zanian "heu fan hai!" esaten nontan; hak entendi zeozer bai,
baiña gutxi".*

Pasarte 2, Araoztarrak liburutik (Amparo Zumalderen kontaketa)

*Nere akuerduan baten Araotzen bai, euakotzien hasi eta hurrengo
astelehenera arte, sermoiak entzun goizien, gero eguardixan, atzaldien...*

Segiru elizan. Maiñatxo bat gauza entzun gittun...

*Oin holako gauzarik ez da entzuten eta ez dakitt ba nik, Jangoikorik be
daguen ala ez daguen, ez daguela be esaten daue-eta...*

Baiña lenaa sermoiak...

*Frairia etorten zan zeien, Erramu Zapatuan etorri eta egoten zan hiru
egunien. Kontzeziñuetan be etorten zan frairia. Kandelaetan be bai, uste dot,
zapatuan atzaldian etorri eta domekan sermoiak egittera... (Sermoietan) esan
gogorak egitten zittuen, hola pulpittuai ezkiña jota.*

*Ba, ez dakitt zenbat urte dien hemen, Araotzen, misiñuak egon ziena.
Bastante urte. Padre Garmendia egon zan orduen hemen; baiña sermolari
gogorra, e!*

Baiña orduko konturik ez da (dago) oin.

*Orduen domeketan mezetara derrigor fan biher izaten zan; oin berriz
bapez! Gaztiak be ez diela faten, esaten daue. Oin bautizau be gutxi egitten
diela. Ezkondu, oin, aiuntamentuan egitten diela gehixenak...*

Lenaatik oso diferentiak (gauzak).

Ez dute zailtasun berezirik, OEZari dagozkien arren.

*Argitaratu diren lan horietako euskara aldiz, aurkezten den moduagatik,
oso urruneko zaigu.*

Azkuek Oñatin jaso zituenak

*Abadiñau, aiko, aist, aketo, akitika, albaiñi, aldaar, antixon, antxitu,
apapuzka, apota, aserotu, askineko, asoin, atalo, atsagon, atziar, azalurratu,
basasto, belaunarri, berdantza, berga, bisustu, bonburu, burtetz, burtxirrika,*

diamutxua, dasagar, diaztu, edegin, egusai, elae, eldekon, elder, elkortu, enemiena, enparau, eramai, erbatz, erlastar, eromai, erpil...

Edozein beldurtzeko modukoa.

Izagirrek jasotakoak

Lastamin, lazkixao, lastaide, lastamin, latrontxa, laukutz, lauorrittu, laurkittu, lausiko, leako, lebel, leiztarkerixa, lepaatu, lepara, lepo-maala, lexi, lexontzi, lika, liñazi, lirdika, modutu, mokotx, monjagei, moñarratu, mordaza, mordollo, mordontxilla, morikilla, murku, morraillu, morrasaaria, morrondu, mortotxa, mosala, moskorro, motura, motxarda, moxal, moztzaila, mun egin, mukiikixo egon, ziaartautu, ziarra bat, zikirri makarria, zimitza, zinbriña-lurra, zoi, zoko egin, zopizaartu...

Oñatiko Euskaria-koak

Bargasta, barrabas bedar, basilloi, beata, bedarreta, begi-niñu, belauntesi, belegi, belun, belustu, bendian, berbagin, berbalots, berjel, betagin, erasla, erbilo, erdu, ereintzalle, erralde, errekusa egin, ibilgura, ibilkor, ibilkaari, idaur, idigei, Idulenti haize, ikasgra, ikasibave, iñusmota, iñutume, iparbiso, ipi apa jakin, ipizki, ipiztixa, irrirtu egon, irrirtu, isilpoltsa, isuski, ittarrate, ittendu, itteuli, ittuatzur, ittuinduu...

Katona-koak ikusi ditugu aurretik.

Karta jokuan jaso zirenak

Agua neurri euki, alanbradan ibilli, ataju egon, beruena kendu, bidia hausu, buruzuti egon, esne bitzetan egon, irrirtu egon, jantzi ederra euki, jera jeraka ibilli, jo ta ma geratu, justurixan ibilli, gantzak euki, hagiñak bardindduta euki, oillo narrua egin, marmazittan ibilli, mukukixo egon, lan egin, tuna egin, trikitx egin, txorietxe geratu, zaixo egon, zankarrankan ibilli...

Neskatala-mutikoak beldurtzeko modukoak dira. Hori da transmititu nahi diegun ondarea?

Ematen du alemanaz ari zaizkugula.

Norbera identifikatuta sentitzeko zailak diren formaz josita daude.

Filologoendako direnak herritarrendako baino.

Ondarearen aukeratu behar da, zabaldu baino lehen. Bestela, “*zer da hori?*” esango dute neskatala mutikoek, hitz horiek ikastea proposatzen edo derrigortzen dietenean.

Olabartarrak eta *Araoztarrak* lanetako testuak argi ulertzen dira, euskara desberdinak badira ere, kontaketa baten barruan egonik, forma ezagunez inguratuta daudelako, eta ez bata bestearen atzean ezezagunak direnekin (hiztegiaren formatuak ere ez du laguntzen).

Kuriosoa da, Umerezek (Azkue baino 115 urte lehenago) ez duela halako sentipenik eragiten. Bere testuak ia osorik ulertu ditzake OEBa hitz egiten duen batek:

Jarraitu egiozu bada, nire illoba, fintasunagaz zeure nekazaritzaiari, eta estimau eguizu ofizio santu hau, Jaungoikoaren eskutik gure lenengo gurasuak errezibidu ebena dan legez, Paraisuan plantauba izan zan instantetik.

Sinistu egizu dala ofiziorik egogiena gizonak bere salbazinoko azken fina lograitako. Eta Jaungoikuak emuten badeutsu seme edo alabarik, nik deseo deusudan legez, ez zaite detenidu diskurritan zer ofizio edo destino emungo deustezun; baizikan etara egizu nekazari egiazko batzubek, instruitan dituzula ondo, ofizioak premina dituban partida guztietan.

Ugaritasuna eta alperkeria dira mundutarrak ezin gehiagoraiño estimaitan dituben prenda eta ditxa bi. Baiña ugaritasunari eta alperkeriari beti lagunketan deuste salbazinoko azken fina lograitako peligru guztiz handiak; bada Zeruko subak erre zituban Sodomako eta Gomorrako jentiaren galdu bihar guztia sortu zan, Ezequiel Profeta santubak esaten deuskun legez, ogiaren asebate eta abundanziatik, eta beren eta euben alaben alperkeriatik. Eta nekazaritzako ofizioak gogo onagaz jarraitu ezkerro librauuko zaitu abundanziatik eta alperkeriatik.

"Surra" edo "suurra"

Orotarikoak:

“La forma casi general, salvo en vizcaíno, es *sudur*. En la tradición vizcaína hay casi exclusivamente *sur* o, menos frec., *suur*”.

Landucciok (1562, Arabako Euskara):

“*Surra*”, “*surr handia*”, “*surr zapaldua*”.

Umerezek:

Usain egitia surrakaz (Umerez).

Azkuek:

“*Sur-mintz*”, ternilla que divide las fosas nasales (Azkue).

“*Surrítxi*”, constipado (Azkue).

Izagirrek:

1) *Suur*

“*Súur*, *suúrrra*” (Arantzazu). “*Suur-zuluak*” (Arantzazu). “*Súur*” (Araotz).

2) *Sur*

Surra (Izagirre, Jaturabe). *Surra* (Izagirre, zehaztu gabe).

Sur-mítzak, el hocico del cerdo (Izagirre). *Sur-mitzak*, donde se pone la anilla para sujetar al vacuno (Izagirre).

OEZean:

Súrra (Izagirre). *Surpeia* (Koldo zumalde). *Maixú-Baltzak zigarrua súrrian sartúta ibíltten ebela, pentzau zelako bisiosua zan!* (Larraña 9). *Súrra bístan dala (maskarilla gabe)* (Olabarrieta 2). *Súrra tapauta* (Urrexola 1). *Súrra luzia eukalako* (Olabarrieta 7). *Súrra* (Araotz 16). *Súrra* (Olabarrieta 21). *Surr-azpixa* (Araotz 21). *Súrraz* (Araotz 16). *Súrroi* (Olabarrieta 2). *Surr-ónduan* (sudur ondoan) (Olabarrieta 2). *Surpéioi* (Olabarrieta 2). *Honek súrra harrapo ezker...* (umeari esanda) (Olabarrieta 2). **Súrrak:** *Súrrak beteta mokuakin* (Olabarrieta 2). **Sur-míntz:** *Sur-míntz-zaatia* (Olabarrieta 21). *Sur-míntza da súrreko oneza daguenian, katarra ero zea dakozunian, súrra zerrauta eta, pikorra eta...* (Olabarrieta 2). *Sur-míntza* (Olabarrieta 7)

Pentsatu dezakegu Izagirrek gaizki jaso zuela (*suur*), edo ondo jaso zituela eta biak izan direla OEZean.

Behintzat Orotarikoak dio eta, badakigu biek dutela tradizioa euskaraz, “*sudur*” eta “*sur*” formek.

"Surra" eta "tontorra"

"Eskutur" esaten zaio gaztelaniazko "muñeca"ri OEZean (Araoztar bati *eskúittur* jaso diot baina hobeto begiratu nahi nuke).

OEBra "*eskúmuturra*" sartu da Euskara Batutik.

-*tur/-tor/-sur/-txur* formak ageri dira Oñatin "punta" edo "saliente" esanahiarekin. Horrek pentsarazten du "*eskutur*" ez dela "*eskumutur*" hitzaren mozketaketa.

Bilakaera hau okerra dela:

Eskumutur>*eskutur*.

Bakoitza bere aldetik sortu da (hipotesia).

Batean bi elementu daude, "*esku*" eta "*tur*", eskuaren punta gunea adierazteko.

Esku + tur>*eskutur*.

Bestean "*esku*" eta "*mutur*".

Esku mutur>*eskumutur*.

"*Mutur*" hitzaz:

Buru + tur> *burutur*> *butur*> *mutur* (hipotesia).

Honen arazoa da "*mustur*" hitza, tradizioa duena.

Mozu + tur>*mustur* (hipotesia).

Bi hitzen bi sorrera beregaina? Konplikatuégia dirudi.

Izagirreraren "*mutxurra*" ere kontuan hartzekoa da:

Mútxur, *mutxúr* *etara*, el extremo superior de la carbonera. *Mutxurra etara*, sacar la punta o extremo superior a las "metas" o montones de hierba.

Garí-mutxur, montoncito de 10 haces tiesos. Txondár-mutxurra, la carbonera pequeña (Izagirre).

“*Sendor*” eta “*txondor*” hitzek ere “-*tor*” elementua dute. Lehenengo elementuaren esanahirik ez zait otutzen. Bata bestetik datorrela planteatzeko modukoa da, ama- alabak direla.

Sendor > *txondor* (hipotesia).

Ohikoa bilakaera da euskarán (*zakur*>*txakur*, *zerri*>*txerri*...).

“*Txondar*” ere agertzen da OEZean Izan daiteke honela ere.

Txondar>*txondor*? Hala balitz, aurrekoa baliogabetuko luke, hor ez legoke “-*tor*” elementurik.

Ikusi ditzagun agerpen gehiago.

OEZean, eta mendebaldean orohar, “*sur*” (ez “*sudur*”).

Ez dago argi bilakera hau izan duenik.

Sudur>*sur*

“*Sur*” hitza bera nahikoa da “*nariz*” adierazteko. “(*Aurpegiko*) *sur*”. “(*Punta, saliente*) *de la cara*”.

Multiplikazioz sortua izan daiteke “*sudur*”.

Sur+*sur*>*sudur* (hipotesia).

Beste hipotesi bat (ausartegia?).

Ur + *tur*> *itur*? Zona, lugar saliente del agua.

Gehiago,

Murgisur leku izena (1489an).

Baserri hori Murgia auzoko puntan dagoena da “-*tur/sur*”-ean.

Gero:

Murgisur>*Murgusur*.

“*Aitzur*” hitzean?

Haitz + *sur*> *haitzur*.

Esanahi aldetik ez du zentzurik. Haitzaren punta? Aitzur batek zer dauka “haitzaren puntatik”? Deskartzeko.

Ipúrtxuntxur OEZean ipurdiaren punta da.

“*Txuntxur*” hitzak “*tontor*” hitzera garamatza. Multiplikazioa?

Txurtxur>*txuntxur* (punta) (hipotesia). Edo “*tor* + *tor*> *tontor*” (hipotesia)

Izagirrek:

Txuntxurra, el monton piramidal de helecho; *ira-txuntxurra*.

Txuntxúrthu; *metiau txuntxúrketako*; para sacar punta a esta meta.

Mendítxuntxur, las crestas o los picos de los montes (Izagirre).

Ondorio segururik ezin dut atera. Hipotesi moduan esaten dut euskarak orain autonomia ez den elementu bat izan zuela noizbait “punta” edo “saliente” esan nahi zuena, “*sur/txur/tur/tor*” moduan iritsi zaiguna.

Agerre

Agerre izeneko bi baserri daude Oñatin. EHan beste pila.

Baserri izenak askotan aurrez leku-izenak ziren, eta gero leku hartan eraikina jasotakoan, etxeak lekuaren izena hartzen zuen.

Baserrien izenetatik, gero, apeliuak sortu ziren.

XVI mende aldeko dokumentuetan apeliuak esan nahi zuten non jaio zen norbait.

Joseph de Agerre-k, esan nahi du Joseph duela izena eta Agerren jaio dela.

Joseph Perez de Agerre-k, Joseph duela izena, Pero-ren semea dela eta Agerren jaio dela.

Horrela jakin dezaku garai jakinetan ze baserri etxe zeuden, ordurako.

Eta ordurako bi Agerre zeuden (XV. menderako Oñatin, lehentxoago ere bai).

Agerre/Agirre baserriak “*leku agerian*” edo “*leku argian*” daude.

Bi hitz hauek (*ageri*, *argi*) antz susmagarria dute forman, eta esanahian ere bai.

Leku ageria leku argia delako.

Oñatin ditugun bi “*Agerre*”-ak (Berezaokoa eta Araozgoa), biak errekatik aparte, gorago, leku argi agerietan daude.

“*Izagirre*” leku-izena ere Oñatikoa (Murgikoa) da. Gero “*Ixiar*” bihurtu da (*Ixiar Goikua*) geratu da.

Juan de Aizaguirre (1514) .

Haitz + agerre>aizagerre>aizagirre>izagirre>izair>iziar>ixiar.

Argittu, agertu, agiri, argi... Hauek guztiak daude OEZean. Armiarma sare edo laberintu modura.

“Argittu” aditzak bi esanahi ditu OEZean. Esanahi bat *“alumbrar”* da. Bestea *“agertu”*.

Bataren osaera:

Argi+tu>argitu.

Bestearena:

Ager+tu>agertu>agirtu>argitu.

Izagirrek:

Ez da argíketan, no aparece (Izagirre). *Argittu da ha aparecido* (Izagirre).

OEZean:

Ebaten hasi dira eta argíttu dok pipia gaztaa baten! (Araotz 2). *Bizi diranak argíketan dirala!* (Olabarrieta 24). *Derrigor biharrian argíketan nintzanian hotz egitten notzan* (Araotz 2). *Betibe argíketan ttuk (sugekumeak) pareta eskiñatan-eta* (Olabarrieta 24). *Itxera ez da argíttu onddiok* (Uribarri 9).

Umerezek bere bi lan marduletan behin bakarrik erabili zuen *“argitu”*, inoiz ez *“agirtu/aguirtu”*. Eta sarritan *“agertu”*.

Baina erabili zuen aldi bakarrean, ez dago argi *“alumbrar”* esan nahi duen edo *“agertu”* esan nahi duen.

“Iñork iñolako moduz (diño) engaiñau ez zaiela. Ez da Jesu Christo etorriko gu juzgaitara, etorri baiño lehenago (Fede santubaren falta, eta Eliza Santaren persekuzinoa); eta ARGITU baiño lehenago pekatubaren Gizona, kondenazinoko semia” (Umerez, Osaba baten).

Nola jakin dezakegu zer esan nahi duen Umerezek? Hurbilpena egiteko modua da Bibliara jotzea, Umerezek itzuli egin zuelako (Tesalonicenses 2, 3).

Bi itzulpen begiratu ditut:

1) *“Nadie os engañe en ninguna manera; porque no vendrá sin que antes venga la apostasía, y SE MANIFIESTE el hombre de pecado, el hijo de perdición”.*

2) *“Nadie os engañe en ninguna manera; porque no vendrá sin que antes venga la apostasía, y SEA REVELADO el hombre de pecado, el hijo de perdición”.*

Dirudienez, Umerezek “argitu” dioenean “agertu” esan nahi du.

Orotarikoak aipatzen du “agirtu”. Honela:

“La forma “agirtu” se encuentra en textos vizcaínos (RS, Barrutia y Arriandiaga), en Lazarraga y en algunos alto-navarros (CatUt y el autor de origen alavés Luzuriaga)”

Testigantza zaharrak dira.

Pentsatu daiteke:

Agirtu>argitu.

Hala izan bada, bigarren olatu batean, “argitu”-k bere bidea egiten jarraitzen zuen bitartean, Oñatira eta inguruetara “agertu” iritsi zela pentsatu dezakegu.

Agertu>agirtu>argitu.

Eta gero atzera berriro “agertu” iritsi zela.

Eta denbora batean biak erabili direla.

OEBan “agertu” da erabiltzen den bakarra.

“Agertu” Umerezek:

Eguzkiak agerketan ditubenian beren arpegi izugarriak (Umerez). Txarri erria baiño harruago agerketan diriala (Umerez). Agertu zanian (Umerez).

Izagirrek:

“Agértu agérketan”, aparecer baina gero adibide bitxia; “Diferentziarik ez neutzan agerketan”, no le encontré diferencia (Izagirre).

OEZean jasotakoak:

Tipo bat agertu zan han, eta... (Gerrako Garra). Hona ez dira agértu be egin (Olabarrieta 1). Beste lanen bat agértuko al da! (Olabarrieta 2). Hobia agértuko ete dan! (Olabarrieta 2). Ez da agértu onddio txakurra (Olabarrieta 1). Baiña bestela Ttar ttar ttar akordau barik despistauta etorten zittuan erbixak aurrekaldera tapa igual agerketan zittuan (Olabarrieta 19).

Guztion jatorriari dagokionez, auzia bi hitzen artean jokutzen da:

Agerre, leku ageria/agiria.

Eta “argi” (luz).

Zein da bietatik lehenagokoa. Zeinetatik dator bestea?

Leku agiri, leku argi?

Olaaldeko Imanolek OEZean jaso zuena interesgarria da.

Argíuna (basoan) (Imanol, Olaalde).

Esanahia da soilunea, argia sartzen den lekua, agerian dagoena.

Agerian dagoena, leku argia da.

Baina “argi” dator “agiri”-tik, edo “agiri” “argi”-tik?

Argi>agir/ager?

ala

Ager/agir>argi?

Ez dakigu, zentzuzkoa ematen duen arren *agerre/agirre* zaharragoa izateak “argi” baino, leku izen moduan oso zaharra da eta.

Sareak dio dokumentatzen dela 850 urterako, Clavijo-ko Batailan. Nahiz eta sarean, zer ez da agertzen?

Bokal bikoitzetatik aditzak

Bokal bikoitzetatik batzuk izenetatik eratortzen dira, aditzak sortuz (adibidez, “gorríñaatu”, “gorríña” izenetik).

Izagirrek asko jaso zituen. OEZean dezentz agertzen dira, baina gutxitzen joan dira. OEBan apenas agertzen diren.

Zuazok ez zien leku askorik eskaini, “-atu” atzizki bezala deskribatu zituen.

Mitxelena harritu zen:

“Resulta extraña la vocal larga o geminada que presentan en hablas vizcainas participios denominativos derivados de temas en -a; kopetaatu, kordaatu... (Izagirre)”, (Mitxelena, FHV, 114 orriadea).

Izagirreren hiztegia argitaratu gabe zegoen artean, eta artikulatu batean erakutsitako formak dira Mitxelenak aipatzen dituenak.

“-a” amaieradun izenei “-atu” aditz atzizkia gehituta sortzen dira forma hauek.

Baina atzizkia izatez “-atu” da, edo “-tu” da? Ez dago argi.

OEZean:

Gehixenak gorríñaatuta aurten (tomateak) (Olabarrieta 24). *Pillaatu* (Olabarrieta 19). *Kardaatuta* (Olabarrieta 1). *Boldaatu* (Olabarrieta 5). *(Gaztaina gehiago ez dut nahi) bestela tripak atzera be haizáatuko xat* (Olabarrieta 2).

“-a”-z amaitzen ez direnean

“-a”-z amaitzen ez direnean “-tu” da atzizkia.

“Iiskotu” da eta ez “iiskoatu”.

Izagirrek:

Iiskotu (Izagirre). *Zalótu* (Izagirre).

OEZeak:

Tontótu (Olabarrieta 29). *Torrétu* (Olabarrieta 2). *Lelótu* (Olabarrieta 2). *Zelébretu* (Olabarrieta 2). *Nanótuta* (Larraña 9). *Geiztótu* (Olabarrieta 1). *Geldótu* (Larraña 9). *Kakótu* (Arantzazu 6). *Moltzótu* (Olabarrieta 2). *Alétu* (Olabarrieta 27). *Berotu* (Larraña 14). *Gaixotu* (Olabarrieta 1). *Gizáajotu* (Olabarrieta 2). *Harrótu* (Olabarrieta 35). *Garbíttu* (Olabarrieta 1). *Gutxíttu* (Olabarrieta 19). *Gaizkíttu* (Olabarrieta 27). *Goríttu* (Urrexola 1). *Gorríttu* (Uribarri 2). *Haundíttu* (Larraña 15). *Mentútu* (Larraña 6). *Narrútu* (Olabarrieta 19). *Moútu* (Olabarrieta 1). *Sútu* (Araotz 2).

Eta beste pila bat “-tu/-du” rekin; *landu*, *zenzendu*, *gizendu*, *ondu*... Askok dira.

Hauetan “-tu/-du” da atzizkia, ez “-atu”.

Kasu batzuetan “-atu” gehitzen da, eta aurreko bokala berdintzen du (asimilazioa)

Hitz elkartuetan ere badira halakoak:

Besáartia (Araotz 16),

Beso + artia > besáartia.

besáazpixa (Olabarrieta 2).

Beso + azpixa > besáazpixa.

Izagirrek:

Lepo, *lepaatu* (Izagirre). *Akulu*, *akulaatu* (Izagirre). *Heze*, *hezaatu* (Izagirre). *Koipe*, *koipáatu* (Izagirre). *Hauspo*, *hauspáatu* (Izagirre). *Maitte*, *maittáatu* (Izagirre). *Hostro*, *hostráatu* (Izagirre).

OEZean:

Haize, haizáatu (Olabarrieta 1). *Olixo, olíxaatu* (Oñati). *Kimu, kimáatu* (Olabarrieta 1). *Laiño, laiñáatu* (Imanol, Olalde). *Berde, berdáatu* (Olabarrieta 35).

Ez dago argi. Biak elkarrekin ageri dira “-tu” eta “-atu”, irizpide argirik gabe bakoitzaren agerpena zehaztuko lukeenik.

“-a”z amaitzen direnetan ere “-atu”

Izagirrek:

Garatxillaatu (Izagirre). *Makíllaatu* (Izagirre). *Mailláatu* (Izagirre). *Metáatu* (Izagirre).

OEZean:

Pilláatu (Uribarri 7). *Gorriñaatu* (Olabarrieta 24). *Kardáatuta* (Olabarrieta 1). *Boldáatu* (Olabarrieta 5). *Boldaatu* (Larraña 2). *Kanikaatu* (mozkortu) (Oñati). *Kakáatu* (Olabarrieta 2). *Lumáatu* (Olabarrieta 1). *Brintzáatu* (Olabarrieta 27). *Bringáatu* (Olabarrieta 14). *Laixáatu* (Olabarrieta 5). *Trangáatu* (Uribarri 7). *Grasáatu* (Olabarrieta 2). *Erráillaatu* (Araotz 30). *Trangaatu* (Araotz 4).

Zein da atzizkia orduan? “-tu” edo “-atu”? Ala biak? Hori ematen du.

Horregatik idatzi ote zuen Mitxelenak idatzi zuena:

“Resulta extraña la vocal larga o geminada que presentan e hablas vizcainas participios denominativos derivados de temas en -a; kopetaatu, kordaatu... (Izagirre)” (Mitxelena, FHV, 114 or)

Oñatiko Euskera-k: “-atu akaberia dakoin aditzak -aatu egitten daue”. Horrela itxi zuten auzia. Baina nahasia da hori. Izan ere, zeintzuk dira “-atu” akabera dutenak? Kontraesankorra da. Edo “-atu” akabera dute edo “-aatu” akabera dute.

Batu, jokatu, konturatu, obatu, bukatu, txupatu, beraskatu, opatu, osatu, sakatu, salatu, sendatu, urkatu, urratu...

"Xaot"

"Xaot" forma noizkoa den ez dakit.

Azkuek *Morfologia Vasca* lanean (1923-25 urteak) jaso zuen, 564-565 orrialdeetan:

"En un rincón guipuzcoano del dialecto B (vizcaíno), Oñate y Anzuola y tratándose de flexiones de tercer grado "a él", se dice ahí *ekarri xao*... "Le he dicho" *esan xaot* por *esan deustsat*, *guk esan xau* por *esan deustagu*, se lo hemos dicho, por *ekarten badautso*, dicen *baxao*, si se lo traen" (Leonardo Zabalak egin zuen Oñatiko jasoketa).

Baina hori ez da bateragarria Frai Bartolome Zabalak aipatu zuelako 70 urte lehenago, Oñatiko formatzat.

Eta Zabalak baino 50 urte lehenago berriz, Umerezek ez du halakorik erabiltzen: *deustsat*, *deutsa*...

Baina Zuazok Lazarragak zerabilen antzeko forma bat aipatzen du.

Ariztimuñok ere "xaot" zahar bat aipatzen du.

Orduan zertan geratzen gara?

Oñatikoa agertzeko bi aukera daude. Bat Antzuolatik sartu izana. Amilletaren doktrinan (1708an) antzekoak agertzen dira.

Bestea Antzuolaren eraginik gabe aditz laguntzailearen mozketagatik agertu izana.

deutso>*tzao*>*xao*? (nahiz eta Umerezek "deutsa").

Baina aldaketen ordena zein den ez daukat argi.

“o” noiz sartzen da eta nola?

Behin horietako bat sortuta besteak analogiaz sortu zitezkeen, *xaot*, *xao*, *xaozu*...

Baina ez “*xaou*”, “*xaoue*” bezalakorik (Oñatiko Euskertia), hauek ez direlako inoiz existitu.

Leonardo Zabaletaren hitzak kontuz irakurri behar dira, litekeena denez bere nahiak nahastu izana herrian entzuten zenarekin:

“En el cuaderno del “Erizkizundi Irukoitza” se anotó, para «si él se lo trajera ahora», las dos formas siguientes: badeutso (doblemente subrayada, lo que indica que la emplean únicamente los ancianos [estos datos se re cogieron en los años 1922-25]), y baxao (simplemente su brayada, que significa que es de uso general)” (Irizar-en lanean)

Eta:

“Azkue había escrito primero xat y corrigió encima xaot, aunque con la advertencia: «Se oyen más xat, xak, xan... , Zabaleta anotó, además de xat, xatzu... , las formas dotsat, dotsazu, dotsa, dotsagu, dotsazue, dotsai, y dice que éstas son las formas que se encuentran en antiguos manuscritos «y aún son usadas por contadísimas personas»” (Irizar-en lanean).

Fidatzekoak ematen dute orokorrean Zabaletaren jasoketek, bat datoz bere datuak eta guk OEZaz ezagutzen ditugunak.

Baina bere baieztapen batzuk zalantzan jartzekoak dira (aurrerago aztertuko ditut).

Irizarrek:

“L. de Zabaleta se refiere a manuscritos por él estudiados en los que se emplean formas del tipo dotsa, «que aún hoy se emplean, aunque rarísimas veces”.

Honela, *Morfología Vasca*-ko 703 orrialdean:

Dicen en Oñate emon xaot se lo he dado, xaok o xao, se lo has, xao se lo ha, xau (contraccion de xao) se lo hemos, xatzu, xatzue, xae”.

“*Xaogu*” zalantzazkoa iruditzen zait. *Deutsagu>xau* izan daiteke, besterik gabe.

“Xaotzu” sinesgarriagoa iruditzen zait, Araotzeko “xaazu” kontuan hartuta.

Oñatiko Euskaria-n:

Nik hari *xaot*; hik hari *xaok/xaon*; zuk hari *xaotzu*; hark hari *xao*; guk hari *xaogu*; zuek hari *xaotzue*; hareik hari *xaoue*.

Eta gehitzen dute:

“Oñatiko etxe batzuetan, Arantzazu eta Araotz aldekuetan guk dakigula, orainddiok bereizten dira xat eta xaot; lehenengua NOR-NORIrako; alkondaria zikinddu xat; eta bigarrena NOR-NORI-NORKerako; nik hari alkondaria zikinddu xaot. Arrazoi horregatik eta euskera batuan be bereizketa hori egitten dalako, geuk be ondo ikusi dogu aditz-forma honeik jasotia. Dana dala, jasota dakogun kasu bakarrak nik, hik eta harek pertsonakuak dira”.

Hiztunei jaso gabekoak ez dira tauletan jarri behar.

“Xaoue” inoiz ez da existitu. Eta seguruenez, “xaogu” eta “xaotzue” ere ez.

Araotzen jaso ditugunak:

Honi mozkórra harrapo erain biher xau (diogu) (ez “xaou”) (Araotz 39). Igarri egitten xau (ez “xaou”) (Araotz 16). Tiruena esáten-xazue hari? (ez “xaazue” edo “xaozue”) (Araotz 16). Haik igarten xaue (ez “xaoue”) (Araotz 16).

"Suposatutako" formak

Oñatiko Euskeria-n "suposatutako" formak sartu ziren. Halakorik egiten bada, espresuki adierazi behar da.

Formak logikoak irudikatzea bidea luzatzen duen bizezidorra da. Ekuazio bidez ez dira atera behar jaso ez direnak, osatu direnaren izenean.

"Eritzi" aditz trinkoaren forma gehienak eman ondoren oharra ageri da:

"Egixa esateko, gaur egunian oso gutxi ebaltzen da ERITZI aditza forma tringuetan. Izatekotan, 3. pertsonan eta noizian behin. Fr. Candido Izaguirrerengan (Izagirre, 1970) esate baterako; Berak eritzon lekuraiño (99 or.), Ondo eguela eritzonian (190 or.)

Aditz honen forma alokutiborik eztogu ifiñi, aditz neutruak eurak arraro samarrak egiten baxaku, zer esanik ez hittatuarenak. Gaiñera, iñoiz ebaliz izan diranik be, nork daki? Horrexegatik eztittugu jarri".

Ados. Baina beste forma askorengatik beste hainbeste esan dezakegu. Hau da taula:

Deritzot, deritzet, deritzok/n; deritzek/deritzene; deritzo/deritze; deritzogu/deritzegu; deritzozu/deritzezu; deritzozue/deritzezue; deritze; deritzie; neritzoan/neritzen; heritzon; heritzen; eritzon/eritzen; geritzon/geritzen; zeritzon/zeritzen; zeritzuen/zeritzien; eritzuen/eritzien.

Oso gutxi erabiltzen direla aitortu ondoren, forma gehiegi aurkeztu ziren.

Inoiz erabili ez direnak.

Kontua da *Oñatiko Euskeria* lanaren planteamendua zela *Oñatiko Euskaraz* idatzi nahi zuenari ereduak eskaintzea.

Horregatik nasai bete zituzten taulak. Ulertzen da helburua, baina nonbait adierazi behar da zer den jasotakoa eta zer proposamen moduan plazaratzen dena.

Bestela dena nahastuta iristen zaigu.

Eta beste taula askorekin arazo bera dugu. Adibidez “dixo”-rekin:

Dixot, dixuat/dixonat; dixok/n; dixogu, dixuagu/dixonagu; dixo zu, dioxue, dixue, dixuai/dixonai. Eta; nixon, nixuan/nixonan; hixon/hixonan; zixon, zixuan/zixonan, genixuan, gixuan/gixunan; zenixuan, zenixuen, zixuein, zixuain, zixoñain.

Zientzia fikziozkoak ematen dute.

Gero oharra:

“Gaur egun eztira ohikuak “esan”-en adizki tringuak. Lehenadiko formak eztira entzuten; oraiñadikuetan “dixo” eta “dixue” dira ebalixenak”.

Umerezek orainean:

Deritzo, deritzot, deritzozu.

Umerezek iraganean:

“Zeritzon” eta “eritzon”.

Hauek sarri darabiltza. Baina besterik ez.

Umerezek:

“Dinot” eta “dino”.

“Jario” aditza ez zuten kontuan hartu, antzeko kasua dena. “Daixola” forma fosilizatuak iraun du, baina beste formarik ez da ageri OEZean.

Badakit Izagirrek “jario” aditzaren beste forma bat ere jaso zuela.

Umerezek:

“Dario” eta “darie”.

Hortik abiatuta taulak osatu balira, aipatu ditugun beste aditzekin (*eritzi, dixo, jario*) egindako okerra errepikatuko litzateke.

Ez dute Oñatin “*eritzi*”, “*dixo*”, eta “*jario*” trinkoek pertsona-forma gehienetan, erabilerarik, existentziarik, inoiz izan.

Ezetz esango nuke.

Balute bezala aurkeztu behar ditugu?

Azentuak

Hitz batzuetako azentuak zer pentsatua ematen du OEZeant.

Bi silabako izen oinak aztertuko ditut hemen, ez besteak (hirukoak, lauukoak...). Eta artikulua gehitzen zaienena ze portaera duten.

Joera nagusia:

Góse, gosía; áuzo, auzúa...

Baina maileguetan:

Kótxe, kótxia; pásta, pástia...

Salbuespenak badaude baina ez dira asko:

Móño, moñúa; trónko, tronkúa; gózo, gozúa; óngo ongúa (hongo)...

Mutíkua ajílla (ez ájilla) (Araotz 7). Hoi mantxúoi... (mánko) (Araotz 7).

Oso zaharrak diren hitzetan ere portaera berdina:

Báke, bákia; zéru, zérúa; díru, dírua, píku, píkuia...

Harrigarria da hainbeste mendetan “kanpotar markak” irautea. Oso zaharrak direla Mitxelenak azaldu zuen, maileguon hotsak aztertuta (*Sobre el consonantismo vasco*, 1957; *Fonética Historica Vasca*, 1962, eta beste).

Honek atea irekitzen du hitzen jatorria aztertzeko.

Lóra, lória; órtu, órtua; máixu, máixua; máillu, máillua, márko, márkua (soorako tresna); márti, mártixa (marzo); mástra, mástria; méta, métia; méza, mézia; múndu, múndua; míko, míkua (pico), néke, nékia, ólixo, ólixua; píxu, píxua, zéru, zérúa; zánga, zángia; síku, síkua; sóka, sókia, sóñu, sóñua; sórtia, sórtia; zóru, zórúa; títi, títixa; trúke, trúkia; zúrgo, zúrgua; áide, áidia; léra, léria; hóрма, hórmia...

Horietatik bi:

“*Hórma, hórmiá*” eta “*lóra, lória*” Oñatin. Arrasaten “*hormíe*” eta “*loríe*”.

Latinezko “*forma*” proposatzen da jatorritzat.

Forma>*horma*.

Latinezko “*florem*” proposatzen da jatorritzat:

Florem>*lore*>*lora*.

Seinalatu egiten ditu maileguak izan daitezkeenak. Gehienak badakigu maileguak diren edo ez. Baina batzuekin zalantza eduki dezakegu.

“*Kórta*” hitzak adibidez, “*sel*” esan nahi duena. Euskarazko hitza ematen du eta gainera leku izen zaharretan agertzen da, “*Kortazar*”, “*Kortabarri*” (XVI. menderako agertzen dira).

Azentua maileguen tankerakoa du (*kórta, kórtia*, Izagirre). Aztertzekeo geratzen da. Ez dakit erdarazko ze hitz egon daitekeen “*korta*” hitzaren atzean.

(“*Eskorta*”, “*kortaluixa*”, aurrerago aztertuko ditut).

Beste bat “*hanka*” da. Mailegua ote da? Baliteke. Seguruenez ez zen hitz horren beharrik euskara zaharrean, “*oin*”, “*berna*”, “*belaun*”, “*iztar*” hitzekin nahikoa izango zuten.

OEBan “*hanka*” esaten zaio “*oinari*” (eta parte gehiago izendatzeko ere erabiltzen da), “*berna*” apenas entzuten da.

“*Belaun*” eta “*iztar*” entzuten dira.

“*Oin*” hitza Izagirrek jaso zuen (nik ez dut jaso OEZeant), baina jaso zuen edo suposatu zuen zalantzagarrria da (beste liburuxka batean aztertuko dut).

“*Niño, níñua*” (Izagirre), pupila. Orotarikoa “*nini*” agertzen da esanahi berarekin.

Beste bat: “*Tálo, tálua*”. Ez dakit ze hitzetatik eratorri den, baina kontuan hartzekoa da. Iparraldean berandura arte ez da ageri. Horrek pentsarazten dit gaztelaniatik sartu zela.

Edo kasualitatea da azentu hori, eta ez dira maileguak?

Beste hainbeste galdetzen dut “*txálo, txálua*” hitzaz.

“*Máilla, máillia*” da beste bat. Bada “*mailla*” bat gaztelaniaz, baina esanahiek ez dute bat egiten.

Ez dakit zerikusirik duten.

Beste bat: *Pátxo, pátxua*.

Beso>*patxo* (hipotesia).

Eta hortik “*pa*”, “*txo*” txikigarritzat interpretatuz.

Izagirrek: “*Mátxua*”, un besito (Izagirre). “*Maátxo bat*”, un besito (Izagirre).

Beso>*matxo*>*maatxo*.

Hala bada, bigarren fase batean “-*txo*” txikigarri moduan interpretatuz “*pa*” izena sortu da, “*musu*” esanahiarekin.

Harrigarria da zaharrak omen diren (Mitxelena, FHV) *bake, zeru, neke, ortu...* mailegu izatearen marka mantendu izana Oñatin.

Ezin dut segurtatu marka horregatik mantendu denik azentua, ez.

Hitz hauek segun eta euskaraz ze kontsonante dituzten, Mitxelenak eta beste diakronistek (hizkuntzen historia ikertzen dutenak) ondorioak ateraten dituzte, aspaldi jasotakoa diren edo ez.

Hitzok latinetik sartu ziren, ez erromantzeetatik (gaztelania, aragoiera...)

“*Zéru, zérúa*”. Onartuta dago latinetik datorrela. “*Caelum*” formaren ondorengoa da, gaztelaniazko “cielo”-k jatorri bera du.

Ordezkoa *ortz/ost* antzeko zer bait zela uste da, OEZak arrasto asko gorde ditu, *ostarte, ostraixa, ostondua, ostarkua...* (Izagirre), gehiago dira. Aurrerago aztertuko dugu.

“*Bake*” hitzaren jatorria “*pacem*” da (“*pakem*” irakurrita).

Arbolak aztertuta ere interesgarriak dira emaitzak:

*Píku, píku*a (fruitua eta arbola).

Kéiza, kéizia (fruitua eta arbola).

Págo, págua (fruitua eta arbola).

Biak latinetik. *Ficus*>*piku*; gaztelaniaz jatorri berdinetik “*higo*”.

Fagum>*pago*; gaztelaniaz *fagea*>*haya*.

“*Pagoa*”-rena interesgarria da, “berandu” iritsi zela EHra esaten da (duela 2000 urte, 4000 urte? Ez dakit). Eztabaidak daude pagoaren zabalkundearen datazioaren inguruan.

Horrek zerikusia du arbola horrek euskal izenik ez izatearekin? Ez dakit.

Gaztaiña ere mailegua da baiña hiru silaba ditu, eta bi dituztenez ari gara.

Eta

Píñu, *píñua* hau berriagoa.

Beste arbolen izenak (pila bat) euskal jatorrikoak dira

Háritz, *harítza* (Izagirre) (gero silaba bakarreko bihurtu da eta hor legeak desberdinak dira, *háitz*, *háitza* (OEZa, gure jasoketa): *úrki*, *urkíxa*; *sáatz*, *saátza*; *úrritz*, *urrítza*; *ázkar*, *azkárra*. Edo beste landareak, *ásun* *asúna*, *sási*, *sasíxa*...

Azentu bereizgarria

Oñatiko Euskaria-n deskribatu zen azentu mota bat esanahia bereizten duena.

Honela deskribatu zuten (*Oñatiko Euskaria*, 2014).

“*Azía*” (aza, jatekua), “*Ásia*” (kontinentia).

“*Elízia*” (elizkizunak ospaketako lekua), “*hélizia*” (buelbaka dabilen aparatua) (*Oñatiko Euskaria*, 52. orrialdea)

Ez ditut denak jarriko.

Honek ez du ez hanka ez buru. Badu?

Zuazoren planteamenduaren zabaltze bat dirudi, oker egindakoa.

Oñatin berba jakin batzuetan bada (azentu bereizgarria); *basúa* (oihana), *básua* (edalontzia) (Zuazo, 1999)

Zuazoren interpretaziotik hasi zen gaizkiulertua.

Izan ere, “*básua*” (“vaso”, ez “bosque”) hitzak, azentua hor dauka mailegua delako, ez “*basúa*”-ren (bosque) esanahiaz bereizteko.

Biak ez nahasteko nahikoa da kontestua.

“*Basora noia*”, esanda badakigu ez dela ari edalontziaz.

“*Basora sartu xat erlia*” esanda badakigu ez dela ari “*basoaz*” (bosque).

Ez dago azentuaren beharrik.

Berdin “*zórúa*” eta “*zorúa*” hitzekin.

Batak “*suelo*” esan nahi du, eta mailegua da. Besteak “*loco/a*” esan nahi du, eta ez da mailegua.

Zergatik dute azentu desberdina? Bata mailegua delako eta bestea ez. Hor ez dago “azentu bereizlerik”.

Gero hortik beste horietara zabaltzea (hélice, Asia...), interpretazio edo azalpen hori okerra da.

"Jokera"

"Jokéra"-ren esanahia, OEZean *"tendencia a ir"* da. Eta ez *"tendencia"*.

Oñatiko Euskeria-n:

"Jokera, jokeria; norabait fateko edo zerbait egitteko zaletasuna".

"Norabait joateko zaletasuna" ez zait zuzena iruditzen.

Guk jokéra gutxi geukan alde hortara, e! (Olabarrieta 27). Hemetik (Kortabarri, Sustiabe ..) jokéria bastántia eukain Legazpirako (Olabarrieta 29). Askok jokéria, nora eta Naparreneira (ardaotara) (Murgixa 2).

Orotarikoan honela definitzen da: *"querencia, tendencia a ir a un lugar"*. Hortik hartua izan daiteke *"zaletasunarena"*.

Orotarikoan agertzen den *"tendencia a ir a un lugar"* nahikoa litzateke OEZeko erabilera definitzeko.

Elxpururen definizioa da OEZean *"jokera"* hitzak daukan erabilerarendako topatu dudana egokiena:

"Tendencia, sobre todo a ir a determinados lugares".

Patxiku eta Txantxiku

“Arabako zezena” izendatzeko “Patxiku” jaso dut Olabarrietan.

Patxikua (Olabarrieta 2).

Horrek esan nahi du animalia izendatzeko giza izena erabili dela (Frantzisko>Patxiku).

Badira tankerako gehiago: “Matxinsaltua” eta “Matxingorringua”. Bietan “Martin”, edo “Mattin”, edo antzekoren bat dago.

Kontestu hori ulertuta, sinesgarria iruditzen zait Patxi Salaberria eta Luis Mari Zalduak *Gipuzkoako herrien izenak. Lekukotasunak eta etimologiak* liburuan “txantxiku” hitzarendako proposatu zuten etimologia. Honela:

“Txantxiku. Beharbada ongi dokumentatua dageon Santxo-ren Santxiko hipokoristikotik atera dateke. Santxo>Txantxo asimilazioa lekukoturik dago, baita -iko atzizkiaren -iku aldaera ere. Ormaetxebarriak, dena dela, Franciscoren Pantxiko, Patxiko hipokoristikoa berriro “hipokoristikotzean” dakusa Txantxiko” (284. orrialdea).

"Goixenian" eta "barrenian"

Biak ezagunak eta erabiliak OEZean.

OEBan ez bata eta ez bestea. Biak galdu dira.

Goixen

Joan de Goyeneche (1477). *Arrigoienaga* (1556). *Callegoyena* (1597). *Goiensoro* (1781). *Alsaingoiena* (Mujika, toponimia). *Kalegoiena* (Mujika, toponimia). *Arimiaren goieneko parte edo...* (Umerez). *Goienian* (Umerez). *Bere goienengo* (Umerez). *Arimiaren punta, goien edo...* (Umerez). *Goixenian* (Izagirre). *Goixéna* (Murgixa 5). *Goixénetik zela faten zan (trena)* (Lezesarri 1). *Góixen goixénetik* (Lezesarri 1). *Hamentxe goixénian eguen* (Olabarrieta 25). *Hor dagoz goixenian* (Olabarrieta 2). *Hor zuen blokian bizi dana, goixénenguan, badakitzu zein dan, ezta?* (Olabarrieta 27). *Kamaran, goixéneko zeian...* (Olabarrieta 19). *Ardixak eruan ttu goixénera (zelaian)* (Olabarrieta 2). *Gure aldeko goixéneraiño (souak)* (Murgixa 2). *Soó-goixenian ero barrenian ero egoten ziran metak ifiñitta* (Olabarrieta 17). *Astuakin zelai erripak-eta ziranian, kargau goixenian eta astuakin ekarten ziran* (Uribarri 7). *Han goixénian ifintten zan danen gaiñetik, eta...* (suanaren goienean) (Araotz 24).

Ez da transmititu.

Bárren

Pedro de Garibay Barrena (1489). *Bardabarren* (R N, 1740). *Animiaren fondo, barren edo hondarreko...* (Umerez). *Bárren, barréna la parte más baja de una cosa* (Izagirre). *Itxaburu barrénera* (Olabarrieta 2). *Lenago barrénera ekarri bihar izaten zuan dana (bedar, arbola), eta orduan goittik bera samurrago*

egitten zuan (Olabarrieta 14). *Estrada barrenian zeontzen* (Koldo Zumalde). *Barrénengua* (*armaixoko barrenengo apalagatik*) (Olabarrieta 2). *Eliza barrénian* (Araotz 17). *Barrénetik kañua, ura fateko* (Berezano 5). *Etorri ziran soó-barrenera, eta...* (Murgixa 5). *Plazá-barrenian* (Larraña 8). *Hemen hasi bai barrenian, eta hemen baserrixak egozen...* (Larraña 16). *Gure soo barrenian* (Goribar 1). *Amantal honi josi barréna* (Olabarrieta 25). *Juntau gaittuk goizian zazpiretan plaza barrénian* (Lezesarri 1). *Auzó-barrenian egitten zan (erromerixia)* (Lezesarri 2). *Olako etxerik gehixenak barréneraiñokuak...* (Olabarrieta 1). *Eskillara barrénian* (Murgixa 2). *Araozko presá-barrenetik* (Araotz 34). **Fraka-barrenak:** *Fraka barren danak gorri, odolakin* (Gerrako Garra). *Fraká-barren danak mantxauta* (Olabarrieta 2). *Fraká-barrenak hartu (josteko)* (Olabarrieta 25).

Ez da transmititu.

"Oñaztua" eta "oñaztarrixa"

Oñaztua eta *oñaztarrixa* sinonimoak diren edo ez, ez dago argi.

Horrez gain, OEBan ez dira entzuten ez bata eta ez bestea, *“tximísta, tximístia”* direlako nagusi.

“Jústuixa” ere ez da erabiltzen OEBan. *“Trumoia”* haren ordean.

Eguraldiarekin lotuta euskararen galera izugarria izan da Oñatin.

Roberto Altunak *Katonean* *“oiñaztua”* eta *“oiñaztarria”* diferenteak direla jarri zuen. Batak *“relampago”* esan nahi duela, besteak *“rayo”*.

Ez dut nahi adina froga batu hori baieztatzeko.

Elexpuruk *“oiñeztarri”*, *rayo*; *“oiñeztu”*, *relampago*.

Baina *“oiñeztu”* hitzari azalpen hau gehitu zion: (*oiñeztu*) *“rayo”* zentzuan ere entzun daiteke, baina ongi mintatzen direnek honi *“oiñeztarri”* deitu ohi diote.

“Ongi mintatzen direnak” Bergarako hiztun zaharrenak, bertako euskara ondoen gorde zutenak, izango direla suposatzen dut.

Oñatin ere hala izango da. Eta gure jasoketaren mugak erakusten ditu horrek.

Izagirrek:

Oñaztarrixa *jausi da*, *relampago*. Honela itzulita; ha caído el rayo (Hau Villasanteren oharra). Eta *oiñaztu bat*, *oiñaztua*, *rayo* (Izagirre).

OEZean:

oiñaztu iz *Oiñáztua* (Larraña 14). *Oiñáztua* (Olabarrieta 26). *Trumóia eta oiñáztua, horreik álkarrekin!* (Larraña 15). *Akordaitten nauk uda baten hemen oiñáztua xabillan, eta...* (Murgixa 8). **Iñáztu**: *Iñáztua* (Olabarrieta 39).

oiñáztarri iz, *Oiñáztarrixak jo dau* (Olabarrieta 21). *Tormentia eguenian, egoten ziran oiñáztarrixak-eta* (Olabarrieta 1). *Arbolak-eta joten txuk goixan, tierra egittera faten dok oiñáztarrixoi* (Olabarrieta 21). *Oiñáztarrixakin* (Olabarrieta 29). *Rajauta dago (piñua), oiñáztarrixak rajau dau* (Larraña 9). *Oiñáztarrixa* (Olabarrieta 24). *Oiñáztarrixak jo* (Olabarrieta 38). **Iñáztarri**: *Iñáztarrixa* (Olabarrieta 2). *Aittajuna iñáztarrixak jota hil zan* (Olabarrieta 2).

"Erabera"

Urrexolako liburuan "erabera" forma jaso zen.

Etxian bizi ziranen erabera (Markos Barrenetxea). *Eskritturatan agerketan ziran neurrixen erabera* (Markos Barrenetxea). *Onartutako kantidadien erabera* (Markos Barrenetxea). *Horren erabera* (Markos Barrenetxea)

Susmagarria iruditu zitzaidan hasieran. "Arabera" hitzaren oinarrian "arau" hitza dagoelako.

arau + era > arabera.

Baina espero ez nuen "arau" hitza topatu nuen Azkueren hiztegian hasieran eta Izagirrerenean gero (biak Oñatin jasoak).

"Su-arau" jaso zuen Azkuek (1920 hamarkada). Eta "su-arauko juntia" Izagirrek, "junta de vecinos para asegurarse de incendios". Eta "su-árauena" (Izagirre) "el pago del seguro de incendios".

Hala izanda ere, susmagarria iruditzen zait "arabera" OEZean.

OEBan ya sartuta dago "arabera". Baina Batutik sartu da, ez OEZetik transmisioz.

"Arabera" hitzaz Orotarikoak:

"La forma más antigua es "áaura", documentada en Dechepare, Leiçarraga, Gasteluçar... Falta en Axular, que usa "arauaz". "Arabera",

documentado en Prouvreau, será a partir del s. XVIII la forma casi exclusiva hasta nuestros días”.

Goi Nafarreraz, Lapurteraz, eta Behe Nafarreraz eta Zubereraz erabili dela historian zehar, zehazten du.

“*Arau*” hitza Orotarikoan:

“Documentado sobre todo en la tradición septentrional. Desde finales del s. XIX se usa también al Sur, especialmente en la acepción de “regla, norma””.

Ondorioak.

Ezin esan “*arau*” hitza Oñatikoa ez denik Azkueren eta Izagirreren jasoketak kontuan hartuta. Baina Urrexolan pertsona bakarrari jaso zaion forma horrek tradizioa izan duenik ezin da baieztatu, froga gehiago agertzen ez badira.

Urrexolako hiztunak Batutik jaso duela pentsatzea ez zait zuzena iruditzen, bestela “*arabera*” esango zuen, eta ez “*erabera*”.

Baina grabaketa entzunda zalantza daukat “*eraberan*” esaten duen edo “*goraberan*”, erdi moztuta.

"Hargatik"

"Hargatik" forma erabili zuen Umerezek:

Mundu zabal honetan bizi dan bitartian edozein dago huts egiteko peligru handian, batez ere besteren eskandalo eta ejemplu dongia mediante. HARGATIK hartu dot asmua, zuri emuteko liburu onetan instrukzino batzubez, dituzun obligazinorik prinzipalen gaiñian (Umerez).

Ia desagertu da OEZean. Hala ere, azken agerpenak errejistratzeko suertea izan dugu.

Kontuan hartu:

Hargatik>haatik>hatik.

Ikastolan, asko edo gutxi, erakutsi zigutenaren ("hatik"-en) esanahia gaztelaniazko "sin embargo" zen.

OEZeko "haatik" formaren esanahia "por eso" da, "horregatik".

Bergaran ere jaso zuen Elexpuruk, haaittik.

Beste euskara batzuetan ere ageri da. Lapurdin 1617an: "Ez naiz ni hargatik bekhaiztuko eta ez inbidios izanen" (Materre).

OEZan:

Han ez eguen butanorik eta letxerik, e! Sua biztu biher zan. Haatik illarra iarrak! (Araotz 2). Holakorik ezebez, e! Dana bizimorukua. Haatik, hala jokatu ezkerro ez dator krisirik (Araotz 2). Hátik praktikia bihar da! (Araotz 2). Hátik esaten dot tripá-truke! (Olabarrieta 15). Eta háatik oin esaten dot

hobeto bzi dala jentia (Araotz 2). Gogorra bizimorua. Eta hatik ez neben gura semerik nere lekuen (Araotz 2). Gaiñera esaten euen, leku bat hoi denporioi baiño gehixaa ezin zekiela egin. Eta hatik esaten euen faaten ziela (Araotz 42).

“Haréatik” berdina da, “hak” eta “harek” berdina den moduan. Hauek ere jaso ditugu:

Haréatik etara egin bihar da bere garaixan... (Arantzazu 8). Haréatik ifiñi geben erromarioi (Olabarrieta 1). Segiran etorten da baten bat bai, eta haréxeatik... (Olabarrieta 1). ...haréatik, eraria aurrera fanaz, ikasten (Araotz 2). Fallaitten baldin badau eguraldixak, orduan otiak ez dau egitten surik; haréatik euki bihar dozu... (Arantzazu 8). Bihorrek sartzen dira deskuidau ezkerro, eta haréxeatik ifiñi euen (zerrauria) (Olabarrieta 1).

"Postura"

Postura hitzak OEZean “*modu*” hitzaren esanahia du.

Mailegua den arren, beste mailegu askok bezala, esanahi berria hartu du.

OEBan ez da erabiltzen.

“*Diccionario de la RAE*”-k 14 definizio dakartza, eta haietatik batek ere ez du “*modu*” hitzaren esanahirik. Gehien bigarren sarrerako definizioa hurreratzen zaio, baina ez da esanahi berdina: “*Actitud que alguien adopta respecto de algún asunto*”.

Ellexpuruk hitza jaso zuen baina esanahi honekin ez.

Hauek biak jaso zituen 1) apuesta, 2) postura (*postura txarrian lo eittiaittik*) (RAE-ren bigarren sarrerari dagokio: “*Manera en que está colocado el cuerpo o una parte del cuerpo de una persona o de un animal*”).

Orotarikoan “postura” hitzaren bost esanahi azaltzen dira. Bosgarrenean adibide bakarra jasotzen da, Zestoakoa. Guk azalduko dugunarekin antza duen bakarra da:

“*Han ertetze zan hautsa garbiya, piña, geo hua txano hortan pasau, kafe-txanuan mouko postura batian ta aproposko zea izatezun gañea egur motz bat eraiteko*”.

Arraroa litzateke Oñatiko eskusiboa izatea. Seguruenez, beste herrietan ez zaio arretarik jarri.

Hauek jaso ditugu:

Postúra iz, modo, manera. *Hori postúra askotara esan leike* (Araotz 21). *Nik entendiú nitxan postúran* (Oñati). *Esateko postúria* (Olabarrieta 1). *Berba egitteko postúria* (Olabarrieta 21). *Esan eben postúraz...* (Olabarrieta 1). *Beste postúra batera* (Araotz 30). *Gure aittajunak esaten eben postúrara...* (Uribarri 14). *Postúra batera ero bestera...* (*denek egin zuten lana gaztetan*) (Olabarrieta 2). *Harek esan eben postúraz, horreik...* (Olabarrieta 1). *Esan dauen postúran...* (Larraña 14). *Baiña jentia postúra askotakua, e!* (Murgixa 2).

"Euen" edo "ebein"

OEZ-ean sarrien agertzen den aditz laguna "euen" da. "Ebein" baino gehiago ageri da.

OEBan berriz, "ebein" da nagusi.

Eben/euen (OEZean).

Eben/ebein (OEBan).

Zein da formarik zaharrena? Ez bata eta ez bestea. Biak enbor berdinarekin adarrak dira.

Ez du zentzurik bataren alde edo besteari kontra aritzeak.

"Ebein" berria ez dela erakusten dute Azkue eta Izagirreren lanek. Azkuek "euein" jaso zuen. Izagirrek "ebein".

Proposatzen dudana bilakaera hau da:

Eueen>euen.

Eueen>eubeen>ebein.

Umerezek "euben", hau ere enbor berekoa.

Eueen>eubeen>euben.

Entzunda nago eztabaida itsurik honetaz. Bata dela zaharragoa eta bestea dela zaharragoa.

Eta bata ere ez da zaharragoa; elkarrekin bizi izan diren anae-arrebak dira.

"Aurtxuan"

"áurtxuan" forma ezaguna eta erabilia izan da OEZean.
OEBan ez da erabiltzen.

Aurre + txo + an > aurtxuan.

OEZean jaso ditugunak hauek dira:

Áurtxotik beroketan jarri bihar (Olabarrieta 2). *Áurtxuan* (Larraña 16). *Zu etorri aurtxuan fan da ulixa* (Uribarri 9). *Zu etorri áurtxuan izango zan* (Olabarrieta 1). *Gabón-aurtxuan* (Olabarrieta 24). *Nere aitta hil zan ni ezkondu áurtxuan* (Olabarrieta 29). *Hémen áurtxuan* (Olabarrieta 36). *Gerrá-aurtxuen* (Araotz 27). *Gerra aurtxuen egin euen barrixa* (Araotz 16). *Gure aurtxotik gehitxuua* (Araotz 16).

Forma pleonastikoak

Hauei ezinikusia diete garbizaleek. Gaizkia eta ongia bakoitza non hasten den markatzen dutenek.

Izan ohikoak dira, hizkuntza guztietan. Gaztelaniaz adibidez “*contigo*” formak “*tu*” birritan jasotzen du:

cum + te + cum > contigo.

OEZean. “*Húrrengokua*”, adibidez:

Húrrengoko (Berezano 4). *Húrrengokorako* (Olabarrieta 2).

Edo “*lenengoko*”:

Lénengoko... (Kalea 2).

Zaila da arrazoitzea forma okerrak direnik.

Jatorrizko formak aldatzeko makinak dira ahozko hizkuntzak.

“Jatorrizkoa” zer den ere, inork azaldu dezake? Hizkuntza baten historian, muturreraino eramango bagenu, non dago zeren jatorria?

Pleonasmoak agertzen direnean gertatzen dena da hitz batean marka berdina birritan ageri dela, besterik ez.

Lenen + ko + ko > lenengoko.

OEZean "*bagekixen*" esaten da (bagenekien). Baina OEBan "*bagekigun*":
baGEkiGUn

Okerra da? Zergatik, bi aldiz "*gu*" pertsona marka ageri delako?

Ikusi dezagun hau:

baZEkiTZUn

Hau ere okerra da? Eta ze forma erabili beharko genuke, "*zuk bazekixen*"?

Oñatiko Euskaria-n "*zekixen*" (zenekien) jaso zen tauletan.

Baina forma hori ez da inon entzuten. Seguruenez jatorrizkoa hori zen.

Baina suposizioa ezin da jasoketa moduan aurkeztu.

Bazeukan/bazeukatzun formekin berdina gertatzen da.

Segurunez, hiztunek forma pleonastikoa sortu zuten, eta onartu egin zen.

"*Bazekitzun*" entzun eta "*belarrira ondo egiten du*".

"*Bagekigun*" formak "*belarrira ez du ondo egiten*".

Baina horiek idea aurre-ezarriak dira.

Bietan fenomeno berdinarean aurrean gaude. Biak daude gaizki? Bat ondo eta bestea gaizki, biak ondo?

Bereiztu behar da. Pleonasmoak bezalako aldaketak, eta hizkuntza forma okerrak.

Zer da okerra? Eztabaida luzea da hori. Adibide ohikoa:

Ikusi dotzut plazan? Forma hori okerra da. *Ikusi zaut plazan*, da forma zuzena.

"*Bost minututan jazten naiz eta banoia*", okerra da. "*Jantziko naiz*" zuzena.

Baina "*bagekigun*" okerra dela esatea zaila da.

Zer zuzendu behar den eta zer ez, eztabaida hori ez da behar bezala egin.

Eta ez dute Euskararen Poliziek egin behar.

"Auskalo"

Auskalo gutxi entzuten da OEBan. OEZean gehiago erabiltzen zen.

OEZean:

Zapatuko konpria amak, auskalo zelakua! (Lezesarri 2). *Auskalo zela* (Olabarrieta 2). *Auskalo nora* (Murgixa 2). *Berari fitxorixan bat egindda, ero auskalo zer!* (Olabarrieta 29). *Auskalo nündik...* (Murgixa 2). *Eskuak zabaldua, auskalo zer egin dauelakuan* (Olabarrieta 2). *Bestela auskalo* (Olabarrieta 29). *Oin hazkárrixa botako xate auskalo zenbat eta... (ogi masari)* (Olabarrieta 27). *Auskalo zenbaitt tapa* (Araotz 20). *Auskalo zenbat urte!* (Araotz 16)

Jakina denez, gaztelanian du jatorria (*a buscarlo*>*auskalo*).

"Izu", "ikara", "billur"

Izu hitza ez da agertzen OEZean.

Umerezek askotan erabili zuen “izugarri”.

Ejertzito izugarri baten antzera armaurik (Umerez). Señale izugarriak (Umerez). Harrotasun izugarri (Umerez). Agerketan ditubenian beren arpegi izugarriak... (Umerez). Infernuko Mataderia izugarritzora (Umerez). Bere izugarrizko ejerzituagaz (Umerez). Izugarrizko hizkunia honetan (Umerez).

OEZean asko ez da ageri:

Otzailla egin xuan izúgarri txarra (Larraña 6). Urrúsulan egin dauela izúgarri esan dost Iñakik (Olabarrieta 29). “Sumarra” irakusten beste bat euki geben izúgarrixa (Uribarri 12). Haren rapidesia kontuak etaraten, izúgarrixa zan (Uribarri 12). Erremolatxa hazixa, izúgarrixa egin xakun (Uribarri 12). Hemen artua egitten zan izúgarrixa! (Uribarri 12). Hemen sagarra egoten zan izúgarri asko (Olabarrieta 29). Eta horreik (untzak) atzera lurrian inddarketan dira, baiña hola izúgarri, e! (Olabarrieta 29). Saltzen euen baserriko gauzia izúgarri (denda batean) (Olabarrieta 29). (Hamar urte haietan) egin eben kanbixua, izúgarrixa izan zan (Araotz 1). Hemen Trinidadetan juntauten zan jentia izúgarri! (Araotz 1). Dako inddarra izugarrixa! (Araotz 1).

izúgarriko

Izúgarriko garramillak egon dira hor (Izagirre). Izúgarriko usáña (Larraña 6). Izúgarrikua izan bihar zan! (Araotz 4). Izúgarriko pattar-usaiña (Uribarri 2). Urtiagaiñen izúgarriko fiestia egitten zan (Uribarri 2). Persona

batzuk izúgarriko zea eukitten xuai (Araotz 7). Eta gero dakot rekuerdua, tremendakua, neskatiillatxuak gu, fan (Saneliaseko ermitara), eta izúgarriko diarrakin itte'skula sermoia (Araotz 40). Orduen egozen izugarriko edurrak (Araotz 17). Izugarriko fraide pillá bat (Araotz 17). Izúgarriko olixo gustua hartzen euen (Olabarrieta 25). Auzo baterako izúgarriko alégrantzaia (Araotz 20). Horrek (Agerreko Rikardok) izugarriko saillak eukitten zittun bai, han Uastein dako izugarriko zelaitzarra, eta dana segaz... (Araotz 40). Izúgarriko (Uribarri 12). Izúgarriko palaziua egitteko asmua dako (Lezesarri 2). Eta hak oillo pilliak gari-soora fan eta izugarriko okerra egitten xuain! (Araotz 7). Eta izugarriko dantzaak egitten, han prazueletan, guardazibillak (Araotz 17). Egin eben izugarriko edurtia (Araotz 46). Kamionien ikusi nittunien faaten, izugarriko penia! (Araotz 17).

Ahotsak proiektuko grabaketetatik

Izotza goizian izugarrixa egiñatik be (Bittor Olalde). Hazixa izugarrixa (Baxili Madina). Arbola bat izugarrixa (Jesus urzelai). Hemen artua egitten zan izugarrixa (Baxili Madina). Izugarriko bi txopo (Iñaxio Zubia). Izugarriko zera (Iñaxio zubia). Egonaldixak izugarrixak (Nikolas Ugarte). Izugarriko bronkak (Jabier Bikuña).

“Izu” hitza ez da ageri mendebaldeko euskaretan. Orotarikoak honela:

“Documentado al Norte en Leizarraga, Materre, Axular, Harizmendi, Mihura, Goyhetché, y ya en el s. XX, en J. Etchepare (cf. “izigarri” e “izitu”, de uso gral. entre los septentrionales). Al Sur se encuentra desde mediados del s. XVIII, aunque son escasos los testimonios vizcaínos, excepto en la acepción de “fiero, indómito, arisco””.

Izagirrek Antzuolan “izu” eta “ixuka” jaso zituen. Elexpuruk Bergaran, “izugarri” eta “izugarrizko”.

“Izugarri” hitzaz Orotarikoak:

“De uso general al Norte desde Dechepare; al Sur se documenta desde mediados del s. XVIII y su empleo es general en autores no vizcaínos, de quienes no se encuentran ej. Hasta finales del s. XIX, con excepción de algún testimonio aislado de Añibarro y J. j. Moguel”.

Ekialdetik atzizki eta guzti sartuko zirela ematen du “izugarri”, eta “izugarriko”, nahiz eta Antzuolako “izu” eta “ixuka” formek beste aukera batzuk ere kontuan hartzea eskatzen duten.

OEBan ez da erabiltzen. Hala ere, posible da Euskara Batuarien eraginez berriz erabiltzen hastea, Batuan ezaguna eta erabilia izanik.

“Ikara”, “billur”, eta euren eratorriak OEZeaz nola agertzen diren ikusiko dugu.

“Ikara” hitzak Oñatin ez dauka “izu”-aren esanahirik. “Ikara” hitzak OEZeaz bi esanahi ditu, anaiarrebak direnak. Bata mugimendua eta bestea dardara (erdarazako “tenbleque”).

ikára iz,

1 movimiento. *Ikára onak etaraten xuan (basoan gomazko erruberak)* (Murgixa 2). *Irixak geldi, ikárarik be ez* (Murgixa 2). *Soltau bixak, eta ezta ikárarik be! (idiek)* (Murgixa 2). *Uztarrixa kendu bai, eta ikárarik be ez irixak, ezta ikárarik be!* (Murgixa 2).

2 dardara. *Zuk zer dakozu, ikária? (hanketan)* (Olabarrieta 2). *Eskúetako ikária* (Olabarrieta 28). *Bere ikáriorreaz nehikua lanekin* (Olabarrieta 1).

Bigarren esanahi horrekin adberbioa jaso dugu: *Hotzak ikáran* (Olabarrieta 29). Honen esanahia gaztelaniaz hau da: “*tiritando de frío*”.

“*Hotzikaria*” hitzak zerikusia du bigarren esanahi horrekin

Interesgarria da hitz hau.

Esan dugu ez daukala “izu” edo “beldur” hitzen esanahirik OEZeaz.

Baina lotura zein den ikusten da, beldurrak dardara eragiten duelako. Ematen du “*ikara*”-ren esanahia “*izu*”-a izan aurreko esanahia dela Oñatikoa.

Esanahi batetik eratorria dela bestea.

ikára egin, ad du, moverse.

Ikara egin (Izagirre). *Ikárarik be ez!* (Murgixa 2). *Amorraiñak ikararik be ez xok egitten* (Olabarrieta 7). *Gaur erozein ordutan fan zeke trankilamente ittuara eta ikárarik be ez daue egitten ganauak; zeatik? Nehikua janda dagozelako!* (Murgixa 5). *Harrixak ez euen ikárarik egitten* (Uribarri 2). *Ez eben eukitten lekuri harrixak ikárarik egitteko-eta* (Uribarri 2). *Goizian despertadoriak jo*

xuan baiña, ikára egitteko gogorik ez! (Murgixa 2). *Ez xan barilliak ikárarik egitten (ura topatzen)* (Murgixa 2). *Gure horarixua (seiretan) izango zan ikára egitteko* (Araotz 2). *Harek ez eben ikárarik egitten, ha geldi eguen* (Olabarrieta 1). *Oin ikára egin xok egunak be* (Olabarrieta 21). *Ikára egitten eben hak* (Murgixa 2). *Ikárarik be egin barik ekarten zittuain* (Olabarrieta 29). *Ikárarik be egin barik* (Araotz 22). **ikára erain:** *Ikára erain* (Izagirre). *Han inddarra bihar zan batzuetan buelta emuteko, ero ikára eraitteko grariari ero burdiñariai ero... (souan)* (Araotz 21). *Heguari ikara apurtxo bat bakarrik eraitten txan* (Araotz 9).

Hauetatik bat ere ez da erabiltzen OEBan. “Hotzikaria” bai, transmititu da, besteak ez dira transmititu.

Ikara hitza ez da ageri “beldur” esateko, aipatu dugun moduan. “Ikaratu” berriz, bai, OEZan ageri da, gutxi izanda ere.

ikáratu, ikárocketan ad

Ikaratu zirian (Umerez). *Eta noizbaiten ikaraketan bada...* (Umerez). *Horretxek ikaratu nindduen gehixen* (Koldo zumalde). *Ikáratuta jente guztia* (Olabarrieta 1). *Ikáratuta geratu giñan* (Olabarrieta 1). *Geu ikáratuta!* (Araotz 2). *Bestia ikáratuta* (Araotz 21). *Agustiñoi ikáratuta, honek gizurra esan ete xostak!* (Araotz 7). *Ez naiz ikáratuko horregatik!* (Olabarrieta 1). *Hola beittuta ez behintzet. Oin, bertara sartu ezkerro, akaso igual ikáratu egingo nitzake* (Araotz 12). *Ha han egoteko ikáratuta geratu nintzan ni, ze pasaitten ete zan geratu nintzan!* (Olabarrieta 1). *Ikusitta bakarrik ikáratuta geldittu naiz* (Larraña 15). *Ikáratuta fan zan* (Olabarrieta 1). *Bastante ikasi eben gaiñera (euskara), ikáratuta geratu giñan geu* (Olabarrieta 1). *Eta Zegaman be herri-kaxkar hartarako, asko e (idi asko zeudela), ni ikáratuta geratu nintzuan* (Murgixa 2).

“Ikaratu” gutxi agertu zaigu. Ahal diren guztiak jaso ditugu, baina ez da asko erabiltzen OEZean. OEBan ez da erabiltzen. Hau ere sartu daiteke berriro Batutik.

“Graziano, eta beste” liburuan (2021) hau jarri nuen; “Hitz honek ere arrotza dirudi Oñatiko hizkeran”. Oker idatzi nuen hori, entzun gabe nengoen arren, Oñatin esan delako.

“Ikaratu” aditzetik “ikaragarri” (ikaratzeko modukoa), “ikaragarrizko”, “ikaragarrixak”.

ikáragarri adb

Ideia gustaitten xakon ikáragarri (Araotz 5). Kamelakuan, han itxe-aurreko zelaixan ikáragarri xaguan (Murgixa 2). Oin ez dok lengo mouan kirikixorik ikusten, len kirikixua ikáragarri (Murgixa 2). Keizia ikáragarri (Murgixa 2). Hamen ikáragarri, gaztaiña, eukain (Araotz 30). Aguardientia gaiñera lenaa gustau egitten zaharrai, ikáragarri! (Araotz 2). Ikáragarri gizenketan dok! (Larraña 16). Oñatira, gaiñera, ikáragarri etorten zuan jentia (Larraña 17). Guk neskaillak disfrutaitten geben ikáragarri (Olabarrieta 38).

ikáragarri adj

Ikáragarrixak egitten ziran, ikáragarrixak, e! (arbiak) (Uribarri 12). Afiziño ikáragarrixa (Larraña 18). Afiziño ikéragarrixa (Araotz 2). Gaztaiñuixa geukan ikáragarrixa Imíttola azpíxan (Olabarrieta 38). Basaurdia ikáragarrixa, e! (Olabarrieta 38).

ikaragarriko

Ikáragarriko ibilixa egin daue (Koldo zumalde). Ikáragarriko kuadrillia egozen! (Agerre, araotz, xeberi). Ikáragarriko adelantua da hori! (Araotz 2). Hori ikáragarriko bentajia da (Araotz 2). Oin ikáragarriko restaurantia dago han! (Araotz 2). Ikáragarriko zertzarra (basaurdetzarra) (Olabarrieta 38). Ikáragarriko zea, e! (Olabarrieta 38).

Guztietatik gazteen hizketan (OEBan) herrian “billurra” eta “billurtu” besterik ez dira geratzen.

Honi euskararen pobretzea deitzen zaio. Baina adi, pobretzearen aurrean OEZa ezagutzea aberaste bide bat da, baina nagusia Batua izango dela dirudi.

Horregatik, beldur handia adierazteko adibidez egokia dela dirudi “izutu” aditzak. “Jota izututa pasau neben gaba”, “erozein izuketako mouko pelikulia” (biak asmatuak).

billur iz, miedo

Bildur (Umerez). Billur, billúrra (Izagirre). Lurra aldamenetik, billúr-barik, bota egin bihar izaten xako (Arantzazu 8). Neri beti emun dost billúrra... (Murgixa 5). Nik billúrra sentiu neben momentu baten (Araotz 21). Billúrrez atrebitan ez diriala ezertara Tribunale Santu honen bildurrez (Umerez). Gu

billurrez (Murgixa 4). *Eta ama billúrrez zeozer egingo ete otzain* (Garibai 1). *Billúrrez airian!* (Murgixa 5). *Auzoko neskak danok batera etorten gitzan, tremendako zaratakin eta, barriakin eta; danok billurrez akabaitten!* (Murgixa 5). *Hik gura dokenian etorri, gu hemen egongo gaittuk-eta, billúrrez ez egon hona etorteko!* (Olabarrieta 24). *Faten naiz billúrrez* (Oñati).

billúrgarri, adj, oso handia.

Lanak billúrgarrixak, ikazgintzaia gogorra da! (Araotz 2). *Horrek (liñuak) eukan proseso bat billúrgarrixa* (Uribarri 12). *Neretako billúrgarrixena izaten zan baserrixa, sartu behin etxera, eta gero urten egin bihar atzera zeozeana (gauez), atzera urtetia zan, neretako, billúrgarrixa, e!* (Larraña 14). *Billúrgarrikua etorri zan (horeixa)* (Araotz 2). *Edúrtia orduan eguen billúrgarrixa* (Olabarrieta 1). *Billúrgarrixa (horeixa)* (Olabarrieta 29). *Orduan izotzak billúrgarrixak egitten zittuan, e!* (Olabarrieta 38). **billúrgarritako**: *Egin eben edurte bat haundixa, eta egin eben izotza gaiñian, baiña baiña hola billúrgarritako zeak!* (Olabarrieta 38) **billurgarrikerixa** *Lenengo holako billúrgarrikerixak esan umiari, eta gero kamarara fan bihar!* (Murgixa 5).

Hau ek ez dira ageri OEBan. *Billurtu, billurketan* bai:

billúrtu, billúrketan ad, da du,

Bildurtu (Umerez). *Billúrtu, billúrketan* (Izagirre). *Billúrtu egitten da* (Olabarrieta 29). *Gogua bai baiña, billúrtu egitten zan* (Araotz 2). *Billúrtu egitten da suakin (otsoa)* (Murgixa 5). *Bastante billúrketan zan* (Uribarri 12). *Billúrtu egitten zan han ibiltten* (Olabarrieta 1). *Eta uste eben, ba ni puskan bat billúrtu egingo ete nintzan pentzaitten eben, eta leku txarrian sartu eben hánkioi (meter la pata)* (Olabarrieta 1). *Ez dakitt hona etorten billúrtu egin dan, ero zer egin dan!* (Olabarrieta 1). *Mutillak gogortxuaguak ziran, gutxiago billurketan ziran* (Araotz 16).

Absolutibo pluraleko bokal bikoitzak

Gure katona lanean gaizki jasota daude absolutibo pluraleko bokal bikoitzak. Irizpide batasunik gabe.

Absolutibo pluralak leku nabarmena izan du OEZeant, baina ia guztiz galdu da.

Umerezek “*Osaba baten*” lanean behin eta berriz dakartza, ia modu sistematikoan. Bigarren lanean “*Erretore baten*” izenekoan, zeina lehenaren berrikuspen eta zabaltzea den, oso gutxitan erabili zuen. Dirudienez erabaki egin zuelako ezaugarri horri leku ez egitea.

Izagirrek ia sistematikoki jaso zituen.

OEZeant ez dut halakorik aurkitu, baina hobeto begiratu nahi nuke.

Araotzen Bittoina Goitiak modu sistematikoan darabiltza.

Ematen du galtzen joan den ezaugarria dela. Baina sistematikoa izan zela.

“*Katonean*” erabaki egin behar zen ezaugarri horri leku egin, edo ez.

Tarteko erabakia hartu zenez, batzuetan bai, eta beste batzuetan ez, emaitza nahasgarria da.

“Gure Katona”:

Azia (ez du jartzen “*azaak*”). *Babia* (ez du jartzen “*babaak*”). Berdin beste hauekin: *eskola*, *gela*, *dantza*, *panaderixa*, *txarrankak*... Pila bat dira, ez ditugu gehiago jarriko. Horiek horrela jarrita, beste batzuetan bokal bikoitza espresuki seinalatuta dago:

Zuza, *zuzia*, *zuzáak* (Katona). *Ira*, *iria*, *iraak* (Katona). *Ixa*, *ixia*, *ixaak* (Katona). *Bela*, *belia*, *belaak* (Katona).

Irizpiderik gabe jarriko balira bezala. Edo hitz horien kontua bakarrik balitz bezala.

Atzizkietakobokalbikoitzak kontuan hartzen dira: *Eráarixak*, *pelotaarixa*, *aizkolaarixa* (baina “*atxintxikalarixa*”).

Beste batzuk ez dira kontuan hartzen: *olasixa* (eta ez “*olaasixa*”). *Orrazixa* (eta ez “*orraazixa*”, Izagirre). *Belarritakua* (eta ez *belaarrrittakuak*, Izagirre), *larregi* (eta ez “*laarregi*”, Izagirre).

Izagirreren hiztegia “*bere horretan*, *zegoenetan*” konsultatzeagatik da (baina ez beti, gainera).

Ez zen ulertu forma horien atzean dagoen “legea”; deskribatu ere ez.

Hortik dator nahaskila. Arraroa da, hala ere, kontua, absolutibo pluralari dagokion azalpena zuzena da eta, *Oñatiko Euskeria* liburukoa (ikusi 38. orrialdea).

"Gizongel"

Katonean “gizongel” forma agertzen da. *Oñatiko Euskeria*-n “gizongel” forma agertzen zen. Izagirrereren hiztegian “gizongel” agertzen zen.

Izagirrereren hiztegiak “*errata*” zeukan. Antz eman ez zitzaiona.

Ematen du Izagirre zorrotz hartzea errespetu falta dela. Baina zorrotz hartu besterik ez zaigu geratzen. Erreparasatu, zalantzan jarri berrikusi.

Dagoenetan trasladatzekotan, hor dago haren Hiztegia. Eta hobeto litzateke haren edizio kritiko bat egitea, adibidez.

Baina bere horretan, hark (eta Villasantek) erdaraz jarritako definizioak *Oñatiko Euskara* (arrotz zaigun) batean jartzeak, badu zentzurik?

“-gei” atzizkia ezaguna da OEZean.

“*Gizongei*” jaso arren, inprentara “*i*” beharrean “*l*” hizkia sartu zuten.

Oñatiko Euskeria-n ez zuten atzeman, ez zuten zuzendu. Berdin *Katonean*.

Izagirrek batze lan bikaina egin zuen. Hori bai. Horrek ez du esan nahi ukiezina denik,

Izagirre zenbat eta estuago hartu, zenbat eta zorrotzago begiratu, indartuta irtengo da lan ona bada. Eta lan ona da.

Estu hartu ezkerro, berretsita geratzen da zuzen jaso zuela. Zuzen jaso zuela gehiena. Zer ez? Hori zehaztea tokatzen zaigu.

Izagirre balioesteko bide onena da.

Oñatiko euskara aztertzaileek ez dute hala ulertu (edo ulertu nahi izan).

"Xu" eta "xuau"

Forma berdina dira biak.

Jatorrizkoa "xuau" da, "xuagu" nahi bada.

Ohikoak izaten dira mozketak. Edozein hizkuntzatan. Batzuetan gehiago. Tradizio idatzirik ez bada, adibidez.

"Ein, eitten" (Izagirrek). OEZean "ein/in", "eitten/itten". Zaharrenek Izagirrek bezala.

OEban "in" eta "itten".

Aldeko dou (Izagirre).

OEZean "dou", OEban "du".

Berdina gertatu da "xuau" formarekin, "xu" bihurtu denean.

Nik entzunda daukat "xuau" forma indartua dela, eta "xu" indartu gabea.

Hori kalean entzun nuen.

Uste okerra da.

OEZean hitzun batzuek beti "xuau" erabiltzen dute. Beste batzuek beti "xu".

Xuau > xu.

Zergatik moztu den ez dakit. Hizkuntza aldaketa izango da, besterik gabe.

"Barik" eta "bare"

OEZean "bage" zaharraren aztarna batzuk geratzen dira.

OEBan ez dago halakorik.

Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoaren arabera forma zaharrena "bage" da.

"Banaketa dialketal historikoari eta tetuen irizpideari begira, bage formak dirudi zaharrena... Gabe metastesiduan erdi-aldeetik hasitako berrikuntza litzateke" (93-94. orrialdeak).

Bada + ge > bage.

Horrela proposatzen dute, "bada" (bat hitzaren) berreraikitako forma izanik, ez errejistratutako forma.

Gero:

Bage > gabe.

Eta gero "bage"-tik "bagerik". Eta:

bagerik > bagarik > baarik > barik.

"Baarik" Araozko Euskararen mantendu da.

"Bage" forma bere horretan ere, zerbait ageri da, gutxi. Umerezek:

Errege bage (Umerez).

OEZean jaso ditudan bakarrak gure amari jaso dizkiot:

Filetia ogí-errallauaz ero báre? (Olabarrieta 2). *Ni aspaldixan nabil báre (maskarillarik gabe)* (Olabarrieta 2). *Dako limoia (brokoliak) eta nik ipiñi izán-dot báre.*

Oraintxe artean iraun duela uste badut ere, ez dut beste agerpenik entzuterik lortu. Nahiz eta beste hau esan daitekeen, berdina aldaera dela:

Usteldu baatxo (bagetxo) daguenian... (Izagirre). *Eskolara faaterakuan artian ín-baatxo (kafea), eta...* (Araotz 16).

Bagetxo>bagatxo/baratxo>baatxo.

Bada beste forma bat ere, enbor berdinarekin adar:

Neurri bageko (Umerez). *Antz bagekua* (Umerez). *Buru bageko* (Umerez). *Hondar bageko amoriozko itsasuagaz* (Umerez).

OEZean:

Úrik-baako fregaderia... (Araotz 15). *Horz-baako arioi* (Araotz 16). *Ebai-baako egurrak* (Araotz 38). *Ha enterrau xuan zertu baako lurrian, bedeinkatu baako lurrian* (Lezesarri 1). *Akordau-baakon baten...* (Araotz 16). *Inpórta-baako erropak lenengo (suanean)* (Olabarrieta 25). *Geldíttu báakuak* (Araotz 16). *Ixó-baako garixa* (Araotz 39).

“Bage” dugu beste hauetan ere:

Bage + a> bagia> baia.

Umerezek:

On ezagutu bagia (Umerez). *Borondate bagia* (Umerez).

OEZean:

Bonberuak nik betik ezautu txuat, baiña bonberuak fundámentu-baiak (Olabarrieta 19). *Latósa-baia (esnea)* (Oñati). *Tomáte-baia* (Olabarrieta 2). *Orduan izaten zan euen arratzaldia, eskóla-baia* (Kalea 2). *Deklárau-baia (zerria)* (Olabarrieta 25). *Gánorabaia* (Larraña 15). *Len be ez gaittuk fan-baiak*

(Koldo Zumalde). *Gu ez gaittuk lánik egin-baiak* (Murgixa 2).

Eta beste hau:

Inddar + bage + tu > inddarbagetu > inddarbagatu > inddarbaatu.

Inddárbaatu, debiltarse (Izagirre). *Lótzabaatu* (Izagirre). *Zaartu eta gogóbaatu, danak xatozak hamen* (Araotz 2).

OEban apurtxo bat, oso gutxi, eta hitz jakinekin geratzen den bakarra “-baia” da, “ganorabaia”.

“-baatu” eta horrelakorik ez.

Bestela “barik” erabiltzen da eta besterik ez.

"Ittue"

"Ittue" hitza aztertuko dut, interesgarria da.

OEBetatik baserrikoek ezagutzen dute.

Bestela orokorrean OEB hitz egiten dutenek ez dakite zer den "*ittua/ittoia*". Horretara iritsi gara. Hobeto ezagutzen dute "*ikuilua*", Batuarengatik.

Umerezek honela:

Ituako sitsa (Umerez).

Hitzaren jatorrizko erroa "*ittoe/ittue*" dela ematen du. Hala ere, "*ittua*" ere aurkitu dugu erro modura.

Izagirrek hauek jaso zituen:

Ittóe txikiña (Izagirre). *Ittúa bat* (Izagirre). *Ittuatzaar bat* (Izagirre). *Ittuetan* (Izagirre).

OEZean hauek jaso ditugu:

Ittúako lanak egin, eta... (Murgixa 5). *Ittúan ganau pillia, eta...* (Olabarrieta 22).

Aulkixa da jarlekua, ardi-jaiztekoa igual, eta behi-jaiztekoa igual, ittúakuak izaten dira (Olabarrieta 1). *Hoi lengo ittóioi geldi dago, hor egoten ziran lau behi, txalak be bai, eta irixak be bai, eta danakin ittóia bete egitten zan* (Olabarrieta 1). *Ittóia barrixa ifññitta dako* (Olabarrieta 1). *Ittóia, larraiña, eta...* (Olabarrieta 38). *Ittúera sartzen giñan eta...* (Lezesarri 2). *Ittúatik etara eta...* (*behiak*) (Olabarrieta 1). *Larraña, barruko ittóia, kanpoko ittóia.* (Olabarrieta

35). *Ittúara ekarri* (Olabarrieta 29). *Ittóioi* (Larraña 4). *Ittúara* (Larraña 19). *Ha eskobia, ittoa garbiketako, laz latza* (Araotz 26). *Baserriko lanak, ittoian-eta, ganauakin-eta* (Olabarrieta 25). *Nola kale-baserrixak ziran, ittoa-eta egozen* (Larraña 15). *Gurian ittoa bete ganau egoten ziran-eta* (Olabarrieta 1). *Goizian jaiki eta ittuara, ittuako lanak egittera* (Uribarri 7). *Zenbaitt aldiz, hor ittuan, egon ete dira billotzak, hala ifiñita ardixak* (Olabarrieta 1). *Gere ittuan* (Murgixa 2). *Fan zeke trankilamente ittuara* (Murgixa 5). *Eta hortxe ittuan zuriketan gittuan* (Olabarrieta 1).

Ittuara sartzen baziñan, rra jaikiko ziran danak eta orrúaka (idiak) (Oñati).

Hiztun honen erreferentzia galdu dut. Interesgarria da “ittua”-rekin esaldi berean darabilen “orruaka”.

“Orrua” delako “ittua” ulertzen lagunduko diguna. Edo behintzat bere nortasun nahasira hurbiltzen. Umerezek:

Ganauben orroien... (Umerez).

Izagirrek:

Orrua bat (Izagirre). *Orróia* (Izagirre). *Orrúaka* (Izagirre).

OEZean:

orroe *Eta ez dotzue orróerik be egitten gaiñera, trankil egoten dira (ardiak)* (Murgixa 5). *Orróia* (Araotz 2) **orrúa** *Orrúa behixak egitten dau, ero txalak* (Olabarrieta 27). *Behixak orrúa egitten dauenian...* (Larraña 15) **orrúaka** *adb, Lenago, danak orrúaka!* (Murgixa 5). *Orrúeka dagoz (ahuntzak, ardiak ..)* (Olabarrieta 2). *Orrúaka dago (behia)* (Olabarrieta 27). *Ittuara sartzen baziñan, rra jaikiko ziran danak eta orrúaka (idiak)* (Oñati). *Ittuako sis-píllara* (Araotz 4).

Ze gertatzen da? Izagirre “orrua” jaso zuela erro moduan, baina OEZean jasotakoak “orroe” forma erakusten digula. “Ittua”-rekin gertatzen zena:

Ittoe, ittua, ittoa, ittuan.

Orroe, orrua, orruaka.

Baina Umerezek “orroi”. Beste euskaretan ere “orroi” eta “orro” (Orotarikoa).

Zentzua du bilakaera proposamen honek:

Orroe>orroi.

“*Itto*” aditzak ere argitasun apur bat dakar. OEZean formula hau erabiltzen da:

ixa .. -ian (-ean)

Adibidez:

Íxa íñian (Larraña 15). Esanahaia: “*égitear*”.

“*Ito*” aditzarekin:

Íxa ittúan (Mugixa 2) (ez “*ittoian*”).

itto + ean (ian?)> ittoean>ittuan

Jatorrizko erroak, hori guztia ikusita, hauek direla ematen du: *orroe*, *ittoe*.

“*Ittoe*” forma Izagirrek ez dakit entzun zuen bere horretan. Edo ondorioztatu egin zuen “*ittoerik*” bezalako formatatik.

“*Ittoe*” izan arren erroa, “*ittua*” ere erro lanetan jarrita ikusi dugu: “*ittúaan*” (Araotz 38) eta “*ittúaia*” (Araotz 16).

Ittua + an >ittúaan.

Ittua + a > ittúaia.

“-oe” amaieradunak (mendebaldeko euskaran) maileguak dira, gehienak.

“*Balúe*” (OEZ), “*balon*” esateko. “*Turrúerik*” (OEZean jaso, “*turroirik*” esateko). Eta beste mila bat.

Hortik galdera: “*ittoe*” eta “*orroe*” hitzak gaztelaniako maileguak ote dira?

Eta “*morroe*”?

Ezin dut baieztatu horietako bat ere gaztelaniatik datorrenik. Kontrakorik ere ez.

Hurbilpen bat egingo dut.

“Ittoe” onartzen da hitz elkartua dela, *idi* + *ohe* > *itoe*.

(Gogoratu *idi* + *aurre* > *itaurre*).

Galdera da: “*ohe*” euskal hitza da? Sostengatuko litzateke hau?

Camon > *camoe* > *oe*?

Zaila. Bestela hasiera gordeko luke. Zergatik erori behar zen “*cam-*” hori?

Eta bestalde; nola azaldu hasperenaren presentzia (“*h*”-aren presentzia), aztarna “*uge*” modukoetan mantentzen dena?

Ezin da azaldu. Deskartatuta.

Ikusi dezagun “*orroe*”.

Rronrron > *ronrroe* > *orroe*.

Bilakaera honen frogarik ez daukat, “*ronron*” hitzetik “*orroe*”-ra esanahi aldetik azalpena beharko litzateke.

Bilakaera fonetiko hori posiblea den ez dakit.

Bestea “*morroe*” da. OEZ gutxitan baina agertu zaigu:

1489ko dokumentu interesgarrian *Morroe Zuria* (1489) eta *Morroe gorria* (1489). Misteriotsua da, baina hori esan nahi duela ematen du, *Joane Zuria* eta *Pero Zuria* ere agertzen dira.

Umerezek ere “*morroe*”:

Ezin eurretatik inor hartuko dozu zeure etxerako neskame edo morroetzat (Umerez).

OEZean gutxi jaso ditugu, “*kriau*” hitza da nagusi.

Morróe hemen egon zan Ixabelena (Olabarrieta 1). *Dakittela hola morróerik ez* (Olabarrieta 5). *Jexuxmai hemen egon zan morrúe*, *kriau hemen egon zan gazterik etorritta* (Olabarrieta 1). *Morróe ero kriara behintzet bai* (Araotz 29). *Ez eguen morróiendako dirurik* (Murgixa 4). *Leku batzuetara batzuk morrói, eta beste batzuk lanera, eta...* (Araotz 24). *Mutikotan morrói*

(Araotz 24). *Nik ezautu ttut hemen morróiak* (Olabarrieta 25). *Kalian gosiak, jentia morrói-eta fan bihar* (Olabarrieta 19). *Morróia* (Olabarrieta 29). *Morrói? Hemen Errostan bertan be euki geben, Zumarragako mutiko bat* (Olabarrieta 15). *“Morróia” be entzuna zan* (Olabarrieta 27).

Orotarikoan ere agertzen da “*morroe*”. Eta “*morroin*” ere bai. Horrek ere mailegu itxura du. Mendebaldeko “-oe” iparraldean “-oin” delako. “*Botue*”, “*botoin*”.

Baina zein da izatekotan gaztelaniazko jatorrizko forma, “*morron*”?

Agertzen da “*morron*”, baina hizkera kolokialean “*golpe*” esan nahi duela, dio erdal hiztegiak. Eta piper klase bat “*morron*” dela. Kolore gorriko adreilua izendatzeko ere erabiltzen dela. “*Morro*” hitzetik datorrela ere jartzen du (sarean).

Baina horiekin ezin du zerikusirik izan.

Hala izanik, ezin baieztatu mailegua denik. Ezta ere izatekotan gaztelaniazko ze hitzetan duen jatorria.

"Darrauna" eta "ronrrona"

"Orroe"-ren jatorriaren bila "ronron" agertu da.

Gerneta Etxebarrikoek erabiltzen zuten "rronrróna", beste kontestu batean. Forma ia onomatopeikoa.

Interesgarria da hitza. "Abioia" esan nahi du. Gerneta Etxebarrikoek umetan ikasi zuten, 1930eko hamarkadan, abioiak EH-ra iritsi zirenean.

Jaiotza prozesuan den hitz bat da.

Ez da izango kasualitatea onomatopeia bidez erditu izana.

Ikusi dezagun nola agertzen den:

"Eta gero ya gerria etorri zan eta abionak, gerrioi zeatu zan, eta abionak pasauten zien. Sei igual batera. Baiña bat eguen, hamabittan pasauten zan, ez dakitt, hori zan enkarguun bat egitten eben, handik Arabara ero... Hari "ronron"-a esaten gotzan, "baxaton Ronrrona!"" (Bittoina, Gerneta Etxebarrikua).

Baliteke gainera oraindik zabaldu gabea izatea. Arbola baten haziak bezala, sortzen dira, baina ez dakigu zabalduko diren, iraungo duten.

Bestea tankerakoa, "darráuna" da. Hau ere Gerneta Etxebarrin jaso.

Antzeko ezaugarriak ditu, tresna/makinaren hotsetik osatua da, onomatopeiatik. "Haize-errota" esan nahi du.

Haize-errota zaharragoa da abioia baino. Baina ez askoz zaharragoa, dirudienez nahiko berria da eta, beste baserri-tresna batzuk ez bezala.

Ikusi dezagun:

"Guk darráuna esaten gotzan. Guk itxeukuok danok, darráuna (haize errota). Gerien akaboten bazan garixak garbiketia, gerien egoten zan.

Garixa eta azala naastuta izten dau garixa joteko makiñiak. Eta gero ha bota darráunera, eta gero erain hola eta harek min bat eukitten dau, eta azpixon dako saria, galbaien moukua, eta gero zarramarra dana horra, eta gari dana behera, azpira.

Emakume fuerte atxurren-eta egitten dana (dana, dauena), ero gizonezkua, hari ereitten” (Bittoina, Gerneta Etxebarrikua).

"Tantana" eta "txitxiña"

Bi hitz hauek ere antzera sortuak dira, hotsetatik abiatuta, onomatopeikoak dira. Baina diferentzia nabarmena dago, hauek ez dira jaioberrriak.

Adierazten dutena ikusita oso zaharrak dirudite.

Noizkoak diren? Ez dakit.

Bataren esanahia "gota" da. Bestearena "gotera".

Lehenaren jatorria horixe da, urak tantak dariola dagoenean egiten duen hotsa (zoruaren kontra jotzean?), tan tan tan...

Tan + tan > tantan > tanta.

Eta bigarrenaren jatorria berdintsua da. Tantek ganbarako zorua jotzean egiten duten hotsa: txin txin txin...

Txin + txin > txintxin > txitxin.

Txitxiñak teilatukoak dira.

"Tanta" eta "tanto" erabiltzen dira EHko hizketetan. Oñatin "tantana". Tantan hitzaren aipamen bakarra "Ochoa de Arin" ordiziarrarena da (1713), aurkitu duguna. Bakarra baina esanguratsua.

"Tanto" formak jatorri onomatopeikoa zalantzan jarrarazi diezaguke. Baina ez da nahikoa arrazoi deskartatzeko.

Bitxia da, berriro ere Umerezek espero ez genuen forma dakar.
Itxasuan ur tanta aiña (Umerez).

Izagirrek:

Tantan, tantána (Izagirre). *Izár(di)-tantanak* (Izagirre). *Baina gero “tantaka, tantakia”*.

OEZean:

Láu tántan (Olabarrieta 2). *Goizian euri-tantan batzuk* (Larraña 2). *Tántan asko* (Larraña 9). *Limúe tántan batzuk bota, eta...* (Larraña 9). *Tantának* (Larraña 14) *Ya tantának hasten ete diran be... (euri tantanak)* (Olabarrieta 2). *Goizáldera tantan batzuk* (Larraña 2). *Paguak-eta eukitten xuai tantana, eta tantana gogortu egitten dok, eta haxe dok latróntxia* (Araotz 7). *Tantan malutzak* (Larraña 2). *Nik illunkaran botaten ttuk tantanak, begixak osáketako* (Olabarrieta 1) *tantánka, Tantánka* (Araotz 18).

“Txitxiña/txintxiña” Orotarikoak Arrasaten, Bergaran eta Oñatin bakarrik deskribatu ditu.

Izagirrek *“txintxiña”* eta *“txintxinpeian”*.

(*“Txintxiliz, txintxilikaixo...”* lotuta daudela ematen du, euren moduz).

Araotzen *“itokiña”* erabiltzen da, *“txintxiña”* ezin dut baieztatu. Izagirrek Araotzen *“ittokin, ittokiña”* eta *“ittójin, ittójíña”*, biak.

Bestalde euskal hizketa batzuetan *“txintxin”*-ak kanpanilla hotsa adierazten du, edo diru hotsa.

Interesgarria da hitz bera erabili delako hots desberdinak errepresentatzeko.

Umerezek *“chichina”*:

“Iges egizube errangei alakorra danagandik, zergaitik Espiritu Santubak konparaitan dau emakume alakorra txitxina behinere faltau bagarik dario teillatubagaz”.

Iñor bizi ez dan etxia... txitxiña daguela eta... (Larraña 4). Txintxina (Izagirre). Txintxinpeian (Izagirre). Txintxin-azpitan (Araotz 21). Gau danian txintxiñak geldittu barik, arbixak ya bistaatu dira, egun dana epel, Larraña ya garbi (edurtearen ondoren) (Larraña 2). Txintxiña segiru (Olabarrieta 17). Txintxiña esaten xako horri (Olabarrieta 19). Txintxinpera (Araotz 21). Guk geuken depositto haundi bat, txintxiñeko urana (Araotz 21)

Aurrerago onomatopeia jatorrizkoetatik gehiago aurkeztuko ditugu.

"Traste"

"Traste" hitza "zera"-ren lekuan aurkitu dugu OEZe.

Gutxi agertu zaizkigu:

Horreik hor egon bazien, horreik esploradore ero trastiok, honezkero kobok ero lezok... topauta euko ttue (Araotz 40). Kamiñuan be ez eguen gaur lako beste kotxe eta traste! (Uribarri 12). Soldaditos (arrain klasea) ero trastiok (Olabarrieta 2). Piñua eta piñua, eta piñuorri be gáitza ero trástia (agertu zaio), eta maiña bat bota be egin dok piñua (Murgixa 2). Jente guztia dabil onlain ero trasté-zar hortatik (Olabarrieta 2). Íllorroi ero trástioi! (Olabarrieta 5).

OEBan ez da erabiltzen. Batere.

Orotarikoan oso gutxi ageri da. Intxaustik Seguran zerbait: "Hau koronela baiño haundiagoa da, eta bazan "presenten, armas", eta "firmes", eta trastea ugari".

"Sasi"

"Sasi" esan da beti OEZean. Ez "sasa", OEBan entzuten den moduan.

"Sasa" berria da. Askorik ez da entzuten hau ere. Eta ematen zaion esanahia "sasi"-rena den ere ez nago seguru

OEZean "sasi"-rekin elkarbizitzan izan da "nar".

Zein den hauen arteko aldea, ez dago argi. Bien esanahia gaztelaniazko "zarza" eta "maleza"-ren artean dabil.

Izen zientifikoa "*rubus ulmifolius*" du sasiak ("zarza").

Elxpururen definizioak zuzena dirudi: "*Zenbaitek "arantza"-ri, masustak ematen dituenari, "sasi" deitzen dio. "Sasi"-ren esanahi arrunta orokorragoa da*".

"Zarza"-ren definizioa (RAE-n):

"*Arbusto silvestre espinoso, cuyo fruto es la zarzamora*" (zarzamora, masusta).

"Maleza"-ren definizioa (RAE-n):

"*Espesura que forma la multitud de arbustos, como zarzales, jarales...*".

"Nár" hitzak "zarza"-ren esanahia duela ematen du. Baina inguruan duen "zikin" guztia ere izan daitekeela "narra" ematen du, multzo osoa ("maleza").

“*Sasixa*” “*zarza*” den, “*rubus ulmifolius*” den, zalantzagarriagoa iruditzen zait. Baina multzo osoari “*sasi*” deitzen zaiola esango nuke. Basoa “*sasíxak janda*” adibidez.

Umerezek:

Nar eta bedar dongak (Umerez).

“*Sasi*”-rik ez darabil (bere lana erlijiosoa da muinean, hori bai).

OEZean:

Holakotxe nár haundi bat (Araotz 7). *Narr-ártian* (Olabarrieta 2). *Paretok jausitta nárr-artian* (Urrexola 2). *Ez da egongo nárrrik eta zarrámarrarik be bertan!* (ironia) (Murgixa 5). *Nárre ekarri dau (piñuak)* (Uribarri 2). *Han xagok etxia, nárrak hartuta!* (Olabarrieta 24). *Horréik nárrrok dagoz egotekuak!* (Olabarrieta 2). *Nárrak* (Araotz 14) *Nárren gaiñian síkáketan, erropa asko urteten eben puxetatik-eta* (Araotz 21). *Orduan mantzanillia urteten xuan biretan danian e, ez xaguan nárrrik eta istorixarik!* (Olabarrieta 24). *Oin geittu dana, nárre* (Murgixa 2).

Jarraitzeko, “*sasa*”rena argitzea komeni da. Ez delako guztiz zuzena esatea “*sasa*” ez dela erabiltzen OEZean.

sasárte

Sasárte, zarzal (Izagirre). *Egoten dira sasá-artietan eta* (Oñati). *Sasa-artian* (Araotz 9). *Ardixak ikusi nixonan sasárte baten, eta...* (Araotz 31).

Sasiarte > *sasáarte* > *sasárte*, asimilazioz.

Hau okerra da:

sasa + a +> sasía.

OEBan zabaldu dela uste dut.

Baina izan, “sasi” da erroa:

sasi iz.

Sasí-oste (Larraña 12). *Sasíxak ebaten, eta iría ebaten eta... (emakumeak ibiltzen zirela)* (Larraña 6). *Lenengo basuak, plantaitteko garbittu egin bihar izaten ziran, sasíxak-eta puska bat kendu, eta...* (Olabarrieta 19). *Sasíxa, badakitzu zer dan sasíxa? Sasíxa da, zela esango dotzuet...* (Araotz 24). *Sasíxa eguen lekuan...* (Araotz 24). *Oin dana sasíxa da, baiña orduan ez eguen halakorik* (Olabarrieta 1). *Sasíra bota xuan berak (hegazti bat)* (Urrexola 1). *Egunen baten sasíin bateri sua emun, eta...* (Araotz 7). *Sasíxa* (Araotz 7). *Oin dana sasíxa xagok* (Olabarrieta 14). *Jeneralian egitten euen hartu sakun baten eta sasíra bota (bearrak)* (Olabarrieta 1). *Eta sasíxa eguen beraguan, eta...* (Murgixa 2). *Sasíxakin* (Olabarrieta 34). *Piñua eta sasíxa* (Olabarrieta 10). *Sasíxak-eta kendu-eta...* (Larraña 4). *Sasí-gañien* (Araotz 16).

Mujikak Oñatiko toponimia jasotzen zuen lanean “*Sasisoro*” leku izena jaso zuen. Kurisoa da, sasiak hartu duenak soroa izateari uzten diolako. Sasidun soroa esan nahiko du, soroa baina sasia ondo kendu gabe duena.

"Gertu"

"Gertu" hitza aztertu dezagun.

"Cerca" esanahiarekin hasi dira erabiltzen gazteak. Eta ez hain gazteak. OEB hitz egiten dutenak betiere.

"*Déndatik gértu*" (OEB) (cerca de la tienda).

Aurrez ere bazen "*gértu*", baina "*prest*" esan nahi zuen. OEBan "*prest*" sartu da eta zabaldu, Batuaerengatik.

Gértatu, *gértáketan* ere bazen OEZeant, "*preparar*" esateko. OEBan ez da erabiltzen.

Horren ordezt "*preparau*" erabiltzen da.

"Gertu" honela jaso dugu:

gértu prest

Gértu dago (Izagirre). *Jentia burla egitteko gértu eukain* (Olabarrieta 1). *Porru-patatak ya egindda gértu* (Olabarrieta 2). *Egunian eruaten bazeben, hurrengo egunerako gértu beti* (Olabarrieta 1). *Badakitzu, beste batzui faltak etarateko gértu egoten gara!* (Kalea 2). *Gértu ifiñittakua jatea, samurrena háxe da!* (Olabarrieta 1). **gértu-gértu** *Hauxen gértu gértu ifiñiko dot gero egosteko* (Olabarrieta 2). *Illunkaran zapatak-eta garbittuta ifiñi, eta goizian jazteko gértu gértu* (Olabarrieta 25). *Gértu gértu dagueña di-da hartu eta jan* (Olabarrieta 1). *Garbittuta eukitten zittuan gértu gértu* (Olabarrieta 1)

gertátu, gertáketan preparar

Beti bizi izan zan gertaturik eruateko gugatik mintasun eta nahibagetasun mueta guztiak (Umerez). *Gertatu, preparar* (Azkue). *Gertátu zátez!* (Izagirre). *Bazkaixa gertátu* (Olabarrieta 25). *Afaixa gertáketan nabil* (Olabarrieta 2). *Jatordua gertáketan eben amak, eta...* (Olabarrieta 25). *Badiardue gertátuaz* (Olabarrieta 2). *“Ifñi-ion horri tortilla bat ero!” eta gertatu txan tortillia* (Murgixa 2). *Egurra gertáketan* (Uribarri 4). *Eurak gertáketan euen* (bazkaria) (Oñati). *Laríseo sáilla haiziak etara eta gertátu xok kamionkaa bat, eta...* (Murgixa 2)

OEZean “*húrrian*” erabiltzen da “*cerca*” esateko. Forma aberatsa izan da, baina OEBan ez da erabiltzen. Eta galtzera doa.

Umerezek:

Obispo jauna hurrian ibiltia (Umerez).

OEZean:

Araba hurrian dago (Gerrako Garra). *Eskolia húrrian* (Araotz 18). *Húrrian egonda ñagok* (Olabarrieta 20). *Harek etxe-illara harek atzekaldian txaria eukan, oso húrrian, e!* (Kalea 2). *Eta fango ziran han húrrian eguen tabernaen batera ero norabait* (Olabarrieta 1). *Oso húrrian bizi giñan eta (eskolatik)* (Uribarri 11). *Etxian ez, baiña oso húrrian bai (ura)* (Uribarri 11). *Sugia be bastante hurrian xaguan e!* (Larraña 6) *Gure etxian húrrian eguen, eta...* (Arantzazu 7).

Erroa “*hur*” da.

Bere horretan ez da ageri, adibide hauetan ez bada:

Húr húrrian dakozu (Olabarrieta 2). *Húr húrretik* (Olabarrieta 8).

“Hurbil” hitzak ere, itxura guztien arabera, erro bera du.

Beste guzti hauen oinarria ere “*hur*” da.

húrrekua *Húrrekua* (Izagirre). *Neure húrrekua izan ezker...* (Uribarri 12) **húrretik** *Hurretik* (Umerez). *Húrretik* (Izagirre). *Telebisiñua ikusten euen holaxe húrretik* (araotz 24). *Húrrera* (Murgixa 2) *húrrago*. *Húrraguan* (Izagirre). *Húrraguan* (Olabarrieta 1). *Húrraguan* (Murgixa 2). *Negua gero eta hurrago* (Koldo Zumalde). *Hemendik Zeriagara baiño húrrago geukan*

bost baserri (Olabarrieta 1). *Haraiño faten ibilli barik húrraguan* (Murgixa 5). *Geu Aztirira joaten giñan mezetara, húrrago geukan-eta* (Uribarri 11). *Araotz húrrago* (Urrexola 2). *Gurera (etortia) húrrago egingo xakoin!* (Olabarrieta 29). *Goiko kumunera nator, espillua húrrago geraketan xat eta...* (Olabarrieta 2) **húrtxuago** *Hemendi hurtxuago sartuko gara* (Azpilleta). *Húrtxuago tokaitten ziranak...* (Torreauso 1). *Ura be guk baiño húrtxuago eukain* (Olabarrieta 17). *Hurtxuago tokaitten ziranak lau be egin izan gittuan* (Oñati) **húrrenak** *Projimuen artian hurrenak dituzu zeure Guraso, emazte...* (Umerez). *Daukai erru mueta bi; bata hurrenekua, egin zitubanian emun eustena* (Umerez). *Konsejeruak edo bere aide hurren batek interesarik badauka* (Umerez). *Parienterik húrrenak, los más cercanos* (Izagirre). *Zuek húrrenak aldekuak ordenan zeuek zarai, eta...* (Olabarrieta 1). *Beziñorik húrrena Txoména* (Araotz 15). *Guk etxiak húrrenak horreik dakou* (Araotz 1).

Aditza osatzeko adlatiboa (nora) gehitzen zaio.

Hur + era + atu > hurreratu.

Asko ez, baina badira honelako gehiago OEZean “*eskiñaratu, etxeratu...*”. Hauek aurrerago ikusiko ditugu.

húrreratu, húrreraketan ad da, gerturatu. *Hurreratu zan* (Umerez). *Beragana hurreraketan itzi bagarik* (Umerez). *Hurrératu, hurréraketan; acercarse* (Izagirre). *Húrreratu* (Larraña 9). *Húrreraketan etorren* (Araotz 2). *Húrreratu ezker...* (Larraña 15). *Negúa húrreraketan, eta...* (Araotz 2). *Húrreratuaz, gero eta húrrago (oporretatik bueltan)* (Olabarrieta 2).

Azentua, ikusita Izagirrek modu batean jaso zuela eta nik beste batean, hobeto begiratu nahi nuke.

“*Hurrengo*” pago beraren adarxka da. Aurrerago ikusiko dugu.

Jasoketak

Jasoketei dagokienez, OEZA hitz egiten duten oñatiarrei zalantzak ditugunean, galdetzeraz goazkie. Eta eurek argitu ahal dizkigute.

Kontzientzia daukat informazio iturri hori kontsultatzeko, meharragoak direla denbora irristuak, egunez egun.

Transmisioa eten zelako.

Gurea ez da euren kultura. Ez da euren hizketa.

Asko jaso da, kantitatea esanguratsua da.

Beste herrialdeekin konparatuta ez dakit nola dagoen kontua.

Europar denbora zaharretatik bizirik iraun duen bakarra euskara da (Europako zaharrena dela esaten denean hori esan nahi da. Ulertu nahi eza beste kontu bat da).

Jasoketak zorroztu, erreparatu, galderak berplanteatu, okerrak zuzendu; horretarako marjena dago, baina ez askorik.

Elexpuruk Gure Bazterrak-ekoei esan zigun “*berandutxo este zabizten!*”. Arrazoia zuen. Berandutxo genbiltzala. Berandutxo hasi ditugu jasoketak.

Zorionez, berandu ez.

Baina iritsiko da herri hizkerak desagertuko diren eguna.

Eta egun tristea izango da EHan (Erronkari Handia izango da orduan).

Jarraituko dute herri hizkerek, nolabait. Baina eraldatuta, diferente.

Eta kontsultetatik asko, inportanteenak, ezingo dira egin une horretatik aurrera. Eta ez dago artxiborik halako informaziorik duenik. Ez internetik ez adimen faltsurik.

Eta altxorraren parte handiena arbasoen lainoetara lurrunduko da.

Emakumearen eta gizakumearen erreferentzia hitz elkartuetan

Hitz elkartuetan emakumearen eta gizakumearen erreferentzia nola agertzen den. Interesgarria da. Beti berdin. Eta osagaiak aldatu ezker oker leudeke. Eta ez dago irizpiderik deskribatzeko modurik.

Hala da, hala daude ezarrita.

“*Andragizonak*” zuzena da, baina “*gizon-andrak*” okerra. OEZean.

Eta hauetatik batzuetan lehendabizi emakumea jarri behar da. Eta beste batzuetan alderantziz jarri behar da. Eta ez dut aurkitu zeren arabera den, horrela dela, besterik ez.

Forma hauek galtzen ari dira. OEBan ez direlako erabiltzen.

Ikusi ditzagun:

alde batera

Faten giñan hiru-lau neskatilla mutiko... (Araotz 41). *Atzó-agurak* (Olabarrieta 2) *Neskáilla-mutiko pillia dantzán* (Larraña 4). *Neská-mutillak* (kalea 2) *Andrá-gizonak pasiuán (paseoan)* (Olabarrieta 2). *Andrá-gizonak* (Olabarrieta 1). *Atzó-agurok erarekuak be faten zien* (Araotz 27). *Beasaingo tiá-tiuak* (Olabarrieta 1) .

bestera

Zuben semealabak (Umerez). *Horreik aittajun-amandriok* (Araotz 41). *Aittájun-amándriak* (Olabarrieta 1). *Ama eta bost semé-alaba* (Olabarrieta 5).

Aittá-amai lagun egitteko (Araotz 29). *Gu anái-arrebok etorri gara zeu ikustera* (Olabarrieta 1). *Haik aittajun amandriak* (Araotz 38). *Kriáu-kriára batzuk* (Araotz 22).

Desberdinak:

Tiá-illobak (Olabarrieta 15).

"Almeuna"

Lagun batek esan zidan, seguru zegoela, Oñatin "*alméuna*" esaten dela. Beti horrela entzun duela "*bere inguruan*".

Baina jasotakoa kontrastatu behar da.

Forma desberdinak badaude jaso, aztertu, eta "forma zaharrenak" identifikatu alde batetik. Eta bestetik erabilienak, edo joera nagusienak zeintzuk diren zehaztu.

Gure amari beti "*éultzi*" entzun diot ("*eutzi*" esateko). Forma interesgarria da (gogoratu Ormaetxea, Aramaixo, "*éuntzin*"), baina grabaketa guztietan "*éutzi*" agertu zait.

"*Éultzi*" jasotea zuzena da kasu horretan. Baina gehitu behar zaio agerpen bakarra erregistratu dugula.

Gure amak "*aspertugarrixa*" esaten du, "*aspergarrixa*" beharrean. Jasotako kasu bakarra dela (oraingoz) zehaztu behar da kasu honetan ere.

"*Alméuna*"-rekin beste hainbeste gertatzen da.

Nire lagunak "*alméuna*" jaso zuen. Ez dut uste gaizki jaso zuenik. Baina jaso dudanaren arabera, ez da nagusi den forma. Ezta jatorrizkoa ere.

Amerun>*amelun*>*amelun* (azalpena?).

Umerezek:

Amaraunez beterikako (Umerez). *Amaraunak kendu* (Umerez).

Izagirrek:

Améraunak, telaraña (Izagirre).

OEZean

Améunak kentzera fateko be! (Olabarrieta 2). *Améunok* (Olabarrieta 2)

Adibide gutxi dira, ondorioak ateratzeko.

Komeni da jasoketa zabaltzea.

Oñatiko Euskeria liburuko forma batzuk zalantza sortzen didate, ikuspegi honetatik (“*goizalba*”, “*amaittu*”...). Aurrerago aztertuko ditut.

"Gorri"

Oñatin (OEZean) “gorriak”, erdarazko “rojo” esan nahi izateaz gain, besterik ere esan nahi du. izan du.

“Narru gorrian”, Umerezek. Ez du esan nahi larru “gorri”-rik hizketagai. Soil, beste ezer gabe, esan nahi du, arroparik gabe kasu honetan.

Honekin lotuta dago “ungurrutzian” forma.

Afraketak kaltzetin barik edo sartu barik ibilttia (Euskaltegia).

Ingurrutsik (Fermin Altube).

Bi definizio agertu zaizkit elkarrizketetan. Bata da abarkak janzea galtzetinik gabe:

Kaltza baarik ibiltteai “oingurrutza” esaten xaku (zaio), kaltza baarik eta zapatilliaaz. Abarkia jazterakuen beti kaltzaak. Ortozik da ezebe baarik, eta oingurrutzik da zapatillia, afraketia, kaltza baarik (Araotz 16).

Beste esanahia “ortozik” da:

Ongúrrutzik (Murgixa 8). *Ungúrrutzik, oiñetako barik* (Larraña 6). *Ingúrutzian ibilli ezkerok hankak busti egitten ziran aguro!* (Olabarrieta 1).

Forma honen parteak hauek dira:

Oin + gorri + hutzian > oingorrutzian.

Oin + gorri + hutzik > oingorrutzik.

Eta horietatik irten direnak.

Elexpuruk “*ortozik*” bezala azaldu zuen: “*oingorri hutsetan ez hari ibilli*”.

Zehazten du Zaldumendi baserriko Donato Ibargureni (Bergara) jaso dela. Eta gehitzen du: “*ez dugu beste inoiz entzun*”.

Ikusi beharko litzateke zehazto Atlasekoek (Atlaseko jasoketatik hartu zuenez Elexpuruk) nola grabatu zioten “*oingorri hutsetan*” edo forma moztuago batean, Oñatin bezala.

Forma hau (“*oingurrrutzik*”) guztiz ezezaguna da OEBan hitz egiten dutenendako. Eta galduko da laiak lurrean sartzen ateratzen zuen haizearen artetik.

"Luzetu"

"Luzetu" hitza aztertzeak merezi du. OEZean "luzetu" esaten da, iñoiz gutxitan "luzatu". Berez logikoa da jatorria "luze" dela kontuan hartuta. Baina euskaran ohikoa da "-a" amaieradunak "-e" bihurtzea zerbait gehitzen zaienean, OEZean ere ohikoa da. Baina kasu honetan "luzetu" da nagusi, ez "luzatu".

lúze adj

Pero Luze de Datustegui (1489). Etxaluze (topnm, mujika). Soraluze (toponm). Jornada luze hau (Umerez) Bide luzia (Umerez). Lúze luzía (Izagirre). Lúze luziak (Araotz 22). Bire luzía ez zan (Araotz 15). Lan luzía, e, luzía! (Araotz 7). Luzé-xamarra (erramak) (Olabarrieta 21). Maixú-luzia esaten gotzan (Uribarri 12). Luzé-samarra (Larraña 15). Makilla lúze bat (Olabarrieta 27). Al dan luzétxuena topau, eta... (Araotz 16). Lu-zí-e-i egindda (daude bedarra) (Olabarrieta 2).

lúze adb

Eguardixan bazkaixa egin eta atzalde dana han pasaitteko lúze izaten zan (Olabarrieta 1). Lúze ebai (Araotz 16). Tamaiña inguru hau lúze (ziren) (zerrak) (Murgixa 2). Ha (kojoa) lanera etorten zuan bizikletan, pedal batekuakin, eta hanka bat eruatzen xuan lúze (Olabarrieta 24). Lepua hola luze luze egindda (sugea) (Araotz 9). Ehun metro lúze (Larraña 18).

luzénka

Luzénka, luzénkia (Izagirre). Luzenka geratu da (Izagirre). Luzenkia da (Izagirre)

luzéra

Hau luzéra fango dok (Oñati) .

luzéera iz,

Luzéera (Izagirre). Luzéera haundikua (Larraña 9). Tamaño hontako luzéerakua (Araotz 7). Holakotxe luzéerako zeak egoten ttuk (artuak) (Lezesarri 1). Luzéran ebai, enda ba... (Olabarrieta 22). Luzéeria eukitten eben... (Torreauso 1). Beste holako luzéerakaa bat egin eta... (haria) (Araotz 16). Luzéeria (Olabarrieta 22). Tamaiño hontako luzérakua (sugea) (Olabarrieta 1). Holako luzéra baten (Olabarrieta 40). Luzéra hortakuak (Olabarrieta 19).

luzéska adj

Luzeska bat (Izagirre). Luxéxka bat (Izagirre). Luzéska (Larraña 14). Holako luzeska bat (Larraña 9).

luzétu, luzéketan ad da. Alargarse.

*Luzétu (Izagirre). Luzétu (Kalea 2). Eguna luzétu (Arantzazu 8). Txixaria enkojiu egitten da eta luzétu egitten da (Larraña 9). Luzétu arte (Olabarrieta 31). Luzéketan (Araotz 8). Dago luzétuta ez dakitt noraiño (Olabarrieta 2). Luzétu (Araotz 38). Luzétu (Kalea 2). Luzéketan dabil lelako (Araotz 2). **luzatu** Honek eskuak luzáketan ttu aguro (umeak) (Olabarrieta 2).*

Umerezek ez “luzetu” ez “luzatu”, ez da ageri, baina “luzaketan” (ez “luzeketan”).

Izagirrek “luzetu”. “Luzeketan” edo “luzaketan” ez zuen jaso.

Izagirrek “luzepen” ez “luzapen”.

OEBan “luzatu” esaten da. Batuagatik? Bai. Batuagatik.